

EDORTA JIMENEZ

Azken fusila

SS narratiba
Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 1993 Edorta Jimenez

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 1993ko azaroa

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

Elkarrekin batera trenbideko
azken bost kilometroak
egin zituzten preso errepublikanoei,
gure aita izan zen
Antonio Jimenez Navarro-ri bereziki.

Urte bi eman ditu Onofrek herritik kanpo, itsasoak hausten, eta etorri denean mundu zabaleko hotzak berarekin ekarri ditu. Aspaldiko neguetarik hotzena da 1952ko hau. Mara-mara etorri da zerua goitik behera, etenbarik eta astiro. Esku zuri leguna hedatu da denera, baita hondartzara eta irletara ere. Kaio zaharrenek herri barrueta-ko kaleen aterpea bilatzen dute eta itsastxori berriek ez dakite besterik egiten haien buztanaren atzean ezkututzen baino. Luisekin izan duen adiskidetasuna bera ere hormatu egin zaio Onofreri. Haragian barrurantz zulo egiten nabaritzen du hotza, hotz zorrotza, burdinezkoa. Anitak alde egin dio etxetik, halako atxakia ganorabakoa ipinita. «Bilboko etxean behar nabe, amama gaixorik dago eta». Berak ere ez du sinesten, Anitak, gezurra.

Onofrek ez du kemenik izan halako zeozer esateko, «geratu zaitez» edo halakoren bat, edo aitortzeko, «beitu, haragiak min ematen deust eta goazen ohera». Ez da halakorik egin euren

artean aspaldion. Horregatik dago orain ohean bakarrik eta bakardadean Onofre, bere soinaren neurriak neurtzen, logurari deika eta erantzuntzat kanpoan arin dabilen haizearen txistua aditzen.

Hots egin dute atean eta marmarka altxatu da Onofre, «nor osti ote da ordu honetan, lupua lako gau honetan». Atera ailegatu orduko berriro egin dute hots, halako moduan non susmoa hartu duen gizonak. Une batez geldi geratu da, erne belarria, adi zentzumen guztiak, inori atea zabaldu aurretik seinaleren bat beharko balu edo, antzera. «Bat bakarra diagok hor, Onofre», bere artean esan eta giltza kendu dio ateari.

Zirrikitu txiki bat baino ez eta haizeak gogortu egin dizkio oinak Onofreri. Behera begiratu du. Basoa etxe barruan izatea moduan ikusi du dena. Elur malutak han behean urtzen eta bekokian jo dion hats jelatua, beste mundukoren baten bisita begitandu zaio. Bisitariak «Onofre!» hutsa esan dio, birikietan hasten izan zaion ahotsaz eta hala deitua izan denak aspaldiko zeozeren oihartzunak aditu ditu hasieran. Besterik ez, oihartzunak baino. Oihartzunek lekua egin dute

Onofreren orogailuan. «Karajo, karajo, ze karajo! Juan!», pozarren esan eta besartean hartu du bisitaria. Haizeak beraren erotik atera guran erabili du atea eta, barrura sartzeko eskatu dio aspaldiko lagunari.

-Hiltzat, gerran hiltzat jo izan haugu denok -esan dio piztu eta sofan jesartzeko keinua egin dion era berean.

-Patxarrik? -itaundu dio, botela eskuetan duela ja.

-Hoba ez! -erantzun du Juanek, jesarri orduko soingaineko astuna kendu bitartean. Ikaratu egin da Onofre. Lepoan zintzilik eskupeta itzela du lagunak.

-Ez nok hil, Onofre. Makisan sartuta najagok, horrexegatik etorri nok hire etxera, laguntza behar joat.

Makisa. Berba entzun baino ez eta basamortuko dunak ageri zaizkio larruazalean. Beldurra. Ez da oiloa Onofre, baina lumadunen artean baten antza badu, ez da oilarra hori. Somorros-tron urpekari ingelesak itsasuntzi alemana hondora bota osteko afusilaketa etorri zaio burura. Ez da gomuta atsegina. Juani osterera halako lasai-

tasuna dario, bekainetan hasten zaion zerbait da. Bekainetan, bai, baso sarria du, udazkene-koa. Elurtzan isladaturiko eguzkiak ekarri ohi duen kolorearen eragina da. Hamar urte zahar-rrago, orduan ikusitako inork ere ez luke Juan hau ezagutuko orain, ezta ahotsean ere. Metrai-laren isladak geratu zaizkio eztarrian.

-Zer gura dok nik egitea ba? -pattarrez bero erraiak, berbetan hasi da Onofre.

-Heure etxean egon gura joat, harik eta hemen enbarkazioren bat topatu eta Frantziara alde egin ahal izan arte.

-Eta zelan arraio gura dok hemen geratu, ka-guen zotz, ezagutzen bahaute neu be eroango najuek txapelokerrek.

Isilik eta hankak luzeago, sofaren gorputz be-roan barrurago sartu da makisa.

-Ez diakiat Onofre, hi beti izan haiz buru one-koa eta, asmatuko dok zeozer.

Eta halaxe izan da.

Onofrek lehenago ondo beroturiko oheko ka-biatxo bigunean geratu da Juan, harek kalera urten duen bitartean. Kaguenka eta arnasoska, abiadatxoa ekarri du Erdiko Kalea teilatuperik

teilatupe igarotzean. Hamahirua. Aldabari danbadatxoia eragin dio. Badaki Onofrek treneko Martin makinistek lo arina duena. Mesedea zor dio eta mesedearen truk mesedea eskatzera datorkio. Erraza da betetzen. Halaxe esan dio piztak begietatik kentzen atean ageri denari. «Martin, goizean, Koixuaren errebueltan honantza hatorrenean ipinik palpalean makina; hamar segundu eta ipinik barrero abiada normalean». «Tira, halaxe egingo dot baina, ze kontu da hau halako orduetan». «Egik egin, bai? eta isilik gorde gero!».

«Hau hotza» esaten eta atzamarrak hats-puzkadez berotzen sartu da Onofre etxean. Sofan jesarri eta lagunaren zurrungen altzoan geratu da, inonezean begiak, barruko galdarari eragiten. Halako batean zizpa luzeari erreparatu dio. Eskuetan tentuz hartu eta koltxoipean sartu du, oinen aldean. Juanek zurrunga luzea egin du koltxoia mugitzen nabaritu duenean. Besterik ez. Onofre begira geratu zaio, zutunik. Harik eta egunargiaren etorrera hurren igarri duen arte. Orduan iratzartu du Juan.

-Jantzik traje hau -esan dio. Lagunak mututa-sunez bete du agindua.

-Kanpora goaxak.

-Nora?

-Hi, trenera.

-Trenera?

-Bai. Bestela zelan osti ailegatu haiz ba gure-ra, trenean ez bada?

-Eta fusila?

-Hortxe koltxoiaren azpian gordeta; goazen arin.

Juanek amen egin du. Onofrek bigarrenez egin du Erdiko Kalearen haranzkoa. Juanek lepoan eskupetaren falta nabaritu du, dudaz.

Errepidean gora kilometro erdi egindakoa, ortuetara aldendu dira lagun biak. Han, behe-rantz egin dute.

-Kontuz trajea zikindu barik, ez litzatekek normala izango hi Ingalaterratik etorri eta ipurdian basea ekartea.

-Ingalaterratik?

-Handixek, bai.

Trenbideko tunelean sartu dira laster. Han, horma ezregularrean pikatxoiez zulaturiko sartu-

nean ezkutaturik biak, plana azaldu dio Onofrek makisari.

-Hi Ingalaterratik hator trenean, nire bisitan, ze elkarregaz ibili gintuan han ikasten, aditu dok? Zabal zabal bajatuko haiz geltokian eta ni han egongo nok, begira; mundu guztiaren aurrean egingo deuat berba, ingelesez, eta hik dakian apurra esango deustak, hello, good morning eta halakoak. -Trenaren txistu-adarrak isilarazi du Onofre. Tunelean sartu da laster suge ketsua. Burdinetan hamaika hanka baldarren hotsa errepikatu da, trak, trak, trak.

-Ez diaukat maletarik eta zelan osti sinestuko juek Ingalaterratik natorrena ba?

-Tren honek beronek bueltan etortzean, orduerdi barru edo, palpalean ipiniko jok makina. Orduan, igo hadi azken bagoian. Neuk konpondu joat maletarena be. -Onofrek alde egin du.

Erraz izan du konponketa. Goizeko lehen trenaren ordurako geltokira agertu da, soingainekorik dotoreena jantzita. «Hi, Tomas, nire lagun bat diatorrek trenean, Ingalaterratik; maletak bihar edo helduko dozak eta, adi egon hadi mesedez». «Neure kontura, Onorfe». Euskaldun huts askok

legez ez daki 'eferre' egiten geltokiko fardelari herrenak. Txistu luzea aditu da geltokian. Gero, keezko hage iluna, lurrun puzkadak, frenakadak eragindako kirrinka eta geldi trena. Han atzean agertu du burua, ikaraturik, Juanek. Ordu hone-tan ez dago karabinerorik. Berak ez daki. Eta bel-durra doan banatzen da.

Hello, hello, helloka urtu dira elkarren besoe-tan Onofre eta Juan, geltokian diren goiztiar apu-rren begirada durdituen aurrean. «Badakik, Tomas, honen maletak adi gero! Come on, John». Izen berria jarri dio lagunari.

Izena euskarazkoaren berdina izanik, ez dute oztoporik izan mihiluzeek laster hedarazteko he-rrian bisitariaren etorrera. Areago, Onofrek eguerdiz Kasinora ekarri duenerako herri guztiak jakin du berria.

-Hau da Ameriketako laguna, Onorfe? -zerbi-tzariak sutu egin du Onofre. Eskerrak laster eka-rriko dion bermutak hoztuko diona amorrua.

-Ederra herria -esan dio Juanek kanporantz begira.

-Burutik hago ala? Hi ingelesa haiz, aditu dok? Ingelesa; esaiok kamareroari, karajo!

-I'm not american, english -esan dio Juanek zerbitzariari bermutak mahaira ekarri dituenean. Bekainez galdetu gura izan dio Onofreri, «zer dio honek?». Merkanteko kapitainak ez dio erantzun. Txapeloker pareja agertu behar izan da Kasinora, betiko aperitibora, Onofrek bere azalpena egin dezan. «Hau nirekin ibili zuan nabegatzten gerra aurrean, pratiketan; Liverpoolekoa dok». Txapelokerrek aldibereko itzulpena eskatu dute. «Ingeles es», esan die zerbitzariak. «Que es inglés?».

Ez dela ezergatik, baina badaezpada ere etorri berriaren paperak ikusi gurako lituzketela txapelokerrek, eta Onofrek, modu onean, Ingalaterran inork ez darabilela paperik aldean halako herri txikietan baina, tira, etxean dituela, eta eragozpenik ez badute arratsaldean kartetan egongo direla leku berean eta bertara etortzeko, erakutsiko diela lagunaren pasaportea. Juan txundituta dago. Onofrek, horrek du erraztasuna ba berbatarako. «Ustedes perdonen» eta «gú báí» barregarria esanda joan dira txapelokerrak. Leihoaz harantzago tantai ederrak ikusten dira talaian, haizeak makurrarazi eta gora eta gora

eurak behin eta berriro. Haruntzago, itsaso itzela.

-Ez diakiat ba zelan osti joango haizen, dagoan tenporalagaz -esan dio Onofrek lasai-lasai eta sutu egin da Juan.

-Hireak bai potruak, pasaporteak esan dok? -ahapeka-. Eta nondik atera behar dogu pasaporte ingelesa?

-Egon hadi trankil, txo. -Eta ingelesez barra barra egiten hasi da Onofre. Juanek eutsi, ez du beste erremediorik izan. Noizean behin hitz pare bat lagunak eta gainerakoetan bere bakarreko berbaldian Onofre; Kasinoko parrokianoak zur eta lur denak.

Bazkaria etxean egin dute, Kasinoan bertara ekartzeko aginduta. «Egunero be ez dok etorten norberaren lagunik handiena Ingalaterratik, ze koino, egun batekoagatik be, gabon zaharrea barrero San Silbestre», esan dio zerbitzariari jatekoa agintzean.

-Bibote horrek kalte egiten deua -bekainak gorantz okertuz egin dio galde Juanek, arrain zopazko goilarakadaren bidea airean mozturik.

-Jaik lasai, gauza bat erakutsi behar deuat. -Mahaitik altxatu eta bere logelara ostendu da Onofre. Laster itzuli da, eskuinean goian, besteak ikus dezan, halako liburutxua duelarik-. Heure pasaportea, John Huxley, Liverpooleko Queen Road 15ean bizi haizen gizon ezkontubakoa eta berrogeitabi urteko hori. -Garailearen pozaz utzi du liburutxo berdeska mahai gainean.

Hurrengo egunak bere bizialdiko zorionsuenak izan ditu Onofrek. Nongura azaldu izan da, laguna, John Ingelesa esaten diote ja herrian, beti alboan duela. Txapelokerrei eureei ere agur beroak egiten dizkiete Kasinoan pasaportea ikustera agertu ziren arratsaldetik aurrera. Egia, susmatuz begiratzen zioten Juani, argazkiko bera ote zen baina, tira, hamar urte igaro dira paper madarikatu hori egin zenerik eta, berdin-berdin ere ez dago, eta txapelokerrek, tira, bera Onofre pertsona fidagarria dela eta, baketan utzi zuten. Juanek, hala ere, ez zuen bakea egin bere barruan. Txapelokerretariko batek okerretara begiratu zuen. Eta «gú báí» esaten dioten guztietan halako irribarre kutsua hartzen dio agurrari. Onofrek berriz, zorionari zelan aurre egin ez

dakielarik, hara eta hona beti Juan alboan, sekulako azalpenak egiten ingelesez. Makisak alde egin beharra izan zuen arte. Ingelesez benetan ondo dakien Genaro nabegatzetik etorri da eta trikimailua agerira ekartzeko zorian ibili da.

«Genaro Jauna» esan dio Kasinoko zerbitzariak, «beti kexaz nogaz ingelesez egin ez daukola berorrek eta?; hara han ingelesa, John, Onofregaz dagoana». Genarok zuzen jo du euron mahaira. «Goazen» esan dio ahapeka lagunari eta alde egin dute. Genaro aho bete hortz utzi dute, ingelesezko berba erdiak mamurtzen. Eta hortxe amaitu da Onofreren zorionaldia. Inork ere ez du jakingo bere ingelesezko autuetan, berbaldi luze amaitezin haietan, Kasinoan nahiz kalean, nor euegana etorri edo alboan igaro, horrexen gainean txakurrarenak eta bost esaten izan dituela, ingelesez, Onofrek. Bere bizitzaren aldeko mendekua egin du horretara, astiro, Jon Ingelesak herrian emandako hamabost egunetan inortxori ere barkatu ez diolarik. Eta Juanek bere ingeles apurrean zer dioen galdetu izan dion guztietan, beti behea jota bizi izan den garaile berriaren

ume-zorionaz erantzuten izan dio, «Neure gauzak, John, neure gauzak».

John Ingelesa herrian izan den hamabost egu-
netan zalantzazko izpi mingarri batek itsutu izan
du Onofreren zoriona, erabatekoa izan ledin era-
gotzi duelarik horrek. Ihesa, hori zelan burutu,
portura begiratzeko izan duen bakoitzean zizt
egin dio galderak. Eta ihesaren premia larriago-
tu egin duena Genaro agertzea izan bada, bero-
rrek ekarri dio gorapiloa askatzeko bidea ere.
Genaroren yatcha, herriko untzirik hoberena iza-
teaz gain, aintzinako lagun du Onofrek. Udetan
egiten zituzten, aspaldi egiten zituzten bai txan-
go umoretsuen bidez ondo ezagutu zuen 'Aska-
da' hura; balea sendotasunaren aldetik, marra-
zua arintasunari eta nabigagarritasunari begira-
tuz gero. Bada, «berau untzia» proposatu dio
Juani ihes egiteko.

«Heu be neugaz etorriko haiz, ze, bestela
esango deustak zelan karajo konpondu naizen». Egia.
Baina laguna ez dago prest Donibane edo
Getariraino joateko, ez eta Paradisuaren truke
ere. «Ni begira egongo nok enbarkazioan, behia-

lako tunela pasata gero dagoan atrakalekuan eta hik egizak barrero trenez joatearen plantak; gero, bost minutu egingo joadaz enbarkazioan, hortxe-hortxe hiri makinaren eta lemaren maneia ikasteko haina; hortik aurrera konpondu hadi heu».

Ihesaren aurreko gauabeilan eman dute biek, behinenak diren itsasoko gorabeheren berri ematen Onofrek Juani, eta kaka dariola beste hau. Goizean itzal artegatsu bi izan dira, etxetik irteten. Juanek geltokirantz jo duen bitartean portura zuzendu ditu pausoak Onofrek. Gomazko bota luzeak, jakanarroak, sarabardoa eta otzara, kixkiretan doanaren itxura du eta, halaxe esan die ikusi dituen arrantzale bakanei, «kixkiretan bai». Goiz ederra dakar zorionez. Urrunean gorriz blaitzen hasita dago ortzertza.

Herrian agertu zeneko egunean aldean zekarren soingaineko berbera jantzita, hantura itzela lepoan, behera begira etorri da geltokira Juan. Trenaren lurrunezko txistua urrunean aditu dute geltokiko hirurlau beharginek, gerrako presoak eurok, eta zaintzen dituen txapelokerrak. Honen parejakidea trenbidean harago doala ikusi du

Juanek. Nasan beste dozena erdi bat gizonezko dagoz, denak berari begira. «Ez hadi ikaratu, horreek guztiak erdi lo diagozak eta, konturatu be ez dozak egingo». Trena puzkada keetsuetan geratu eta inork hartu ez duen bagoia hautatu du, aurrekoena, makinaren keek bete-betean hartzen dutena bera. Urrunetik «gú báí» esan diote behargin presoek, barrea ezpainetan behera jausten. Oraingoan makinistak ez dakiela ezer, eta berak esan beharko diola. «Astiroago hor aurreko tunelean eta ez egik atzerantz begiratu, kaguen zotz, bestela frijitu egingo haut», halaxe esan behar izan dio Martin gixajoari.

Onofrek batelean enbarkatu du, arrantzale goiztiarren begiradapean. Beti izan dute zoroztat, hala da ze, beste behin ere euren buruari esango diote, «burutik diagok eta!, urteetan itsaso zantarretan, hondora joanda be diagok hori!». «Betikoa». Batela gertatzeari ekin dio, ernegatzen barrua, zigarroari tenka eta tenka. Portutik urten eta hor kanpoan oraindio ez du lainoa kendu. Eskerrak Genarok bere zorioneko yachta kalan duena, bestela mundu guztiak jakingo luke nork eroan duen. Kalan ez da inor ageri, horretan

behintzat alde izan dute patuaren haizea. Bateletik yachtera igoteko ahaleginetan dagoela aditu du trenaren adar luzea goiza eztenkatzen. «Badiatorrek eta ni oraindiño hemen!». Benetan gorroto hartzen dio bere buruari agureen moduan bere kautarako berba egitearren. Eskerrak 'Askada' ederrak hutsik egin ez diona. Behingon erantzun dio, legun, zaratarik atera barik ia-ia. «Penea dok enbarkaziñoa hau beste alderaino eroan beharra izatea ba, kaguen judas, kaguen judas, bai». Atrakalekurantz bideratu du Askada.

Isabelita izeneko tren-makina tunelean sartu da. Martinek galgatu egin du gero, astiro-astiro. Juanek azken abisua egin dio.

-Ez egik atzerantz begiratu, heure buruari apreziorik egiten badeutsok behintzat.

Behiolako lekuan ia geldi geratu da zomorro luzea. Isabelita haren bekokiko argiak aurreko karrilartea argitu du. Eup! Behera salto egin du Juanek. Isabelitari pozezko aldarria eragin dio Martinek; lurrun-presioa gora, frenoak askatu eta txistu-adarra kanporatu, tunela keez bete da atoan. Horretara nahita ere ez duela eskopeta-

dun madarikatua hori ikusiko, nor ote den susmoa badu ere. Bost berari! «Ederra hi, Martin, heure bizi guztiko handiena, eskupeta eta guzti morroia». Juan geldi geratu da keetzak bere baitan hartuta, harik eta zomorro luzearen buztana urrun izan arte. Gero, isiltasuna etorri da arrapaladan, hormetan laban eta behean narraz, airean hegaz, isiltasuna tunel guztira. Han kanpoan egunargiaren oina pausatu da, belartzako leia desagertarazten hasteko. Ibilten hasi da Juan. Bere pausu-hotsen gainean zapaldu guran legez, beste batzurenak aditu uste izan du. Geldi geratu da eta geldi geratu dira besteak ere. «Ono» egin du dei eta tunelak «no-o-o-o-o!» biderkatu du oihartzunetan deia.

Onofre aldiz atrakalekuan dago, egunargiak urratu gura eta ezin duen behelainoak gordeta. Behin eta berriro aditu du trenaren txistua eta Isabelitaren ibilkera herrenago izaten delako bihurduretan, laguna hortxe dagoela begitandu zaio. Ulergaitz egin zaiona halako danbada itzela izan da. Etorri, tunelaren aldetik etorri da, astun, eta alde egin du, sudurraren aurrean sutautsazko susmoa utziz alde egin du, Isabelita-

ren buztanaren bila legez. Denboratxo bat igaro arte ez du jakingo Onofrek danbada itzelaren nondik norakoa.

Arrapaladan eta izertzan agertu den Juanek arnasoska agindu dio Askadaren makina abantean sartzeko, danbadaz fisik ere esan barik. Sutautsaren usaina darion arren, ez dio ezer galdetu Onofrek. Nahikoa izan du makinaren gorabeherak lehen baino lehen erakutsi eta ospa egiteko bidea zabaltzea.

Uste baino luzeago jo dio Onofreri Askadaren maneia erakustea. Yachetik txalupara, zagan ekarri duen Maskoltxu horretara igaro denerako mendien lepoa utzita egon da eguzkia. Elkar besarkatu dutenean soingainekoari azken begirada luzatu dio Onofrek. Bakea bailetarren egin dio barruak, tak! Arrenguren tanbutxoari giltza eman dio.

-Ez hadi ahaztu, ezkribidu... Ingelesez, kaguen zotz.

-Neure konture -erantzun dio. Gero, zoro ahotsaz azken agurra luzatu dio Askadatik txalupatxoan dagoen lagunari.

-Guuu bai, guu.

Onofrek bere burua kixkiretan dabilenaren itxurak egin beharrean ikusi duelarik, trenbideko zati berria egiten diharduteneko aldera jo du, koartada bila. Kixkirak erruz etorri zaizkio sarabardora, hemengoaz beste alderen bateko izpirituren baten eskuak hara bideratuta legez izakitxoak. Lehorretik agurtu egin dute. «Ta ingelesa?». Jaramon egitearen zerga-ordaina informazioa izaten bait da beti herrian. «Goizeon alde Bilbora eta eguerdian Ingalaterrara barriro». «Tira, heuk hartu dok bakea». Baietz erantzun du txilina baino pozago. «Bai!».

«Hamaiketakorako sasoian hator etxera, Onofre», esan dio bere buruari txalupa lotu artean han goian begira dituen mozoloei ezikusia eginez. Kanean gora inoiz baino alaiago, otzara bete kixkira besoan zintzilik ekarteak agur eta agur egiteko kemena ekarri dio, aspaldiko partez. «Hamaiketakoa? Honexee kixkiratxoak egosita, eta ardaotxo zuriagaz, dantza!». Ardoa ozpin bihurtu zaio, ostera, berak uste baino lehen. Etxean sartu eta Anita bertan, Bilbotik etorri berri.

Emaztea besarkatzeko keinua egin du gizonak, ikusi eta behingoan, azken egunetako jazo-erek inoren besarteko epeltasunaren egarria eragin diotelako, goiz lainoak hezurmuinak eurak ere busti eta norbaiten hatsak lehor die-zaizkion behar duelako, haragiak min ematen diolako eskuturretan. Eta Anitaren begiradan izarren pareko ilentiak dabiltzalako, ñir-ñir, eta Bilbotik erosi berri eta aldean dakarren arropak Grezia klasikoko zizelkaririk trebeenaren eskuak baino antzetsuago borobiltzen diolako soina.

-Zer da hau desastrea?

Begietan behera etorri zaio mundua Onofreri. Haserrearen sutan erretzen, ederragoak Anita-
ren begiak. «Trankil egon, kontako deusut dena». Hamaiketako etxean egiteko gogorik ere ez zaio geratu gizonari. Anitak etxea atondu eta ttukuntzeari ekin dio, ia arropa berria kendu barik ere. Halako batean lepoan pausatu dizkio eskuak, atzetik etorrira, gizonak. Zirgit elektri-
koa nabaritu du odol-jarioaren zolan emazteak. Onofreren ezpaineak Anitaren samako larruazal perfektua busti dute.

-Ala, tentel hori, zoaz kalera nik guzti hau atondu arte.

Gerorako promesatzat edo, areago, Jainkosaren zintzat hartu ditu berbok gizonak. Aspaldiko usadio ahaztua berriztuz, eskuak poltsikoetan eta artatxorien txinten oihartzuna izan gura dutenak ezpainetan, Ikaztegieta tabernara jo du. «Bertan egingo joagu hamaiketakoa, ze karojo!».

Oilalokak baino lokatuago aurkitu du parrokia guztia Ikaztegietan. «Baietz ba» entzun du esaten, «txapelokerra, bigotedun hori, otso itxurakoa, hilda, seko». Jesarri eta aspaldiko partez pitxarkadatxoa zerbitzatu dio Luziak. Beroni galde-tu dio, ahots gakotuz. «Noiz?» «Goizeon». Azalpen zehatzagoaren bila geldi geratu zaizkio begiak Luziaren begi berdeetan. «Trenbidean topa dabe». Behingoan etorri zaio danbadaren oihartzuna burura Onofreri. Sudurtzuloetan sartu zaio berriro ere hots harek ekarri duen usaina, sutautsarena, eta argia egin zaio barru-barruan. Juanek hil behar izan du txapelokerra, ez dago dudarik. Izerdi hotzak goitik behera busti du Onofre. Pitxarrekoa hustu barik egin du alde, etxera.

«Kabroi hori, Juan ama putearena, zer egin eta karabineroa hil, beti begikuna zantarra egiten izan deuskuna bera gainera; eta eskerrak, ze besteek ez juek inongo susmorik hartuko; hildakoa izan dok peligrosoa, egon hadi trankil. Eta Anitari ezebez».

Anitari ezer esateko erarik ere ez du izan, berri, etxean sartu denerako bisitekin egon baita, berbetan. Txapeloker pareja.

-Buenos dias, señor Onofre... -halako begiruneaz egiten diote beti, gerran parte hartu izan ez zuela eta euren aldekotzako hartuz, ze beste guztiak, herri haretan, edo presoak, edo nazionalistak, beti ere hirurlau 'zintzo' kenduta. Eta Señor Onofrek halaxe jakin du jazotakoa eta gainera ez direla bera susmagarritzat dutelako etorri, zeragatik baino, bestea, ingelesa, ea ba non dagoen. Eta Onofrek lasai erantzun die, goizean joan dela, elkarrekin altxatuta gero, hortxe ibili dela Anita dena atontzen, ze armozua egin dio, ingelesaren erakoa, arrautzak, urdaia, kafe beltzagoa eta indaba gorriak ere. «Judías de mañana», errepikatu dute txapelokerrek, eta Anitak ere baiezkoa egin du okotzaz, artean amaitu barik

egon delako harrikoa testigu, eta behin altxatu-ta, ba, lagunari geltokira lagundu beharrean, ze despedidak beti izaten dira gogorrek, gurago izan duela kixkiretan. «Todavía no han aprendido a comerlas?», ez ote duten jaten ikasi eta nahi izanez gero apurren batzu eroateko.

-Tiene ustedé testigos? -Lekukoak nahi beste dituela. Portuan eta trenbidean ere. Txapelokerak artez-arte egon dira denbora guztian, zizpa-ipurdiak joz eskegitu dituzten alde bereko eskuaz. Hala ikusten dituelarik Onofrek, berriro etorri zaio danbada-hotsa. Gixajook ez dakite egiaren berri. «Caído a la vía», esan diote, eta ea baten batek sakatuta izan ote den. «John Huxley fue al tren; un vinito?». Ezetz, eurek ez dutela edaten, eta alde egin dute, zizpak tente lepoan eta alde bereko besoa kulata bezain luze, eskuaz laguntzarren pisua arinago egiten. Onofreren buruan ume gaizto-zirinaren bihurrikeriak egin du leku halako batean. Arrapaladan urten du eskileretara. Hantxe ikusi du pareja kalerako ja.

-A, gizonok -erdaraz esan die eta lepoa bihurtu eta gorantz begira ipini dituzte begiak, zuri kasik-. El que sí bebía era el muerto, no?

Ziur daki tiroak zurian jo duena hildakoa edatuna zela esatean.

-Oiga! -protestak ez du indarrik izan. Onofrek eskerrak eman dizkie bere errubakotasuna hain erraz ulertzeagatik. «Orain kixkirak eta gero..». pentsatzen amaitu orduko Anitaren begiak ikusi ditu. «Kakazaharra, gero ezebez». Etxeko atea itxi eta erriertarakoa zabaldu dela jakin du Onofrek. Kixkirak uretan egosten ipini ditu. «Hamai-ketakoa hamabietako baina, kixkirok ez dozak alferrik galduko». Egun txarragorik ere ezagutu izan du.

‘John Huxley’ sinaturiko gutuna esku batean, chester zigarrokina bestean, gogora ekarri ditu Onofrek duela sei hilabetekoak. Ez du zigarrokina ezpainenatik kendu gura eta horrek ezkerreko begia erditxita irakurtzera behartzen du. Eztuletan hasi eta Anitak behingoan jaurti dio, «Ittoko zara zure zigarro zantarrok beti ahoan». Bakea ekarri dio gutunak, zeren, duela sei hilabete, Juanek ihes egin zuen goiz berean karabinero hura hilik agertu zela eta, susmo guztiak lagunaren gainera etorririk bera erabili bait zuten denen ahoetan. Txapelokerren begirada okerre, berak bere buruarekikoan zuen atsedeen ezak, Anitari eman behar izan zizkion azalpenek, berriro ere enbarkea eskatzera behartu zuten. Amets egiten zuen, etxean zegoela, goizalde atean jo eta guardizibilak zirela, bere bila.

-Es acusado usted de asesinato.

Hiltzailea ez zen bera, ostera. Orain, herrira etorri berri, gutuna izan du etxean itxaroten. Oraintxe ari da irakurtzen, itsasoan zebilelarik

ailegaturikoa. Hark eman ziokeen ba, bakea, emazteak igorri izan balio. Argazkia dakar gutunazalak eta Jonek dioena da berriro dagoela bere lanean, eskolan maisu eta hortxe ikusten dela bere ikasle guztiekin. Eskutitzean eskerrak ematen dizkie, ingelesez, alkateari, Falangeko buruari eta txapelokerren kaboari. Azken aipamen honetan gutunaren gakoa antzeman uste izan du Onofrek. Anitari agur esan, zigarrokina ezpainetatik kendu barik, eta honek «Alkondara hutsean urtengo dozu ba?» esan dio. Jaka jantzirik koartelilora jo du zuzen, eskutitzean Juanek hitzez esan barik iragarri gura izan diona ulertu duela koan. Gutuna eta argazkia txapelokerrei ukendu miragarri egingo zaizkielako pozik doalarik, Kale Nagusian beste alderantz egitean klaxona jo dio halako auto batek. «Modernotuta gagozak aspaldion» otu zaio barruan doana nor den ohartzean. Luis, Haiga berriarekin.

Egia ofiziala alde batera utzita, bere buruari argitu beharra datorkio ustebakoan. Ikaztegietan sartu da. Orduko goiz haretan Anitarekin erriertan egin eta gero legez. «Pitxarkadatxoa» eskatu du. Juanek oina tuneleko behearen gai-

nean ipini eta trena joaten utzi zuen. Isiltasuna, ibilten hasi eta pausu-hotsen ganean pausu hotsak berriro. Bazekien nor zetorkion han atzean segika. Bibotedun madarikatua. Soingainekotik eskuineko besoa atera, zizpa luzea lepotik kendu eta berriro sartu zuen besoa bere aterpe epelean. Metro bat harago, tuneleko sabaian argizulo karratua dago eta, arrapaladan egin du tarte hori. Lipar batez ikusi zuen Juan beroni atzean segika zetorkionak. Gero, geldi geratu zen, persekutatzailea argizuloaren azpian noiz igaroko zain.

Beste pitxarkadatxo bat ardo zuri eskatu du Onofrek, beste chester bat iziotu ostean. Burura ekarri gura du eskena. Juan han, tunel barruan, itzalek ondo gordeta, eskupeta aztertu eta bihoztaren parean apur bat ezkerretarago ipintzen. Han, harago, arnasestuak eta pausu-hotsak harri eta burdinetan baldar eta astun. Botak, oinetako astunak, bai, eta zama pisutsuren bat dakar korrikariak. Argizuloan behera iragazten zen argiak zidar itxurak egiten zituen karriletako alde marraskatuenetan. Goroldioak hazten dira ertzetan, argi apurra iruntsiz eta itoginetako tantada dar-

daratiak edanez. Juanen besoa berriz, dardara barik zegoen burdinari eusten. Argizuloaren azpian ageri zen segilaria. Txapeloker biboteduna, bera.

Tiro egin zuen Juanek, danba. Seko hilda jausi zen biboteduna, han, argizuloan beheara zetorkion eguzki-enbor karratuaren erdian. Onofrek trikornioa ikusi uste du. Dirdir txarola. «Zenbat da Luzia?», altxatu bitartean galdetu du, kanpoman izan den denboralditxoan prezioak gora egin ote duen ez dakielako betiko parrokianoa ere ez den Onofrek. «Bost errial». Mahai gainean utzi du txanpona. Arrapaladan, gorpua hartu eta burdinetan ipini bide zuen. Kontuz ibiliko zen, bularraldea zapal ziezaion trenak, zeren bertan bait zuen tiro-zuloa, soinganekoko erreturak erakusten zuenez. Eta ospa egin zuen alde, atrakalekurantz. Eta bera ez zen konturatu ere egin, tentel halakoa.

Gainerako inor ere ez zen ohartu, itxuraz. Koartelean sartu eta eskutitza erakutsi du Onofrek, ingelesez idatzita. «Yo venía..»., artega. «Pase!». Mahai morko baten atzean kaboa, handiguratsu. Eskutitzaren berri emateari ekin dio.

Ingelesetik zuzenean kasteilanora egin du eta «Herrian izandako tratuagatik eskerrak ematea» dioenean indartu egin ditu hitzak, «Gracias por el trato recibido», gero Onofrek John hura ingeles maisua zela argi zegoela eta horrek errugabetasuna frogatzen duela, erabakitsu esan du.

Karkara itzelean jarri da kaboak. «Qué cosas tienen», halakorik, bibotedun hura, Epifanio Gómez, hain zuzen, merituak egitearren kontrabandoa jagoten bere kabuz ibiltzen zela, trenbidetik kirikatzen eta hala, eta zoritxarreko egun haretan trenbidera jausi eta bertan geratu zela konortea galdua, eta makinistak Epifanio han ikusi bai baina frenoak sartzeko astirik gabe. Zati bi, en dos, non eta bihotzaren parean. Aperitiboa eskaini dio kaboak. «Y dígame» ekin dio, horko itsasoetan ze berri, etorri baino ez eta lehen egunean koartelera agertu beharra be handia dela, Ingalaterra beti izan dela Espainiaren etsai amorratua baina, tira, batek edo bestek, ingelesek ere euren bihoztzoa.

-O sea que, maestro el tal Jon... cómo?

-Huxley, Huxley.

Azken susmoak ere uxatzearren onartu egin dio aperitiboa. Hala da ezen, koartelilotik alde egin duenerako apur bat txolinduta egon da Onofre. Ikaztegieta beste geraldari bat egin du etxera orduko. «Azken baten haserre topako dok Anita eta honek beste poztasun bat ematen diatik». Epifanio Gomez harek tunelean zer egiten ote zuen argitu gabe du Onofrek eta, bera ere nolabaiteko konplizetza har zezakeen edozein epailek. Artega egin du etxerantz.

Etxeko atepostan ikusi du postaria, Heraklio. Barkamen eske hurreratu zaio, duela zenbait egun fardeltxo bat ailegatu zaiola eta pisuagatik etxera eroan barik izan duela. Ingalaterratik ei dator berau ere. Pisuarena ez dio sinestu, ezta inondik ere. «Falangista halakoa!», pentsatu du bere artean, eta chester bat eskaini dio, berarentzat ere atera behar izan duela eta.

Txiskeroaren sua baliatu du fardeltxoaren inguruan lakrez lotuta dagoen soka-gorapiloa ebaigitzeko. «Ene bada gizona, ezin itxaron ganoraz irigitzeko paketea?». Anitak edozergatik ekiten diola, barruan dagoenaz duen jakingurak erantzuteko gogotik libratu du gizona. Chesterraren

keak begiak itsuturik kendu ditu paperak, kipu-
lak azalak baino ugariagoak eurak. Heraklio,
ezer ez delakoan, hantxe dago kuzkuzean. Ondo
bilduta dago fardela. Barrukoa ezin begiratu izan
du ez Herakliok ez beste inork. «Kabroi falangis-
ta halakoa!», pentsatu du berriro ere Onofrek.
Zelan esan, baina, handik ospa joateko? Para-
noia itzela du Onofrek txapelokerraren heriotza-
tik hona. Medikuetan hasteko da eta, orain arte
egin ez badu, egia kondatu beharrak eragiten
dion izuagatik izan da.

-Tira -urten egin dio barrukoa ikustean-. Li-
burua.

Izena ingelesez dakar, 'Point counter point'.
Egilearen izena ere hortxe dago, Aldous Huxley.

-Hori John ingelesa bera be Huxley zuan, ezta
Onofre?

Baietz esan eta zelan jakin duen galdetzeko
gogoan barruan isilarazi behar izan du. Badaki
zelan egoten diren txapelokerrak beti posta-bu-
legoan bertatik urten ezinik. Chesterrari azken ti-
rakadak jotzen aldendu da postaria. Zorioneko
momentuan. Anitak beste orritxo bat ekarri dio.

-Huxley? Ahaztuta euki dot esatea. Zu joan eta koltxoiaren azpian paper hau agertu zen.

Liburua alde batera utzi eta Anitak aurkitu duen orritxoak irakurtzen hasi da. Ez du sinadura ikusteko beste ezertarako astirik izan. Juan, halaxe dio. Bazkaria prest du Anitak eta gainera hor hasi zaio, ez erretzeko eta hurrengo batean hobeto berba egiteko Herakliori eta betiko erretolika. Lehorrean egiten duen lehen eguna dela jakinik ere barkatzen ez diona, erretoliken azpian beti egon dena, Juan bezalako lagunak izatea da. Haren akordu hutsak azogea eukita baino artegatsuago ipinten du emaztea. Bazkalosterarte utzi behar izan du lau letra haiek, laburra bait da papera, irakurtzea.

Kanpoko sargoria gortinetan zulo egin eta egongelaraino sartu guran dagoelarik hasi da irakurtzen, azkenean ere, chesterra ahoan, koñaka ezkerreko eskuan eta papera bestean. Ea Pedro Korto akorduan duenentz galdetuz hasten da idatzia. Ez da akordatuko ba! Gerran desager-tu zena, beste asko legez, inork haren berririk jakin barik. Ez ziren hirurak ba barku berean ibili tiro-hotso kasik penintsula guztira hedatu ordu-

ko? Gudatea hasi zeneko gorabehera itzelak izan zituzten. Pedrok parte hartu behar zela, Onofrek ezetz, norberaren bizia beste edozeren gainetik dagoela, bera nahiz espainola, nahiz euskalduna, nahiz ingelesa izan, berdin. Sutu egiten zen Korto. Juanek beti izaten zuen jarrera erdikoago bat, lagunekin ez haserretzearen edo. Denbora igaro ahala Onofrek Kortoren jarrera ulertu du, berea baino zuzenagoa eta, azken batean, asgarriagoa izan zela erizten diolarik. Ze, ezkontzako kateek sendo lotuta orain, seme-alaba barik, nora joan ez eta gogorik ezta, herritik kanpo moduan bizi da, herriko guztiek, berak ezik, zerbait utzi zutelako gudu madarikatu eta aldi berean zorioneko haretan. «Kakazaharra».

Hurrengo lerroetan dioena buruz daki Onofrek. Gerran sartu zela Korto, eurak Valentzian utzirik. «Ni banoiak faxistak akatzera». Pedro Kortoren gorputz enbor txikerrak, hanka laburrek, beso potoloek, zenbat faxista hilko zuten lurak berdindu aurretik, Onofrek ez zion ordukoan luzerako esperantzarik eman lagunari. Beronen azken hitzak ditu gogoan orain. «Okerrekoak barkatu eta akorda zaitetze nigaraz frentean

nagoanean». Astebete ez zen Joan Juanek bide beretik jotzea erabaki eta alde egin zuenerako, praktikak amaitu gabe. Bera Ingalaterrara itzuli zen. Eta duela sei hilabete herrian egin zuen hamabost egunean behin ere ez bazion Pedro Kortorena aipatu, zergatik izan ote zen hala, «Hire beldur zelako Onofre», esan dio bere buruari, irakurtzen aurrera egin ezinik, geroago datorrena igarrita moduan.

Egin egin du, aurrera irakurtzen. Pedro Korto Ocañako presondegian hil zela, han, afontuan. Lanean eta gosez, medikurik gabe, birikiak hauts eginda Joan zen laguna beste mundura. Koñak kopakadatxo berri bat hustu du boteilatik godeletera Onofrek. «Argazki bat lortu nizan Ocañako gartzelakoa, zelan izan zan, modua sinestuko ez badok be». Juanen aldetik edozer sinestuko luke Onofrek. Gerratea amaitutakoan Asturias aldeko basamendietara ezkutatu zela laguna, makisean eusteko armei eta hara non Onofrek asmameneko irudietan ikusten duen Asturiaseko baso sarria, orain alkoholak ezarri dionaren antzeko lainoaz, leun eta ferde, eta Juan bera makisean, beterrietara bajatzen, jateko bila, eta

goierrietan eta artzainen bordetan edo kobazu-
loetan bizi izaten, seguru elurtzaren erdian
neguz, ihesian beti udaldietan, lantzean patruila-
ren batekin eztopozo egin eta tiroak, hilak edo
zaurituak, edo atxilotuak, Ley de Bandidaje y Te-
rrorismo eta afusilaketak. Borreroen lanak gogo-
rrak izan dira azken hamabost urte honetan. Eta
egunen batean, hara non, «Alto!», eta aginduari
tiroka erantzunda, txapeloker bat gorpu eta bes-
teak ihesian, ipurdia galtzen. Hildako sasikumea-
ren jaka-barruko poltsikoan dokumentazioa, diru
apurrak, tabakoa eta argazkiak. Batean, Ocaña-
ko gartzelan bera eta beste bost txapeloker,
harro, erdian preso aldra bat dutela. Ehiztari mo-
duan, euren harrapakinarekin hantxe madarika-
tuak. Eta Korto presoen artean! Gorde egin ei-
zuen argazkia Juanek, beti berarekin bihotz on-
doan, zeozerk esaten bait zion bere mendeku
egarria asetzeko ordua etorriko zitzaiola, etorri
ere.

«Fotografiako txapelokerretariko bat herrian
ikusitako genduan bibotedun haxe zuan», diotso.
Hala bada, azken xehetasun bat falta du Ono-
freak. Hurrengo lerroetan datorkio. Zitatu egin

zuen, zezena toreoan legez. Bada, arriskuan ipini zuen dena etxean izan zen azken goizaldean, Onofrek nola izan zen ez dakielarik. Ez dio argitu Juanen eskutitzak. Dioen azkena da bere bizi guztiko momenturik zoriontsuena izango dela laster, oharra idatzi eta minutu batzuk barru, madarikatu hari bihotzaren erdian tiro egitea, eta ez kezkatzeko, istripua emango duela, eza-gunak bait ditu Gómez haren usadio guztiak, goitik behera, eta ziur dakiena oharra irakurtzean dena barkatuko diona.

Sargoria apur bat kenduta dago. Gortinetara iluntzeko itzalak batu dira. Botilan, urrun dago edariaren gainazala, ipurdiarekin berdinduta ia. «Juan, Juan, hik daukazak potruak!». Miresmena eta amorrua ore bakarrean nahasten zaizkio. Begiak hortxe alboan duen liburura joan zaizkio Onofreri. Argia piztu du, tak!, 'Point counter point'. Kontrapuntoa. «Ze karajo, Juan». Irakurtzeari ekin dio. Anitak afaria prestatzeko behar izaten dituen zaratotsak darabiltza eskaratzean. «Ez egik afaldu», esan dio bere buruari gizonak. Eta ez du afaldu.

Lokomotorak lurruna askatu du, makinari indarra kentzearen, eta geltokia trenaren hotsadarrek eragindako dardakadaren pean geratu da. Txinpartak sortarariz labandu dira gurpilak errailetan. Onofrek, aurrean duen bagoiko plataforma-atea behetik zabaldurik, eskua luzatu dio Anitari, errezago igon dadin ezeze berriro ere beronen larruazala erpuuetan izatearren. Goitik behera emakumeak gizonari, honek behetik gora eta aldi berean, elkarri begiratu diote senar-emazteek. Anitaren begietan ilentziak, sua dariela, Onofreren ninietan pantera gosetiak, begiradak iraun duen liparraz lurralde ezezagunen bateko amilburuan ikusi du bere burua gizonak, durduzurrez.

-Ciclon! -aldarri egin du bapatean ahotsen batek geltokian eta Onofreren aditasuna oihartzunaren aurkako bidean joan da, hitz egin duenaren bila. Txapelokerrak han ere.

Beti hor egon diren goardizibilak tupustean agertu balira legez izan da Onofreren zat John

Ingelesaren gorabehera guztia. Hain zuzen ere, txapeloker hori berori, «Ciclon» haserre aldarri egin duena ezaguna du. Ez ordea Ciclon deritzan presoak. Geltokiko etxe amaitu berriaren alboan gordetegia eraikitzen diharduten presoak jago ten dagoz txapelokerrak. Haietariko bat geldi dago trenari begira, gerritik gora biluzirik, bularralde indartsua zeruari erakusten. Agindua eman dion txapelokerra ikatza baino beltzagoa da larruz eta besteek egiten duten lanaren izerdiak bera nekarazten duela begitandu zaio Onofreri. Trikornioaren pisuari eutsi ezinik makurtuta burua, zigarroa eskegita ezpainetan, umore zantarrez dagoela eta Ciclon deritzanaren aldera kendu ditu begiak. Presoarenak aurkitu ditu, barre egiten diotelako edo, dirdirean. Bagoi barruan sartu da Onofre Anitaren atzetik.

Aurrez aurre jesarri dira, leihatilaren aldean. Trenaren ke eta hots-adarrek gurpilen higikera nagia iragarri dute eta Anitak leiharraz bestealdean atzerantz joaten hasi den paisaiari begira dagoelako itxurak egiten ditu. Onofrek ezin izan du eragotzi. Trenean edo beste edozein ibilgailutan igotzen deneko erregurak odola mintzen dio.

Berak ere leihoz kanpora begiratu du, ezer ez delakoan chester paketea atera artean. Ciclon hark harri-zati itzela du zilborraren parera altxaturik eta trenari begira geldi dago, lehenago nabaritu ez dion lausodura igarri diolarik Onofrek begietan. Artega erretzen hasi da. Begiak kiskaltzen dizkion gizon hura eta bere buruaren artean lainoa ipini guraz ahokada luzea jo dio zigarroari. Artega erre du.

Bigarren tunelean John Huxleyren akordua etorri zaio. Benetako John Huxleyrena, nor izan zen ez dakien pasaporte haren jabearen aurpegia, irudikatu nahi du. Hirugarren tunelean lipar batez argizuloaren azpian igaro da trena. Anitaren begiak ikusi ditu, berari begira, Onofrek. Bart gauekoaren gomutak birrindu egin du John Huxleygaz izan duen akordua. Anitaren larruazala bart gauean, aspaldiko partez, pentsatu du Onofrek. «Billetes por favor» esan dute eta Anitak erakutsi ditu bienak.

«Denok diaukagu pizti bana gure barruan» otu zaio gizonari, han aurrean leihatilaz kanpoak ardura diola nekez isladatzen duen emea zein modutan esnatu eta bizkortu zen, horren

gogoratze hutsak, kalanbrazoak eragiten dizkiolarik. Gerrialdean esku bat automatismoz ezarri eta ohekidearen eme-mamiak ipurdian puzten nabaritzeak laztan herabeak entsaiatzera eroan zizkion atzamarrak. Tigremea izan zuen Anita, sabanaren erdian. Sudurtzuloak arnasketa gero eta bortitzagoaz zabalagotzen aditu zituen eta eskua ausardia handiagoz menturatu zen aurrera. Muino perfektu bi aurkitu zuten, biribil eta elkarren ispilu. Ohe-erropa erantzten hasi zitzaion, astiro, ikaraz. Emakumearen garondoan musua ezartzera ausartu zenean laster aurkitu zituen ezpainak ere. Anitak berak erantzi zuen arropa luzea azkenean. Onofreren begiek emea ikusi zuten haren begietan. Senak aginduta ihardun zuen.

«Sena» irten dio gurabakoan, ozen. Anitak begiak leiharretik kendu eta begira geratu zaio. «Ezebez, neure gauzak» erantzun dio emaztearen begirada mutuan eskegita geratu den itaunari. Berriro ere hoztearen helera igarri du instant horretako atezuan. Kanpoan erreka mehe eta padurak zabal, haizeak mizkeriaz laztantzen duen adats senglea dira ihien gandorrak. Anita-

ren adats luzea, lepo gainerantz jausten, ditiburuetara etorten, Onofreren hankek arkulua erazten duten gunean hankazabalik, bateginda, eta Anitaren keinua adatsa garondora biltzeko, eta ditiak orduan ageriago, Onofreren ahoa gosetia-go, zorrotzago haginak biek. Oraindio ere Anitaren haginkadatxoan min gozoa bizirik du bularraldean. Sabana erdian tigremea zuzpurturik, eskuak biktimaren saman eta hortzaginak harathonat min ematen, plazerezko oturantza luzean.

Chester lar errea kanpora jaurtitzeko leihatila beherantz egin duenean goizeko haize kresaltsua birikietako sotoetaraino sartu zaio Onofreri. Ekainak bere erdia jan duela nabaritu du. Kontrapikatuan harrapatu du Anitaren begirada. Zer diotso? Ezin ulertu du euren artean behin eta berriro hedatzen den izotz-mortua, non eta lehena-go sabana kiskalgarria izandako alde berberean, hots, begiradetan, larruazalaren arteko magnetismo-eremuetan, grinaren gudalekuan.

Berak gogoan duelarik, Anitarekin izandako plazereginarik ederrena, bakarra beharbada. Zalantzan egon da, harik eta beste emakume batekin akordatu beharra izan duen arte. Beha-

rra, zeren burua berez hasi bait zaio bere bizialdiko porroten kontuak eskatzen eta ezinbestez ipini behar izan du beste bat ere zerrendan. Hiru urte joan dira Buenos Airesen egin zuen egonaldian Marina, Malintxe esaten zioten hura, ezagutu zuenetik hona. Zertan ez zen orduan hemen goaz ahaztu eta harexekin geratu Argentinan, beharbada inertzia hutsagatik izan zen. Barkuan zuen matxurak behartu zuen han egotera eta matxura konpontzeak berez ekarri zuen alde egi-tea, bitartekoak bitarteko.

Ez du akordu mingarririk gura Onofrek. Anitak, leihatilaz beste aldeko paisaiatz aspertuta, Siete Fechas hori atera du. Berak ere goizeon liburua gorde duela haren zorroan eta eskatu egin dio. 'Point counter point', Jonen azken txantxa. Irakurtzeari ekin dio, han barruan lotan duen ingeles-hiztunaren nagikeriak lerroarteko zuridurretan galarazten diolarik adimendua. «Hemen be dana dok kakanahastea andra-gizonen artean», berau da liburuko lehen orrialdeetakoek gogora ekarri dioten bakarra. Akordura etorri zaio goizeko berbaldia.

«Tiaren bisitan joan beharko geunke» esan dio Anitak goizeon, itzartu berri biak, armozua hartzen egon diren bitartean. «Tira, atso hori» erantzun Onofrek eta behingoan konturatu da hankasartzeaz. Sabanan bart iratzartu zen tigremearen atzaparrak samara zetozkion. «Noiz joateko asmoa dozu ba?». «Goizeon». «Goazen ba biok». Kafesneak beroturiko katilutik Anitaren eskura eroan gura izan du eskua Onofrek, emandako hitzaren zinaren bila. Atzez egin dio emazteak, «Berandu gabiltz» esan duen era berean. Hala eta guztiz ere gauerako berriro itzartuko dela tigremea, itxaropenak ez diola huts egingo eta dena geratzen dela gero Tiaren etxean bera zelan portatzen den, horrexen menpean. «Trenean leiduntako zeozer hartuko dot». «Eta ez erre, mesedez». Hor ere okerretara jokatu du. Zelan ez ote da konturatu ez erretzeko erreguaz. «Kakazaharra, sena eta ostiya, hara zergatik izoztu jakozan begiak horreri!». Inpertsonalizatu egin du oharbakoan emaztea. Konturatzeak ikaratu egin du, bere baitan ere suren bat, hasezko berau, iziotzen dela igarri bait du. «Ez naiz konturatu zigarroaren asuntoagaz baina ba-

dakizu trenek artegatu egiten nabena». «Ez dau ardura». «Ardura deutsu, bai!». «Ezetz ba!».

Basartean gora erreka estutu egiten da, sugetu, eta trenbidea bera ere herensuge ketsua da gorago igarten den argiaroaren bila legez. Trenbide alboko elektrikarietan harro pausatutik ikusi du mirotza Onofrek. «Heu» otu zaio.

-Hurrengoa gurea -esan du Anitaren ahotsak umetzaroko zorion-oihartzunetatik itzuliaz, zeren ubidertzeko altz-ilareei begira aspaldiko udaldi bat eguzkitu bait zaio berriro oroimenean.

Mirotza han urrunean geratu da mokoze behe-
ra, autista bailitzan. «Eta berak diakik edertoen kasan egiten», Onofrek aldi bereko buru bi ditu; bata Anitaren ahotsa aditzen duena, itzartua, eta bestea emaztearen ahotsaz haruntzago doakiona, belarri eta begietan zehar datozkion sensazioen bidez pilotu automatikoa martxan sartzen diona berau. Itsasaldietan zenbatetan ez ote den geratu zubian itzarturik eta automatikoa han, bere zereginaren ordeko egiten duela. Herminenez erraiak, itsasoko brisarak malkoak bertzetara ekarrita, ezagunen soslaiak edozein akatsetik garbi gogoratzen zitzaizkion halakoe-

tan. «Ilusiño hutsak». Anita bera ere, goitik behera biluzik bere aurrean, pilotu automatikoa sartzearen erruduna, ilusio hutsa, Tropiko aldeetako gaubeiletan ageri izaten diren mamuetariko beste bat baino ez. «Berton da».

Bagoitik kanpora urten eta nasan hantxe geratu dira biak, herensugearen higikeran soraio begiak. Azken bihurduan ezkutatzekotan izan delarik askatu duen lurrun-deiadarrek kendu ditu euren egonarritik biak. «Goazen», hitzokin batera gerrialdera luzatu dio besoa Onofrek. Hartu duten bidea, aldatzatxoa, bigun egin zaio. Miro-tza gertu zaie han goian, hegal bat gorantz eta bestea alborantz, airezko malda ikustezinen batean behera ez-titasunez labantzen moduan.

Anita, Onofreren besoa gerrialdetik kendurik, arrapaladan joan da maldan gora aldarrika, zoro aldarrietan. Beste chester bat piztu du gizonak eta sua ematean gorantz begiratu duelarik ez du mirotza ikusi.

-Tira gizona, erdu hona, hara zer dagoan hemen.

«Umetuta diagok», behe-ezpaineko kanpoaldean geratu zaion tabako apurra ttu eginaz esan du bere artean.

Han haritz-kimu eta otabar artean hasten den gurpidean geldi dago Anita. «Eta?», galdera modua egin dio, bekaina gora eta kea begietara datorkiolarik.

-Hara!, bandiduaren zaldiaren apatxak dira horreek.

Ferra-atzen taiukerako gunepak dagoz, hirurlau, karearriaren gainazalean. Eskuaz eginak barik zaldiren batek benetan zapalduz eginak dirrela zin egiteko modukoak dira. «Apatxetan sua eroan bandidoaren zaldiak ala?».

-Nire biziko egunik zerenak -amaitu barik utzi du esatekoa Anitak, bere biziko egunik zoriontsuena alboan duen gizona senartzat hartu zuenekoia izan behar duela eta, hanka sartzekotan izan denaren gorridura sutu zaio aurpegian.

Onofrek ez daki bandidoen istoriorik. «Tiak esango deutsu». Anitaren ume-zorionetik urrun, geldi geratu da, han behean utzi duten trenbidera begira. «Bakarrik hago betirako», buru batek besteari esan dio. «Bandidoak!». Ingalaterrako

basoak, Bristol, itsasaldera arin doazen bideak, denborak bere pikatxoi itzelaz landu dituen lakarrak eta ura gero, ore artegatsua, luzea, haraindirainokoa.

-Bertorainokoa -esan du ozen.

Anita begira geratu zaio:

-Zer diozu?

Ez dio zuzen erantzun, zeharkako beste galdera batez baino.

-Nor da edo nor izan zen bandidu hori ba? -galderak esan gura duena besterik da. «Ez pentsa nire barruan galtzen banaiz be zuri jaramonik ez egitearren denik, ez». Pilotu automatikoa da.

-Tiak argituko deutsu laster; haxe da etxea.

Mendiganan baserrietxe itzela dago, aspaldi dorretxea izandakoa.

Anitaren tia, Felix, behekosu amatatuaren aurrean dago, leihoko burdin gurutzatu biek sartzen uzten duten lau argiune karratuetariko batean. Beste hiruretan eskaratzeko txarrakati loak ageri dira, aintzinate aspaldi igaro bateko itsaso galduan aingura lagaturiko itsasuntzien irudi. Behien marrumak aditzen direlarik, Felixak ozen esan du, «Blanquita-aaa», azken bokala luzatuz. Gero jesartzeko agindu eta «Nire gizona, Onofre», Anitak aurkezpena egin du. «Baina jesarri ba! Tio soloan dabil, zetan ez dakit baina, ze mutilak joan zirenetik hona be, ez gara ezetako gauza».

Zaharraren begiek hobeto ikusten dute erditzaletan. Onofre eskaratzeko zokondoan dagoen oliogaineko argiaz ohartu da. «Defuntuentzako», eta gora begiratu du. Zingola horiskak dagoz han eskegita, bonbila biluzi eta bakarraren inguruan. Unetxo beltzuska mordoia ikusi du zingoletan. Euliak, hankak hantxe atxikirik hilda. Leke-da erikorra eta bonbilaren argitasun iruzurkorra,

trikimailu galanta. Behiak marruma egin du berriro. «Tia, konda Onofreri bandidoena». «Onofre hori be bada izena gero», Tiaren aurpegia laino-arteke kostaldea begitandu zaio gizonari, irungitzeaz diren itsasargien antzera begiak. «Zeozergura izango dozue jateko ezta?».

Eulien aurkako botikaren baten arrastoak itsatsita geratu zaizkion baso-ipurdi sakon batean ardao beltza eta intxaurrak mimezko otzaratxoan, eguerdi aurrea zertan entretenitu izatearren atera ditu Felixak.

-Aspaldi, inguru honeetan izaten zan ba bandidu bat, Sandalio eritzona.

Bereari ekin dio atsoak, astiro. «Aintzinako ipuinak» pentsatu du Onofrek erregurari eutsi ezinik chester paketea atera bitartean.

-Nire gizonak ikusiko baleu hori tabakoa, ze harek kuarteroia erretan dauan arren, gustau berari gauza barria! Sandaliorena ez da benetako ipuina igual baina.

Atsoa bere berben haria josten hasi da berriro. Onofrek kanpora egin nahi izan du, lasai erretzera, eta hantxe agertu da Anitaren Tio, atala-sean.

-Atsoen ipuinak entzuten?

Anitaren osaba Herkules begitandu zaio, goizean ikusi duen Ciclon haren tankerakoa, eguzki minberatuak dakarren ebakidurak burua iluntan eta bularraldetik beherakoa goritasun epelez argiturik uzten dizkiolarik.

Behetik gora begiratu dio Onofrek geldi dagoen arren pizti-kemenaz arnasa hartzen duela igartzen den gizonari. Praka barrenak txapinetan sartuta, gomazko abarketetan abiaturik gorantz hedatuz bernetan sareturik lokarriak, gerriko beltza hankaburuetan eta pitxarrarena egiten besoak, laino artean galtzen den gailurra irudi du buruak, ikustezin, itzaletan. Pausu bat egin eta leihoaz barrura datorren argi-arora agertu da. «Hori dok burua», Onofre txokaturik dago, gorputz horretan halako burutxoa, zimurrek jandakoa bera.

-Tio, nire gizona, Onofre.

-Sandalioren kontuak kontetan honeri? -lehenik eta behin zirika egin gura izan dio atsoari. Gero Onofreren konplizidadearen bila jo du-. Goazen ba gu kanpora, ze aspalditik egon naiz zu ezagututeko gogoagaz.

-Zigarrotxo bat? -zutitu den artean eta dantza-pausu berean eskaini dio chesterra.

-Tira, nik baltza erretan joat baina, danatari-koa proba behar dala dioe eta, ekarridak bat ba.

-Zelan izan zan ba Sandalioren akaberea?

-Kanpoan kontauko deuat, ze antza hemen batzarra diagok eta.

«Hango basoan hil ei juen Sandalio. Ona dok berau tabakoa gero!». Basarteko une ez-jakin batetarantz begira geratu dira biak. «Andrak!» esan du osabak. «Lau zaldigaz akabatu juen Sandalio hori, bai, preso hartu, basora ekarri, zeinetara-eta bera lapurretan arrien ibiltzen zanara, eta bide bi lau egiten direan lekuan, benga, lau zaldi elkarrerri ipurdia erakusten eta, ia mutilok!, lotu horren hankak eta besoak zaldieri eta arre zein bere alderantz laurak eta zera».

Blanquitaren marrumak aditu dira. «Eta arre», Onofrek amaitu du esaldia. «Lau zati egin da kristinaua». Makurtu egin da, ozta-ozta apatx egon arte. Behetik gora begiratu du hurrune-rantz, zigarrokinaren keak ezker-bekaina gorantz zimurtarazten diolarik.

-Zer daukat nik entzunda, submarino baten istoria, Anitak nogaz ezkondu behar zan esaten etorri zan egunean kondatu euskuna. -Osabari marinelairenganako miresmena dario begietako distiran.

Urpekariaren pasadizoa. Egia, ezkondu aurreko egunetan izan zen. «Baldur izeneko barkua zan, kargakoa», izena, Baldur, hala esateak eragin izaten duen harriduraz ziur esan du hitza Onofrek. Eta azalpenetan luzatu da, zelan Espainia gerran sartuta egon gabe ere Alemani laguntza ematen zien, burdina batez ere, ezen gerrako materialea egiteko inportanteena burdina da, bera Onofre Saltacaballos deritzan kargalekuan zebilen orduan praktiko, hala da ezen, Baldur hura ailegatu zenean maniobra egiten lagundu zuen dena normal, «Baina ez dakit inoiz torpedoaren uhara ikusi ote dozun zuk». «Ez» erantzun dio osabak.

«Horrek berdin deutso, dena dala; zertan ete dagoz hor barruan hain luzaroan?». «Andrak» esan du osabak, submarinoarenari ekiteko eskatuz. Onofrek han behean ageri den Isabelita lurrunezko lokomotorari begiratu dio. Juan laguna.

Huxleyren pasaportea Baldur harexetatik atera zuen, ze, osabari kondatzen segitu dio, inoiz ikusi izan bada torpedo-uhararik ez da hori sekula gehigo burutik joaten, bada, hantxe ziren uhara bi, berak Onofrek ez baina Baldureko kapitainak behingoan ezagutu zituenak, eta alde egiteko handik, arin, alemanez aldarrika, eta eskerak Onofrek berak aditu zuena zeredozer, bestela hantxe hilda. «Baldur hura hondora joan zan; baina ez atoan».

Aidean joan da trenaren txistua ere, urrunerantz. Lepoa bihurtu eta Anitaren osabari zutitzeko keinua ikusi dio Onofrek. Honek, «Eta?» segitzeko esan dio.

Lehenengo torpedoak garbi-garbi zulatu zuen itsasuntzia, errementa barik aitzitik, ez bait zen lehergarria, apurtzailea baino. Bigarrenak makina gelatik alderik alde pasa eta barkua zati bi egin zuen, erdi-erditik, eta Castroko amarra-mutila hilda, eta aita Martinez izeneko beste bat ere, eta kapitaina bera ere heriduta. Barkua hondora zihoan eta kapitainak laguntza behar zuela eta, hantxe joan zitzaion Onofre, eta kapitainak, mesedez, abordoko liburua eta dokumentazioa

salbatzeko. Ba kapitainaren gelara artez egin zuen zer salbaturik ba ote zegoen, ze barkua ere laster hondoratuko zela igartzen zen, eta han Castroko amarra-mutila eta Martinez gorputz guztia odoletan erreta ateratzen zituzten bitartean madarikatu haien dokumentazioa salbatzearen plantak egin zituen. Plantak baino ez. Bitakora koadernoak hartu zuen, eta kanpora urteztzeko dela, hara, ingeles pasaporte hura antzeman zuen. Zergatik egiten zuen jakin barik, al-kondarapean gorde zuen.

-Ingelesen pasaporteak barku alemanean?

Osabaren galdera urteetan ibili du buruan Onofrek berak ere. Gerra harrapakina ala espioitza zerbitzuek barkua erabiltzen zutelako baten batek bertan utzitakoa ote zen, kontua da Onofrek liburuxka hura berak bai izan zuela gerraharrapakintzat, ematen ziolako lehenagokoan parte hartu ez bazuen ere zer baitetan lagundu zuela hura berarekin gordetzeagatik. Onofre eta osabaren arteko isiltasuna trenbiderantz joan da, hegal-hots batek gizon biak asaldu ditue-nean. Han goian mirotza agertu da berriro.

-Onofre, bazagoz? -Anitak betartetik esan du, ozen, eta mirotzak pinudi-ganarantz egin du.

-Andrak -esan du Tiok.

Besotik heldu Anitak eta aldatz beheran hasi dira. Onofrek azkenengoz agurtu gura izan du gizona eta beste behin ere, bera baino gorago eta eguzkiargia lepoaldean duelarik begiztatua, Herkules begitandu zaio Anitaren osaba. «Sandelio bera dok». Tia ere han agertu da Herkulesen al-bora eta hobeto ulertu du dena Onofrek. «Norberaren andrea kate, inorena ez dana askatasun-ate», halako berba-jokoa egin dizkio buruko eto-riak geltokirako bidean. «Askatasun ate, hik heurea itxi heuan». Gorantz begiratu du azke-nengoz.

-Arin -Anitak, trena galtzeko beldur.

Onofrek aldarri egin dio Herkules-Sandelio-Tiori.

-Andrak!!!

«Point counter point» Aldous Huxleyren nobela luzea hemengotik beste alderen batera igarotzeko bide bihurtu zaio Onofreri. Astiro dihardu irakurtzen, sarritan lerro bakar bat baino ez, zeren hitzek azpiko mezuren bat dakarkiotela erizten bait dio. Anitak berak ere ametsalde berria idoro du arratsalde luzeetarako, irratiko nobela negar eragileetan; hala da ezen berak kalera ala etxean irakurtzen geratu ez du beste entretenigarririk, harik eta Ikaztegietako parrokira joateko ordua ailega arte, egunero. Kasinoa alde batera utzita bait du, Jonenak izanez geroztik. Balkoia portuko karkabara jotzen daukaneko gelan egoten da, eguzki izpien ibilbide oboidean bere zokondoa itzaletan geratu bitartean. 'Point counter point' dago irakurtzen orain ere, trenean.

«Bultzia esaten da», aurrekoan jesarrita duen emakumeak agirika egin dio altzoan umeari. Bidaia ez ordaintzearren umeak dituen baino urte gutxiago dituelako itxurak egiten dabil andrea. Darion usain merkean eta zapata morkoetan

ageri du diruaren premia. «Bultzia!». Onofrek barre egin du barrutik, chester bat ateratzeko keinua izoztu egin zaiolarik umeak zuzen begietara egin dionean barre jostari-begiez. «Txo, formal gero», Onofrek zeozer esan beharrean ikusi du bere burua eta berriketa hutsalen bateko lehen orrazkada izan dadin orduko, liburuan egin du must, zigarroa erre barik. «Umea, umea, umea», bere artean mamurtu du berba hirutan. Anitak aspalditik gura du umea.

-Oraindio ez dakit zertan etorri garean zure Tia ikusten -zuzen itaundu zion aurrekoan trenean sartu, jesarri eta lokomotoraren aborrotsak euren hurkotasunaren inguruan gotorleku traketts bat eratu zuela baliatuz.

-Bedar bila etorri naiz.

-Bedarra?

-Umea egiteko bedarrak, kokolo hori.

Umea egiteko bedarrak, eta John Ingelesa herrian egon zen hamabost egunean ere Bilbora joateko izan zuen zioa hura bera izan zela, umea, «ze urteak aurrera doaz eta ume barik ez da ezer ezkonduen bizimodua». Aurrean duen umeari kirik egin dio une labur batez Onofrek eta harek

amaren idunaldean gorde du burua, ikaratuta legez. Su ilun bat ikusi du iusturien moduan gizonaren begi ninietan igarotzen. Negarrari ekin dio. «Xi» egin dio amak.

Kanpoan udaberria da. Isabelita ketsuaren arrastoa ihitzarantz hedatzen da eta beste aldean, polderrek itsas-gorei osturiko landetan, behiak ikusten dira. Andrea eta beronen umea hurrengoan jaitsi dira trenetik kanpora. Zabal geratu da Onofre, trena basoarteko sugealdeetan sartu den eran. Orrialde oso bat irakurtzeko gauza izan da bultzia lehen tunel luzean sartu aitzin ze gero joan egin da argia bonbiletatik. «Makinaren aurreko begiak behar jok eletrezidade guztia» otu zaio. Zerk aginduta jakin barik leihoaren goiko ahoa beherantz ekarri du, trak!, ziurtasunez, inork ikusten ez duelako, eta zutitu egin da, burua tunelera ateratzeko. Han aurrean lokomotorak bekokian daroan argizko eztenak zurbiltzu blaituz ageri den aldea ikusten du, gurpilen erritmo berean argiztaturik, trakadaka, horman pikatxoiek legundu barik utzi dituzten osketan partituraren bat irakurriaz bailihoan. «Bultzia» aldarri egin du, biriki-betean. «Bultzia!!!», biga-

rrenez alarau egin du. Ke bafada bat sartu da bapatean bagoi barruan. «Burutik zagoz ala», baten batek agirika egin dio amorruaren amorruez dardakadan urten dion ahotsaz. Onofre leiho-ahoa gora altxatu eta berriro jesarri da, ozta-ozta biztu direnean sabaiko bonbilatxo larreak. «Betikoa», lehengo ahots berak esan du, «behar ez danean biztu argiak». Onofrek bagoiko aurreko kanpoaldera urten behar duela pentsatu du. «Gerotxoago».

Nobela besapean hartuta behingoan urten du plataformara. Han atzean ikusi du zentsura-ahotsaren jabea izan behar duena, txapelaren azpian erneguka. «Atea!» esaten entzun dion azkena izan da.

Plataformatik beste erreka bat ikusten du Onofrek, atzean utzi dutenaren alderantzizko bidean joaten. Malda bitan banatzen ditu mendiak urak, arro bitara, eta hangoan baso sarriari ematen badio urak bere indar gardena, hemengo honetan solo eta frutiabolentzako esne eztea da. Sagarrondoak loretan ikusi ditu Onofrek eta lore zuriskok, erdian gorriune hori eta guzti, kilikili egiten diote begietan. «Emearen zera», gizonak

Anitaren alua haztatzearen zentzazio berbera izan du erpuruetan. Beste chester bat piztu du. «Alferrik lorea, sagartxoa eratu orduko jausten badira hosto ederrok». Ezin dutela umerik egin eta hara bera hemen, treneko plataforma honetan Bilborako bidean, medikuetan ibiltzen hasita, Anita, berari ezer esan barik medikuetan sartuta ibili izan den moduan. John Ingelesaren egunetan lehenengoz eta gero batek daki beste zenbaitetan. Okerrago eritzi zion Anita belar eske zebilela jakin zuenean. «Beharbada neu naiz umerik ezin egin dauana eta, egon trankil, medikuagana joango naiz». «Bedarrak ereiteko ortua behar dot», Anitak halaxe erantzun zion trenean bertan.

Atxurirako dagoen tunel luzean sartu da trena eta Onofrek hantxe segitu du zutunik, kedarra irensten, itsasoetako gau galduetan legez, bera bakarrik naturaren indar baten erdian egoiteak damaion ego areagotuaren barruan inoiz baino sakonago murgilduta, ezer egin ez pentsatu barik, ez bada ere odoleko ingudean bihotzak darabilen mailua eta bagoipean gurpilek jotzen duten jazzband tematsua bat direna, besterik ez.

Argitara etorri da trena astiro, tuneletik urten aurretik galgatu bait ditu gurpilak Martin makinariak. Hor ezkerraldean Bilbok duen aurpegi zikina ageri da, darizkion malkoek beste nonbait begi ekuru dituenetan behera rimmelaz nahasturik bailetozkion. «Aberatsa begiargi, pobrea negarti».

Sabai gainean ere jesarlekuak dituen trolebusean igon da. Hurrengo geralekuan leporaino bete da. «Suba», diru-kobratzaileak egunerokeria osoz esan du. Gora egin du Onofrek. «Indautxuko plazara eta bertan pregunta gero», Anitak azalpen hori eta medikua Urigoiena dela, ez dio besterik esan. «Kakazaharra!». Gran Viako tantaietan berdetasun urtsu eta ia gardena etorri zaie hostoei alde batera, Onofrek aurrenez due-nera. Atzerantz begiratzean hostoen bestekaldea ikusi du, berau ere berdea, ilunagoa. «Ezkiak, argi hemen ilun hor, haize bafada bat eta hara beste aurpegia». Adar luzenga batek okotsean jo dio gizonari. Lorautsa nabaritu du bizartxorten sortu berrietan. Bizarra egiteak eguerdi-rarte baino ez dio balio goiz eginez gero. «Landa-reek be badiaukatek hik ez daukokena, lagun»,

Onofrek bere burua ring-zokondora ekarririk legez kanpoko kolpea jaurti dio, «Haizeak diarak ugari hauts ernalgarri hau eta hi, hi ez haiz ezta landarea be; harria haiz hi». Bere burua egin du umerik ez egitearen errudun, eta egin ere oharkabean egin du, han barruko galdaretan luzaroan berotzen izan bide duen susmoak leher eginda. «Zergatik heu?». «Por favor», periodikuak saltzen dagoen atsoari erdaraz galdetu dio, ze Bilbon ezin du euskaldunik imagina, «la consulta del doctor Urigoiena?».

Urigoienaren kontsultarako eskaileretan gora datorrela, eskuin eskua burdinazko barandilan labanduz eta oinak marmorezko harmailetan, Anitaren ditiak eta ipurdi-mamiak etorri zaizkio burura. «Ahor zergatik ezin dan bera izan antzua dana».

-Ditiak dituela halakoak, Onofre jauna, eta horregatik ezin izan leikeela antzua Ana? -aurrean jesarrita duen Urigoiena medikua euskaraz dabilkio berbetan, berak «Baina ez dok bertokoa» pentsatzen duelarik bere buruaren aurrean-. Bietariko edozein izan leike umerik egin ezin dauana, edo bata be ez, ze oraudio ez da-

kigu ziur. Bera orain hile batzuk etorri zan eta emon neutsozan halako kontseilu batzuk.

Betaurrekoek egiten dioten teleskopio paretik hurruniko izarren bati begira balego eran egiten dio berba Urigoienak. Zuzen ulertzen badio, Anitaren laztanak, Anitaren larrualdeetan eragozpenik barik eta inoiz baino sarriago menturatzek, haren bolantinak ohean, Onofrek berak atsegin duen «zu halan» eta bera gainean, gorputza osorik bestearen gorputzera urtuz igaro behar duela sentituz, medikuak gomendatu diona betetzea izan da.

-Halakoetan nik beti esaten dot berdin, hoba dala ezin dauana nor dan ez jakitea, ze gero, garbi esanda, kakanahasteak etorten dira andragizonen artean. Baina, zer esanik ez, zeuok gura badozue egin leiz analisiak...

Hementxe hasi da galtzen Onofre, eta berak ere zelan ez dakiela gerritik gora biluzik dago, ohetila antzekoan etzunda, Urigoiena hark berba eta berba egiten dion bitartean.

-Honaino etorri eta ez zara halan beste barik joango. Gernua eta, odola eta, baruatan aztertu behar dira eta, beste egunen batean etorriko

zara. Arnasa sakon hartu orain. Erre egiten dozu?

-Bai, baina hau zertara dator? -Medikuak eta borreroak bat. Eskenatokiaren jabe egiten dira, afusilaketaren irudiak datozkio Onofreri burura. Norberaren kabuz iharduteko gaitasuna galtzen da, eskuturretan ikutu medikuak eta adorea jarrioa doakio iheska begien aurrean trapua ipinitakoan piztien moduan arnasa hartzea beste higikerarik ez daukan afusilatu-aginekoaren antzerara.

-Larregi erretzen dozu.

-Rubioa baina -hobea dela esan guran.

-Hainbat okerrago. Prejuizioz josita zagoz Onofre. Ez dot jakin Anaren gizon jakintsuak herrikoen moduan pentsatzen izan dauanik. Ai, zelan doazen urteak, Ana eta zu, andra-gizonak.

-Andrea lehendik ezagutzen dozu ala? -Onofre ustebakoan hartu du Urigoiena jaunaren azken oharpenak.

-Txikitan, baserrian, hareek izaten ziran udak. Umeen kontuak, badakizu, Anagaz enamoratuta egon nintzan. Ha zen, ha! Beti mutilekaz olgetan.

-Sandalioren abenturak eta, ezta? -Onofrek berak ez daki zertan aitatu duen izen hori, beharbada karramarroa legez arramaskadaka dabilkiolako han barruan irudi hura, lau zaldiak, lau gorputz-atalak, lau bideak.

-Sandelio, bai! -zizpuru egin eta ostera ere jesarlekuan lurperatu da medikua, parekidetasunezko berriketak amaitutzat emanaz bere teleskopio parearen bestaldetik-. Hoba erretzen ez badozu, ez rubiorik, ez morenorik, ez ezer. Eztulik eta sarri egiten dozu?

Airean utzi duen 'eta' horretan zeren oihartzunak ote datozkion ez igarri guran geratu da Onofre.

-Kontuz tabakoagaz!

Karramarroaren irudia etorri zaio burura. Oinutsik portuko ur txikietan, beherantz begira, ez da ezer igartzen hareatzan dagoenik. Ezer ez, harik eta behatzak halako une jakin batera ailega arte. Orduan, ezer egon ez den une horretan bertan hasten da hare behetik gora higitzen, hare-aleak zer ikustezin batek eragindako sorgin zurrunbiloaz hegaldatzen dira gorantza eta han ageriko dira begitxo bi, eta hanka luzengek irte-

tzeaz direlarik eratzan duten gailurreria minimala: karramarroa. Harearen azpitik karramarroa dator. Birikialdean inurriek habia egin bailioten gelditu da Onofre. Balizko gaixotasunaren erroak hango hare-eremuetan ezkuturiko karramarroaren hanka egiten zaizkio eta erretako chester guztietako keak halako arraskadatxoak egiten izan diola onetsi dio bere buruari.

-Erabagia zeuk egin behar dozu, bai tabakoagaz zer egin eta bai analisiak ala ez egin be. Nik neuk badiotsut, nigatik ez egin, eta datorrela etortzeko dena.

Azken hitzok «Amaitu dogu eta, zoaz ja tran- kil gizona, Anita ostu deustazuna» esan gura izan diotela ulertu du. Altxatu da, bada, eta bostekoa luzatu diolarik Urigoienak, «Zenbat da» galdetu dio, ahotsak birikaldetik ezpainetaraino egin behar izan duen bidean lapurrak baileude- neko ikaraz. Ez dio dirurik hartu nahi izan.

-Ezebez. Umeak datozenean, ze etorriko dira etorri, lasai horregatik, orduantxe egingo doguz diru-kontuak. Ez arduratu; guk, lehenengo bost urteetan bapez eta gero ia urtero bat ekarri dogu.

Ez diola ezer ostu eta burua galtzen hasita ote dagoen, oinetan lurrak ikara daragio. Teleskopioaren atzetik barre egiten ote dion medikuak igarri ezin eta lasaitasun itxurak egitearren otu zaio itauntzea, «Sandaliu hori benetako izan zan ala?».

-Ez ba! Zaldi-ferren markak ezik, beste guztia egia santua da. Beste zereginik ez badaukozu, estazinatorako bidean geratu zaitez Txano enean eta harexek esango deutsu ondo zelan dan Sandalioren gorabehera hori.

«Agur». Kaleko brisarak dakarren oxigeno guztia behar izan du Onofrek sartu biriketako alderik abisaleenetaraino ekarteko, karramarro guztiak planetaren muin-muineko galdarak baino beherago uxa ditzan. Mekanikotasun hutssez chester bat ezpaineratu du. Zer egiten dabilen konturatu denerako kearen eraginak baretasuna ekarri dio. Abisalak ordoki leun bilakatu zaizkio. «Txano. Inoiz fijatu nok ba kortel horregaz ba». Urigoienaren susmoek hankak ilargian dituztela frogatu guran edo, oinez ekin dio lehen gorantz ekarri duen bideari, beste gogoeta batean galduta.

Eguerdiak uda datorrelako atabala bero nahi du jo. Jaka erantzi eta beso-hutsik geratu da.

«Andrak be badozak gero!». Ezki-hostoek zidarezkoago eginik dute berde urtsua. «Nori-eta ezagunari erakutsi behar». Berak medikua laguna balu ez lioke erakutsiko halakorik, ezta beste ezer ere. «Baina diferenteak gaituk, eta horrek ez diaukak bueltarik». Anita Urigoiena haren aurrean gerritik behera biluzik ikusi du bere buruan. Betaurrekotzat erabilten dituenak akordura etorri eta barre egin du bere artean. «Beharbada hobedok horrerri inportantzirik ez emoteko halantxe egitea, esatea ba, begira jauna, hemen zera daukat, eta zer hori zer den erakutsi eta kitto».

Odol-galdaretan su berri bat du. Anitaren gorontzak dituen sokak, apio itzelak, kitzakagarri zaizkio eta, gauzak zelan dagozen ikusita, otu zaio ausartu egin beharko litzatekeela esaten, «itzidazu neuk kentzen hori». Nobelak jakako fal-trikeran egiten pisuak hangoa gogorarazi dio. «Zerbeza bat ez jak txarto etorriko». Pacho hautatu eta bertan sartu da. -Una cerveza.

-Hemengoa? -ugazabak euskaraz egin dio, jirafa lepoa dirudien iturria erakutsirik.

-Ondo dago, hortixek.

Bost berari. Ez du hain sarritan edaten garagardorik. Liburua atera eta hasierako hori berri-rakurri du. My mistress' eyes are nothing like the sun, edo, nire señoarearen begietan eguzkiak, hainbat hobe. «Baina hi ez hintzan benetan enamoratuta ezkondu Onofre». Garagarra bezain mingotsa den aitorpena iruntsi du, edaria bera bezalaxe, eztarrian behera zeozeren arrastoa utziaz moduan, eta biek eragin diote ekurutasun bera. «Eta zer horrek?», zeren hurrengo bertso-etan erantzun bat dago eta. Coral is far more red than the lips' red, if snow is with the why then her breast are dun. Itzulpen automatikoa egin du Onofre, eta «haren ditiak» bere kautarako esatean Anitarenak etorri zaizkio gogora. «Ditiengatik galtzen gara». Iluna da haren ditietakoko esnea. Umerik ez datorren artean esnerik ez, «eta hataz eta guztiz be, iluna dok haren hango burutxoetan esnea».

Garagardoaren esku ikustezinek besotik oratuta legez urten du Pachotik, poz apartsuzko

«ikusi arte» alai bat aidean utziaz. Bidebarrieta kalean gora egin du Katedrale aurreraino. Hantxe geratu da lipar batez geldi. Eskuin orpoa erro eta gorputza ate, lepo astiro bihurtu du, begiek inguruko denda-izen guztiak antzeman ditzaten.

«Txano mesedez», begiek ezer idoro ez eta etsituta Donejakue haren atetan dagoen eskekoari galdatu behar izan dio argitasuna. «Hortxe», eskekoak. «Itsua haiz ala?» esan balio ez zatekeen lotsatuago egongo Onofre. Hortxe aurrean du denda.

«Kakazaharra, musika zeretako denda dok», kanpoko aldean geratu da erakusleihoari begira. Han barruan egundoko burua ageri da, erabat soildua, salmahiaren atzean dagoenarena. Ideta-sun bat sumatu dio eta aurrera egin du «eguerdion» luze ahoskatuz batera katedraleko kanpaien hotsak barruraino ekarri dituelarik atea iriki-itxi tartean.

-Ederra dago bai -burusoilak trakets eran-tzun dio.

Onofreri nobela etorri zaio burura berriro ere. If hairs be wires. Ileak hari balira. Bera ez zen maitemindurik ezkondu, zeren nahikoa bait da

hari ikustezinena bera gizakumea lotzeko, eta zertako ba berba luzeagorik. Zeozer egitearren dendako zokondora joan da, ilebakoak ezikusia egiten diola betertzaz ziurtatuz. «Ez dakik ezer jotzen», barreguraz esan dio bere buruari, hango tresneria itzel haren erdian galduta. Burusoilari begiratu eta berau ere berari begira dagoelarik harrapatu du. Ilebakoak begiak begietatik deslortu eta aurrean duen zerbaiti, Onofrek zer den ez dakiena, harexeri beha geratu da. Buruandia jokoz kanpo harrapatzearren bakarmena eskatuguran moduan, bertara zuzendu du burua. «Diskoak».

«Hara!, honexen bila etorri naiz ba», bertan egon eta konturatu ere ez dela egin, lehenagokoa zurituz esan du. 'Point counter point' kasulitate-kate itzel baten barruko katanbegia izan dela eta, berau gogorarazten dion barne-ahots berberak gertaeren hurrenkera eten ez dezan agintzen dio. Diskoen artean bilatzeari dautso, nobelan ikusitako izenak gogoan.

-Ezer espezialik? -dendakoak berba egitean burua itzuli eta lehen eman diona baino gazteago eritzi dio Onofrek-. Euskalduna zara ezta? -bi-

sigu-betzuriak geratu bide zaio, desenkusatur bezala jarraitu bait dio dendariak esaten-, ze hemen egunon asko eta gero barra-barra erderaz.

-Euskalduna nok, bai -beroago berba egiten ausartu zaio Onofre. Diskoetan ageri diren izenak ezezagun zaizkio gehienak.

-Kostakoa? -erantzunak baiezkoa ekar diezaiion itxaroten egon barik aurrera egin du-. Ez da askorik ikusten hemen dendan. Ezer espezialik gura dozu ala?

Zein atxakia atera ez du jakin Onofrek. Bera kostakoa dela baina andreak familia duela base-rrian, beharbada ezagutzen duela, Urigoiena medikuak ere ezagutzen duela eta.

-Ezagutuko ez dot ba! Ana. Horixe dozu disko ona. -Mozart dioen bat atzamarren artean geratu zaio-. Uda ederrak emon genduazan han guk ba. Baina bertoko zeozer gurago badozu zergatik ez dozu hartzen Santa Maria Donostiako organuaren musika?

Berriro zaharrago ikusten duen burusoil harek agindu eran egiten du Onofrek, berriketa- ren haria luzatu guran konturatu ere egin gabe;

diskagailurik ez dauka etxean. «Honexek ba», Huxleyk berak ere Mozart darabilela haratik hara eta kasualitate katea haustek merezi ez duela-ko hartu ditu diskoak.

-Sandalioren herrikoa zara, aitzitik. -Isilunea eta Onofrek aurrekoari josi dio-. Sandalio hori benetan izan bazan, behinik behin.

-Izango ez zen ba! Paperak eta dagoz. Hasieran lapurra, gero mikeletea, gero berriro bidelapurra, badakizu orduko denboretan oraingoetan legez, enborretik ezpala, lapurretan ekiana egiten eben lapurren harrapari.

Berba egin artean ezarian-ezarian Onofrek hirur-lau disko ekarri ditu burusoilak pulpututzat duen erakusmahaira. Begiko egin zaio haren bozari darion bake-jarioa.

-Ezkonduta gero beste andra bat hartu eta beragaz ibilten ei zan lapurretan, umeak lehehengoagaz itzita.

«Nobelak», Onofrek zazpi itsasoak hausten eman dituen urteetan nobela asko dituela irakurrita orain halakoak sinesten hasteko.

-Kapitaina zara, hara! -igarri egin dio-. Jaki-na, izarrekaz zerikusirik daukeen gorabehera

guztiak ikasi dozuz bai, baina apenas erakutsi deutsue ezer norberaren barruan eta historian be egoten direan itsasoak direala eta. Sekula ez da gizona orain dana legez izan, hain esklabu; edo ezkondu, edo ez dago zerik.

-Zera, diskook non entzun ez diaukat -amorruz otu zaio, zeren hasieran atxakia hutsez hartu baditu ere, orain asturuak eskaintzen dion ate berriaz bestaldera ausar dadin dei egiten dio grinak, odolaren abiadura biderkatuz.

-Diskoak non entzun ez daukazula? Errez konpontzen da hori gizona. Erosizu pick-upa bat eta kitto, ze zuk dirua euki behar dozu derrigorrez. Eta, zera -zalantzan geratu da, ume-irria ezpainetan-, zu ez zara diskoak erosten etorri.

«Ez eta bai». Bere bizi guztian zenbatetan jokatu duen aurretiaz ezer erabaki gabe, eta jokia mahai gainean agerian geratutakoan gehientsuenetan damu izan duela, Onofrek buru bi dituela daki. Bata pilutu automatikoa da. Bestea, kapitaina, kafez lar betea, tematsua, seta eta amets-gorapilotsuez josia. Gogoko zaio denda-koa. «Hau ez dok dendari hutsa, hala esateko modukoa behintzat».

-Denda ixteko ordua da eta, gura badozu pick-up hori eroan, bestela itzizuz diskoak eta dana, eta goazen zeozer hartzen ze egunero be ez dot izaten nire pasiño handienaren gainean berba egiteko erea: itsasoa! -Onofrek eroateko asmoa daukala esan dionez, dena paperetan ondo bildu eta gero kaxan sartu bitartean ekin-dendakoak-: Ni barriz, beitu, horko Unibertsitate madarikatuan historia ikasi eta orain hemen, txistuak eta panderuak saltzen. Zera, pick-upa ez dozu eskuetan eroango ezta? Atutxaren kamioiak eroango deutsu etxera. Bertan eukiko dozu iluntzerako. Eta, zera, Doroteo naiz.

-Ni, Onofre.

Denda itxi eta Somera kaleko taberna labirintoan galdu dira lagun berri biak. Batak bestearengan ikusten duelako norberarengan ez duena, lehorrekoak oinetan itsasoak eragiten duen dardararen berri ez dakielako, eta itsastarrak eguzkiaren eguneroko deriba leiho beretik begiratzuz neurtzea zer den ez dakielako, denda berriro zabaltzeko ordura arte ekin diote, ardaoaz lagunduta hasieran eta bazkaldu bitartean gero. Kafeak bere pattarra eskatu die eta ez

Onofrek ez Doroteok ekandutzat ez dutena egin dute, hartu.

-Hirea dok izena -barruko epeltasunaz adoretzu esan dio halako batean Onofrek.

-Hirea be ez dok makalagoa -hizkera ere al daturik erantzun dio, elkarrenganako konfidantza sendotuz-. Trena galdu behar dok. Eta pick-upa, ez joat uste gaur arratsaldean agintzeko moduan izango naizenik.

Treanean loak hartu du Onofre. Ametsetan Anitaren osabak Sandalioren heriotza zelan kondatu zion, halaxe ikusi du. Lehenik, preso ikusi du basamortuko gotorleku itzel batean. «Hantxe egon zuan preso eta». Aurpegia estalita euki du, mairuen modura, eta estalkia kendu duenean Onofrek bere aurpegia ikusi du Sandalioren aurpegian. Ihes egin du. Itsasoz itsaso ibili da, ke huts zen barku itzalean kapitain baina sotoan ostendu da. Kea laino bihurtu da eta hantxe ikusi du Sandalio, lau zaldiren buztanetara lau gorputz-atalak loturik. Onofre Sandalioren aurpegia ikustera makurtu da. Oraingoan Sandalio bere lagun berria da, Doroteo, barre egiten, barre eta barre, eta zeozer diotso. Diotsonak barregura

eta poza dakarzkio, biak ore bakarrean, Onofre-ri. Baten batek arre egin die zaldiei eta Sandalioren lau adarrak airean doaz, buruak han behean gorputzik gabe barre egiten segitzen duen artean. Trenaren txistuak iratzarri du Onofre. Iluntzea da. Bagoian erraz sartzen da Isabelitaren kedarra. Sandalioren azken hitzak gogoratzearen ahalegina egiten du Onofrek. Ezin ekarri ditu burura. Egonezina itsasgoran nabaritzen du bere barruko ozeanoan, karramarroak harearen pean zortzi hankak eta alikate biak astiro zabalduko bailituen. «Pattarra, badakik ez dokena edan ezta tindirik be edan behar». Plataformara urten du.

Ekainak bere erdia jotzean zeruari odola isurarazi gura diola begitandu zaio, itsasoa ikusten hasi deneko bertako azken kurbaduran gorri ageri bait da. Chesterra piztu du, haizeari lepoa emanaz. Gero trenak astiroago ekin dio. Behargin presoak hortxe dabilta, ertzetako hormak altxatzen, txapelokerren begiradapean. Ciclon derizatena etorri zaio gogora. Geltokian, hantxe ikusi du berriro ere, gordetegia egiten dihardutenen artean. Elkarri begiratu diote, goizekoagatik

ezagutetsiz halako keinu mutu batean bata beste-
teari agur esaten.

Oinez doaz Onofre eta Anita elkarren alboan, hor behean egiten diharduten trenbidealde berria parean dutelarik denbora guztian.

«Bihar Donianera», Anitak erabakitsu esan zion, Urigoienarenean izan osteko hamaikagarren eztabaidari buru emanaz. «Zertan?», ozta-ozta itauntzen ausartu zen, alde z aurretik jakinik Onofrek joan beharra izango zuena, egin egin duen legez, zeren goizaldean oilarrak oilaritea iragarri orduko abiatu bait dira santuaren elizatorantz. Presoak eurak ere jagi barik dagoz oraindio, atzean eta ezkerretara utzi dituzten etxola luzengetako inguruetan ez bait dago txapelokerrak eurak eta kateetan loturiko zakurrak baino beste inor.

«Zertan? Santuari promesea egin deusdada-lako, oinez joango gareana eta meza entzun eta errezatu egingo doguna bertan». Bermeon sartzean egunargia hortxe datorrena igarri du Onofrek, oilarraren lehen karkara ozen gorrian. Anitak erneguz hartu zituen Onofreren azalpenak,

Urigoienaren eritzian hoba zela analisisirik ez egitea eta errudunik ez bilatzea. «Ba, ortua gura dot» erantzun zion eta hantxe utzi zuten berrieketa. Ortu jakin bat proposatu zionean, «Kanterazpian dagoana» amore eman zuen, batez ere egun berean pick-upa ailegatu eta iustiziazko begitandu zitzaiolako. Bedarrak ereiteko, eta bedarrokin batera bake betea izango zuelakoan. «Kia bakea».

Itsasuntzien soslaiak agerira etorten hasi dira eta kaleetan gora doazela erromes joateko direnen itzalak eta dei-aldarritxoak aditzen dira. Onofre lehenengoz dator Donianera bertoko jaia-
ren egunean.

Aintzinako harresian izan ziren zazprietatik zutunik geratu den ate bakarraren atalaseko harritzko begian Santuaren irudia dago, zurezko eta leiharrezko kutxa zerukaran. «Zapaldu hemen», Anitak begiak santuaren iruditik behera ekarri eragin dizkio. «Zer ba?». «San Juanen oinaren marka dalako hori». Zapalduaren zapalduz marmora baino leunago dagoan harrian, ziurren aintzina gurdiek albo jo ez zezaten egindakoa de-

larik bera, hantxe pausatu du oina Anitak, espartina kenduta.

«Zeuk orain». Onofrek ere oinutsik zapaldu du arku-begiko lehen harri sakratua. Anitak espartinik berriro jantzi barik oinutsik jo duela aurrrera eta, aldarri egin dio.

-Ortozik zoaz ala?

-Bai, eta zeuk be bidea ortozik egiten badozu, hobeto.

Espartina aidean, arrapaladan joan da Onofre Anitaren orpoen bila. Besotik oratu dio.

-Zer da hau?

-Promesa egin deusat santuari, nire gizona eta biok bere egunean goizean goiz oinez joango gareana Portaletik Altareraino.

Alferrik izan da ortua. Alferrik Urigoienari bisita, alferrik hark gero egin zion beste bisitaldi batean, Doroteo ikusi ahal izan zezan atxaki hutsa izan zena, medikuak esan zion egiteko modu berria. «Santuari promesea! Hau andrea burutik diagok».

Onofrek ez du espartina ipini. Bestea kendu egin du, eta Anitaren jasa berean ekin dio bideari. Ohartu gabe, eratuz doan halako ilaratxoan

doaz eurak ere. Oilarrek sarriago eztenkatzen dute inguratsa eta kanposantuaren aurrean igaro direnean, oinak harri txingarrek zaztaturik, eguzkiaren aurrelumaia gorria ageri zaie gurutzeean arteko horizontalean. Beste San Juan bat izan zen Onofrek Anita ezagutu zueneko. «Eta Maddalen be». Oinazpietan iltzatzen zaizkion harri-txirriek baino mingarriago kin egin dio akorduak bihotzean. Chester bat ateratzeko gogoia ere izan du. Ez du egin. Bidean aurrera doazenei halako jario isila dariela igarri du eta zigarroa iziotzeko adorerik ez du izan. Ilarako gehienak binakakoetan doaz. Aurreratxoago dituenak aita-sembleak dira, zalu eta pausu laburretan semea, astun eta hankarte luzeagoz aita. Eta atzean datozkienak, hamar urratseko tartean, neska-mutil gazteak, goitik behera itsas-anilez jantzita. Anita eta bera legez. Onofrek beti eritzi izan dio berrikeria arrantzale jazteari, harik eta Anitaren fedea bera ere kutsatu duen arte. «Santuaren kolorea da».

Elkar ezagutu zuteneko gaueko kolorea ere berbera izan zen. Orduan, suaren inguruan dantzatzen ujuka, gona barrenaren puntatxo bat gerria-

ri lotuta zerabilten berak eta Maddalenek. Honi espartinak orpotik urten eta dantzarien beso-katetik askatu zela baliatuz, hantxe tartekatu zituen Onofrek bere eskuak. Maddalenen begietara artez begiratu eta atoan geratu zen gizonaren bihotza gatibu. Beste aldeko eskuak tenk egin zion aurrera joan zedin dantzan. Suteko garrak epel zeuden, eskuan zuen eskuari zerion beroaren aldean. Txistu soinuak isildu eta bedartzan jesarri ziren, Maddalen, laguna eta hirurak. «Eta hirurok». Lagunaren gona barrena baino gorago joan zitzaizkion laban begiak. Neskarenak aurkitu zituzten. Ikatza astiro eta gori erretzen, ninietan halako argia zerion. Edo dena zen Onofrek berak bere baitan jarioan zuen sukarraren atzea, beharbada.

lilji-jiljilji, irrintzi egin du baten batek han aurrean ezein oilarrek baino ozenago, zoli. Beste irrintzi batek, eta beste batek, erantzuna eman diote. Onofre apur bat atzerago geratu da. Anita-ren ipurmamiak dantzan higitzen dira. «Ederra dok, ederra». Ezagutu zuteneko gauean egin zuen gogoeta berbera egin du. Eta Anitak jaurti duen irrintzia barruan bizi zaion pantera emea-

ren agiriko seinaleztat hartu du. Maddalenek eragiten zion eta oraindik ere akorduen ganbara suhilean eragiten dion grina geldo eta sakonaren erabat bestelako pasinoa. Ogoño atzean errota-
rri gorri ageri da eguzkia. Beroa agintzen du. He-
zurak ere eihotzeko modukoa. «Eihota dauka-
daz oinak». Anitak aurrera egiteko eskatu dio,
atseden egingo dutela Osin-Ilunean. Arrabete
gorago bestaldeko mendilepoak baino, eguzkiak
aizkorakada bigunak jotzen ditu, oraindio. Erre-
pide-ertzean gerra sasoiko gotorlekutxoak ikus-
ten da. «Hik egin ez heuan gerra». Oinek beldur
barik zapaltzen dutenez gero odola giharretan
gora doakio arinago eta birikietan arnasa har-
tzen du. Ezerk ez diola ardura, ezkerretara ageri
den urazala bere baitan duenaren ispilua da,
bare, leun, infinitoranzko bidean pisugabe.
«Osin-Iluna», Anitak kanpoaldeko munduaz
ohartarazi du. Bidea baino apur bat gorago mul-
tzotxoak dago jesarrita, jan eta edan, zahatoak
astintzen. Bertan pausatu dira.

-Mila zortziehun eta laurogei eta hirugarren
urtean marineru bi barku batean joan zireala bia-
jean, eta denporale aundi bat atrapatu ebala,

eta lagun biak egin ebaia promes bat San Juan Gaztelugatxera. -Erromako kardenalek boneta eroaten duten aldean, hortxe kaskiluan txapela umeen moduan jantzita duen batek hango guztientzat egiten du berba, harro eta etorriaz-. Eta heldu zireanean herrira ahaztu ziren euren promesaz.

Onofre behatz odolduetan haztaka dabil, Anitaren lepoa amoltsu lepoan eta belarriak edaslearen berbetan. Lagun bietariko bat hil eta bestea ezkondu egin zela dio, Herio aipatzeak entzuleen artean eragin dezakeen shockaz pozik. Baten baten zahatoa gura barik etorri zaio eskuetara Onofreri. Edateko gorantz egitean eguzkiak begi bat itsutu eta ardoak alkandora basitu dio. Anita soraio dago ipuina entzuten. «Hara beste promesa bat ere», otu zaio edasleak esatean zelan hildakoa agertu zitzaion besteari, egin zuten promesaz oroitarazteko. Emakumearen barruan bere kontrolpekoa ez den beste mundu bat irakiten dago, beste labe batean erretzen dira haren eguneroko ogiak. Berak inoiz ezin ulertu izan du ondo, aintzinako bat bizi zaio sineskerietan, eta beti aurrera inork baino beste

pausu bat gehiago emanda bizi nahi duena da bestalde Anita. Horregatik otu zaio, «Autoa beharko geunke», eta halaxe esan dio belarrira Onofreri, han aurrean bat gelditu dela baliatuz. Haiga beltza, txarolaren parekoa.

Eguzkiak Haiga haren gaina hartu du eta, agerian geratu zaio Onofreri txofer dagoena nor den. Luis. Hara ba nork jo zion klaxona behiola. Ezagutu egin duela oharturik, eskuaz epa egin dio. Luisek atea zabaldu eta belarriarteko irribarraz hurreratu zaio.

-Onofre, non sartuten haiz ba?

Zuntzunduta eta era berean pozik, Luis haserre izan duela, bere buruetariko batek beste guztien kontra eta zertan egin eukigabe pentsatu duena dela otu zaio. «Ana»esan dio, eta honek «Luis» esan eta edasleari adi arteztu du arin burua. Gizonak ere isilik geratu dira.

Ipuina edasten diharduenak, bere hitzen eraginaz ziur, kondaketaren haria ondo josiaz entzule dituenei erdi zirika erdi sekretupean egiten die. Ipuinetako ipotxa dirudi, onddo koloretsuz dituelarik aurpegiko mami gorrituak. Ijijiji, irrintzi

egin bapatean eta egundoko jauzia jo du gorantz.

Onofrek ezin igarri zukeen ipuinaren amaiera irrintzika etorriko zenik. San Juan goiza da. Mundu biren nahastura, ardoa eta goizeko leia belartzan, odola oinetan eta Luisen autoa.

-Neuk eroango zaituztet.

-Ezta ezelan be ez -Anitak promesa eginda datozela azaldu dio.

-Onofre, lagun, ea ba gero hor ikusten bagara, ze berba egin behar joagu eta.

«Ezer inportanterik?», hesteko sugeak burua gorantz luzatu eta kosk egin dio estomangan.

-Berri onak hiretzat! Ingalaterratik! -leihatilako beira gorantz egiten hasita, kanposantuan izan zireneko egunaz gero ezikusia egiten izan dion aspaldiko lagunak ez du galdurik filmezale-tasunak kutsatu dion keinukera. Gable hutsa da.

-Egon hadi eguerdi ostean txakolindegian.

Autoaren burrundadak sorgin-haizea eragin du ihestutuaren inguruan. Ipotx edaslearen taldekoek aldarri egin diote, gangar, eta abiada hartzearren gurpilak errepidazala jaten hasi direnean zafladaka ekin diote autoari jotzeari, atee-

tan, sabaian, atzekaldean, «San Juan eta portale gaina» kantuari laguntzeko.

-Luis! -Onofrek autoaren ihesa dakus, ipuinaren amaiera aditu gabe geratu dela madarikatzen eta aspaldiko lagunak esan behar dionarekiko zalantzaren arra, «Jonena ete daki ba?», suge itzel egiten zaiolarik estomanguan.

Lehorretik hurre, itsasoan naufratu eta hondoranzko bidean gailurra agirian geratu zaion menditxo da Gaztelugatxe. Begi biko zubi ezrregularra da Soilubek luzatzen dion besoa, zeinaren esku-atzean Santuari eskainitako elizatxo da goen. Zubi-besotik harainoko eskuturra luzea da, eta malkartsua. Umeez baino ez dute arnasaldi bakarrean igotzen, harmailak zenbatu guran, kaioekin leihan. Emakumezko bi balaunbiko datoz gorantz eta bide erdian azkenik ere chesterra erretzen geratu den Onofrek, bera ere oinez datorrela eta, herri-multzoaren barruko deritzo bere buruari. Anitak zalantzaz esan dio, «Beharbada geuk be belauniko egin beharko genduke zati hau». «Hasikerean oinez esan dozu eta oinez amaituko dogu», gizonari barruan duen kapitainak egin dio gainez. Bere burua gorrotarazi aginean dago.

Tabakoak ukendu miragarriaren eragina egin diona esker, legundu egin du ahotsa. «Amaitu daigun hasitakoa hasitako moduan». Oinetan

hazka egin du Onofrek azken harmailetan gora jo orduko.

Kanpai-hotsak, mezatarara deituz, arindu egin ditu Anitaren hankak. «Mezatarako berandu goaz» entzun dio Onofrek beroneri esaten diotsola. Bera ez da sekula ere joaten. «Jainkorik izanez gero honegatik mogitzen danik, a ze jainko narratsa». Elizatxoko arkupetan gerizpe gozonenak egin dio abegi. Anitak bururako mantila atera du paparretik. «Eta jainkoak hemengoari jaramon egiten badeutso, kakazaharra jainko». Elizatxoko ilunpetan begiak itsu geratu zaizkio une batez. Apurka apurka, ninietako argitzuloak hangora egokitu ahala, neguko edozein arrastiko argitasun beretsuaz antzematen du eliza-barrua. Ekialdean leiho borobila dago, argizko hage oblikua dakarrena. Mantilak erdizka estalita begiak, Anita zein eder eta zein urrun, Onofrek ez daki bera zertan dagoen han. Behin erratu izarrarteko kalkuluetan eta harrez gero okerreko bidean ote dabilen dago. Ez oso okerrekoan. Hasierra batean graduren bateko aldeaz baino ez oker kalkuluetan eta gradutxo horixe, hainbeste miliaren ostean, egundoko alde bihurtu da.

Beste kontinente batera ekarri du errakuntzatxoak. Trigonometri kalkuluak egin ditzake meza luzatzen den bitartean. Oinetan bere ohizko ibilkerara etortean odolak dakartzan danbadakadak nabaritzen ditu. Monagiloa ageri da altarean. Bertara begira geratu da Onofre. Kandelak iziotu ditu umeak eta hantxe agertu da abadea.

-Introibo ad altarem Deum -latinez ekin dio gorantz begira burua. Onofrek ere gorantz begiratu du. Beste argitzulo borobil bat dago aurrekaldean. Hango argia oztaka dator ihesean sabaian eskegita diren objetuen artean. Exbotuak dira.

«Jainkoari ume gaiztoari legez, olgetakoak emon», Onofrek, airean nabigatzen moduan dagozen itsasuntzi txikitxoei banan banan so, trigonometriazko beste kalkulu bati ekin dio. Benetan diren barkuak itsasoak eta benetako en aldaki zehatza diren botogaizko hauen artean lerro teorikoak luza daitezke, brankatik brankara, txopaz txopa eta mastarik masta, eta lerro guztiak zentro teoriko bakarrean bilduko lirerateke. «Jainkoaren begian!». Anita burumakur dago, zur ilunezko jesarleku luzengetan dagozen beste guztien

moduan. Onofre ez da debozioa erakusteke dagoen bakarra. Atzean, sartu eta urten dabilta umeak.

«Eta badaezpada be», amorruzko su geldo batek hartuta, tripulante eta guzti miniaturizatuak diren itsasuntzi batean geldi begiak, «euren burua sartu juek trikimailuan». Trigonometria hutsa ere ez da. «Jainkoak begizko ona egin deien gura juek». Zutundu eta kanporako keinua egin du gizonak. Anitak nabarmen egin dio agiraka, mutu, berari giroak daragion barruaroa amarena izan eta Onofreren portaera ume zirinarena bailitzan, berdin.

«Ez ama!», Onofrek bere kautarako egin alarau, kanpoan aditu ez den barru-ahotsaz. Azken begirada egin dio elizatxoari. Hormetan argazkiak dagoz, eta eurotan ere baporak. Dena dago santuaren eskuetan. «Edo buruan», aldare nagusian Donianeren buru bizartsu erretilu borobilean eta leporik gabe dago. «Agur!».

Atetan bideko lehenagoko ipuin-edaslea agertu da. Behearen gainean iltzatuta geratu zaizkio hankak Onofreri. Ipotxa ez dela hain ttikia ohartu da, harek txapela burutik kendu,

ezker hanka belaun-giltzaz itxi eta dantza baka-
rreko azken mogimenduaz eskuin besoa belaun-
bildurik ez duen hankaren parean, txapela es-
kuan eta burua makurturik, halaxe geratu de-
nean.«Dana sinesten jok horrek be».Eguerdiko
beroak galdara bihurtarazi behar du gailurtxo.
Gerizpe bila jo du Onofrek itsasoaren auzokide
dagoen hormara. «Hemen behintzat ez diagok
inor».

Uhinak apar burrunbatsuetan hausteak, eli-
zatxoaz bestaldeko jai-zaratei ihardukiaz bezala,
musikatasun eta guzti datozkiola deritzo. Mun-
duaren borobiltasuna erakusten du han urru-
nean lurrun egiten diren uren kurbadurak.

-Onofre -aditu du, Anitaren ahotsa denik ere
ohartu gabe. Lepoa bihurtu du.

-Ana, zer? -loaren osin sakonetik sorginduta
datorkion ahotsaz.

-Zergatik urten dozu mezea amaitu orduko?
-begietan ageri dituen iusturiek trumoi-hotsa
iragartzen dutelarik-. Halan pentsatu dozu bete-
tzea gure promesea?

«Zeure promesea», jesarrita dagoen belartza
legunetik zirkinik egin gabe erantzun dio, berri-

keta bide labankorragoetan abiaraz ez dezan beldurrez.

Itsasotik hain gertu, kapitaina nagusitu zaio barruan gizonari. «Ez dot halakorik sinesten nik». Anitaren okotza ogi kuzkurraren modura zimeldu da. Malkoek diosala egin diote haren begietan eguerdiari. Jagi da Onofre eta errukitsu oratu dio ukalondoetatik. Belartzan jesarrarazi du.

-Nahikoa da zeuk sinesteagaz.

-Zeuk be besteak lez bardin! -Onofreren eskuetatik askatuz-. Umerik ez eukitearen erruduna neu naizela uste dozu zuk be. Esaistazu ba 'matxorra' zeuk be, esaistazu, bai!

Elizatzeak eskaintzen duen bakarraldeaz baliatzen gazte bikote bi agertu dira. «Xiii» egin dio Onofrek, ume txikiari legez, bere hanka sartzeaz konturatu den aldi berean emazteak orain arte jasan behar izan duena ausnartzen hasi bait da. «Matxorra». Gorrotoak uhin-haustek baino indartsuago egin dio hesteetan gora. Arrapaladan dabilkio odola.

-Barkatu -esan dio, izterretako kolore esnerkaraz mira eginda berriro ere-. Santuari debo-

zinoa deutzonak egin ezkeron nahikoa dala esan gura izan dot.

-Bardin da -gorputzean azogea duenaren moduan zutundu da, malkoek utzi dioten mintz bustiaren atzean dirdigarriago begiak-. Donianeri egin beharrekoa egin deutzagun eta, orain jaia da...

Duela hamar urteko San Juanetan eskutik lehenengoz oratu zuen Anita da hau, begien indarrak bizi duena. Onofre bera ere zutundu egin da. Bikote etorri berriek zirrika dihardutela ezkuta gura dute, alferrik. Sugeak iratzarturik dabil-tza sasoi honetan.

-...eta endemas bedarrak dagoz.

Elizatzoko aurre estuan dena da jai-sua orain. Aintzina gaztelua izan zenaren ekialdeko hormari teilatua gehitu eta hamaiketakoak egiteko leku bilakarazi dute. Beterik dago. Handik Onofreren eskuetara berez egin du bidea zahatoak. Adiskidetasun hutsa dahangoa. Anitari ere eskaini diote. «Kalterik ez deutzu egingo», Onofrek lehenagoko guztiak burutik uxa ditzan esan dio. Edoski egin behar izan du emazteak zahatoko muturretik.

-Ezetz halan edan? -zirikatu du paparrean eskegita txiribita eta txikori-bedarrez osaturiko idunekoa duen batek.

Zahatoa bekoki goian ipini, gerria atzez markurtu eta betartera isuri du ardaoa. Sudurreko malda biak ubide, gainezpainera lehenik eta er-tzetara gero, ardaozko errioak etorri zaizkio jar-rion aho barruraino. Teilapekoek txalo egin dute.

-Hori dok popea -ozen esan du baten batek, jaramonik egin gabe harmailetan behera jaisten hasteko izan direnean-. Eta topea be -barre egin dute biek.

Espartinak oinetan eta beherantz, «gozame-na» otu zaio Onofreri. Harmailadiari eusten dioten arku bien pean erromesak uretan dabiltzala eta, «goazen» esan dio Anitari. Men egin dio. Haitzik haitz itsasoak agerian utzi dituen potzuen aldera ailegatu dira.

-Berton -Anita jesarri egin da. Onofrek berak uhinak hausten direneko alderantz egin du.

-Itsasoko bitsa, bizitza -burura etorri zaiona esan dio. Barre egin du Anitak.

Onofrek biluzik ureztaldi bat non egin bila, haitzak berezko dituen zulo bien alderantz jo du, aurrean harro ageri zaion Akatx horretan ez egoteaz bekaizti. Karramarroen artean karramarro ikusten du bere burua, berba madarikatua bururatzeak zirgitik ere ez dagiola. Baten baten muskadak eragin ur-hotsa aditu du. «Ez hago baka-rik». Beste hori nor den sumatu ere egin gabe, burua azaleratu duenean zur eta lur geratu da.

-Luis!

-Fantasmen moduan agertuten haiz beti Onofre, neu natorren leku guztietara hator eta.

«Ba egon hadi hor trankil, ze fantasma honek hondokarrika akabatuko hau eta», aldarri artean tri-tra erantzi da Onofre. Must! egin du, kikunbehera, eta behingoan izan aspaldiko lagunaren ondoan.

Umetako poza etorri zaio berriro Onofreri Luisenera igeri hurreratzean. Uraren gaitasunek zentzumen guztietara hedarazi dizkiote arin eskuak. Begiak zabalik murgiltzen du burua kresalagatiko hazgura ere gozabide bait du. Itsasoak biluzik eta aratz datxekio larruazalari.

-Uger egiten ez haiz ba makala heu! -Luisek ura alboetarantz eragiten du esku biez, orekari eustearren-. Sarriago egin beharko geunkeazan halakoak, bai.

-Hemen badakik, umeen gauzarik ezin egin pertsona helduak. -Onofrek ez du gai sakonik nahi eta Luisen ezusteko batean eskuin eskua bekokian ezarriaz hondorantz sakatu du, sendo. Laguna han behean desagertu da, segundu batez, itolarrian gainazaltzeko laster.

-Ni beti lutoz ezta? -umoretsu esan dio, bien arteko adiskidetasuna hozteko atxakia izan zuten kanposantuko elkarrizketa, «Hi Onofre beti lutoz» esan zion artean lagun zuenak, gogora

eraginez, arnasa oztaka hartu ahal duen Luisi. Barre egin dute.

-Baina hondokarriak egitea be badaezpadako umore modua dok -diotso Luisek ez tul artean-. Jakin nijuan zelan lagundu heutsan Juaneri herri-tik alde egiten.

Oraingoan Onofre bera izan da itotzeko bi-dean egon dena. Adoreak huts egin dio. John In-gelesaren aipua txapelokerraren heriotza ekarri dio zagan burura.

-Eta? -esan dio, irtenbiderik gabe bere burua etsaiez inguraturik ikusten duen katuaren modu-ra, erpe egiteko prest. Luisen karkaxak desleku-turik utzi du. Igerian izurdeak baino trebeago egin dio ihes, janzkiak dituzten alderantz. Onofre hara ailegatu denerako Luisek aldean ditu prakak.

Laguna erdi jantzita eta bera erabat biluzik egoteaz gain gorantz begiratzera beharturik, zutik begira bait du han berak uretatik urtetzeko ahalegin traketsak egiten dituen bitartean, Ono-frek epaimahaiaren aurrean ikusi du bere burua.

-Mesede galanta egin heutsoan kausari -eguzkiak urezko garau apur batzuk baino ez

ditu utzi lurrun bihurtu gabe Luisen azalean. Alkandora pean gorde du enborra-. Guk bagenkian hik erantzungo heuana. Horregatik esan neutsoan Juaneri hire etxera joateko.

-Nire etxera? Zertan nirera? -Onofrek galde-tu baino protesta egin du estualdi harekikoan errudun agertu berri zaionari. Ondoezak, arren-gura uneak, odol-tentsioaren gorabeherak, itzar-turik loak hartu ezinik emandako gauak, hots, doi-doi paranoiko ez bilakatzeko sasoian enbar-kea eskatu eragin zioten gaitz guztien erruduna, nor eta Luis.

-Zergatik hire etxera, diok? -karta guztiak es-kura bildu eta azkenengoz banatzekotan den ga-railearen betetasunaz-. Hi ez haizelako ez salda ez okela, hau da, ez hintzan susmagarria, gerra egin barik hagoalako, andrea etxe onekoa dau-kakalako, heuk nahi dokenean azeria izaten da-kikalako, eta halako beste lako askogatik.

Atzamarrez buruko ileak atondu gura dituzte-la elkarri begira geratu dira biak. Luisek ume zi-rinaren barre tindia du eskegita ezpainertzetan, Onofreren adostasunezko barreari deika. «Nigaz haserre hintzalakoan egon nok ba». Luisen irri-

barrea begietara ere abaldu da. Anitak epa egin die bera dagoen lekutik orduan.

Hesteetako sugea ezeze birikialdeko karra-marroa ere nabari du, hareatza azpitik urten guran oinak arrastaka higitzen. Azken argitasun bat eskatu behar dio Luisi eta «Bakarrik etorri haiz ala?» itaundu dio.

-Ana! -beroni diosala egiteko eraz esan dio, oinak uretatik aterata oraintxe zutitu dela eta ikusi ahal izan bait du Onofreren emaztea-. Ez nozue ikusi ba, nogaz etorri naizen han autoan? Lagun koadrila ederra etorri gara, andra eta gizon.

«Ba denontzat txakolina nire kontura, goazen». Anitaren begietan irakurri ahal duen harri-durak diotso Onofreri bereetan ere ikarak uhara utzi duena. Txakolindegirako bidean abiatu dira hirurak, zaluago Luis, astun Anita. Onofrek orpotik oratu dio lagunari zubigainako harmaila ia bertikaletan.

-Beste inork daki? -Luisen ezezko erantzunak lasaitasuna ekarri dio.

-Beno, organizazioak diakik -Luisek pausu arinez ekinik txakolindegirako bideari. Trumilka

dabiltza inguruan erromesak, eguzkiak bere mailua astunen darabilen ordu honetan-. Baina badakik, alde horretatik ez diagok bildurrik. Fiuit!!!

Lusek txistu egin du eta Onofrek «hau berau be zoro-erromeri honetako beste zoro bat», bertatik otu zaio. Anitaren «ezer egin da ala?» artegatsuari «ezebez» sinestezin batez erantzun diolarik. Luisen lagun taldea andrazko bat eta gizonetzko bi dira, hirurak ezezagunak. Bere baitan Onofrek gizonetzkorik ez egotea itxaron izan du, ziur jakinik denak andrazkoak izanez gero ma haiko berriketan Lusekin zabal egiteko modua izango zuena. «Hau dok ba talde ederra!».

-Onofre Ruiz de Artxanda, Capitan de la Marina Mercante, titulado en Bristol, England -Onofreri gogor egiten zaio Luisen aldartera egokitzea berea- y su esposa Ana...

Emaztearen deitura esan orduko igarri du 'esposa' berbak gorantz eragin diola Anitaren harrotasun itsasoari.

Onofrek ez du aditu Luisen lagun enizenik. Ja kingurak barruak erretzen dizkiola dago eta trajedun gizonen nahiz paparra agerian dakarren

andre gazteak uhin-aparrak bezainbesteko ardu-
ra diote.

-Txakolinik bai? -galdetu du, haizeari bezala,
besteek ez bait diote erantzun.

-Luis, lagundu egidak basoak eta ekarten.

-Tira ba, txakolina. Vosotros esperad aquí, y
vereis que chacolí! -erdaraz Luisek, Onofreri agi-
raka moduan esan orduko-: Ze demontre habil
hi, lagunak dozak eta, emoidak astia, Anitak ez
jok horretariko bakarra be ezagututen.

-Anita ez dok galduko -txakolindegia-aren in-
guruko hariztian erromes multzoek arin-arina
darabilte oinetan, farra, panderua eta tronpeta
jotzen dituen jazbandak lagunduta. Arinago gura
dute dantzari-ek musikari-ek baino. «Beste inork,
nork daki makisa gurean egon zena?».

-Gobernu honek ez jok luzaroan aguantatuko
Onofre. A gizon! Txakolina eta sei edontzi -berba
garestia ekarri du ahora harro Luisek-. Beste go-
bernu bat diagok Parisen eta horrexek aginduko
jok laster hemen. Hik mesede galanta egin dok,
bai?, eta hori ez diagu ahaztuteko.

«Baina nortzu zaree zuek, osti halakoa»,
sutan dago Onofre. Luisek ez dio zuzen erantzun-

ten. Basoak eta botila hartuta lagunak utzi dituzten aldera jo du, jazbandaren musikari jarraituguran oinen atzera-aurreraz, bat-bi-hiru, bapirulau.

-El mejor txakoli del mundo. Zelan konponzen zara honekaz, Ana? Les molesta que hablemos vascuence? Es la costumbre. Un hermoso día, un pueblo que no muere. Salud!

Basoa gora altxata Luisek, txakolinaz opatu die osasuna guztiei. Onofrek xurrutada batean hustu du berea. Lasai egon gura du, Huxleyrena hurrun dagoela esan bere buruari, ahaztu izenekin ere. «Beste botela bat lagunok?». «Por supuesto», arrotzetariko baten batek erantzun du, eta oraingoan eurak joango direla. Halaxe geratu dira andrazko biek, lau lagun, binaka mahaiaren alde banatan. Anitak nahikoa du Patrizia -halaxe deritzala jakin du azkenean Onofrek- aurreragoko mezatan eman izan duen emakume eliz-zulo berbera munduko emakume bihur dadin, Sietefechas leidu eta radioko arratsaldeak entzunez jakintsua bera.

-Beste mesede bat eskatu behar deuat -Onofrek bidean gora datozen erromesei begira adi-

tzen ditu Luisen hitzak, aurpegira begiratzeko adorerik ezean-. Gaur gauekoagatik gure lagunetariko bik heure etxean lo egitea. Neskak eta begi ilunetakoak.

India begitandu zaio begiluna Onofreri, txakolin botela eskuan dakarrela ikusi duenean. Hobeto ikusi gura eta ezin, argi izpiak betazalez lotu nahi bailituen estutzen ditu bekainak berak. «Argentinarra!» egin du bere artean, erdaraz hitz egiten entzun dueneko, «aquí está el xacolí». Bere igarpenetan bete betean jo du.

-Onofre -Luis mesedea eskatzekotan denik ere ahaztuta-, hik hala begiratzen deutsoan hori eta beren laguna -paparra hain alai duen neskarri zuzenduz begirada- zuen etxean hartu behar dozuez gaur gauekoagatik, barrero be dinoat. Zer dinok?

Alferrik izan du Onofrek erantzun bila ahalegintzea, arinago egin bait dio keinukada Luisek; pilotan txapatik hurrean jokatu ohi duenaren ezusteko batez Anitari egin dio zuzen gonbitea, besteek ere entzuteko moduan.

-Gurean? Jakina baietz! Hantxe daukagu guk habitazinorik ederrena, ohe eta guzti, inor balia barik.

«Inor balia barik, jakina», Onofreri burura datorchio gela hori lehenengo umearentzakoa izango zelakoan atondu zutena. Etxeko ederrena da, ohea, armarioa eta mahaitxoa barruko zuloan egon eta gero beste zulo batere duelako libre, hain zuzen ere, berak pick-upa ipinita duen hori berori. Anitak zapaldu ere egin nahi ezduen aldea da, berak irratia bien gelan duen salatxoan euki eta umearen akordurik ez duelako nahi. Bada gau batez galdu egingo du bere azken idorokuntzaz gozatzea. 'Point counter point' nobelak aipamanetan irakurrita erosi duen Brahmsen Rapsodiak itxaron egin beharko du. «Eta gaurkoa baino ez bada, pozik».

Bigarren botila ere hustu dutela jakinarazi dio Anitak, dei egin «Ono», eta airea dantzaraziz. «Ono, ez joat besterik behar ba». Hirugarren botilaren bila altxatu da, Soilube atzean ostentzear den eguzkiak zuhaitzia eta harrizko badiarainoko malda-behera gerizpetan gera daitezen utziaz.

Txakolindegian mira eginda utzi du jazbandak. Oratuta dantza egitekoak jotzen dihardu. Eztitasunez gainezka, txakolinak emagura ekarri dio, musikaz melata.

-Onofre! Fiuiit! -dei eta txistu egin diote.

-Doroteo, zer egiten dok hemen ba? -txapela ezkerreko eskuan eta eme-esku bat eskuinekoan, Bilboko laguna da dei eta txistu egin diona. Eskuan duen eskuaren jabeari begiratu dio Onofrek. Egundaino ikusi duen neskari lirainena du alboan Doroteok. Zurbila, argala, gizona baino goragoko hankaluzea, gasazkoa dirudien gonaluzea eta zamarra estua soinean, buruan larruzko txanotxo du. Larruzkoa da Doroteoren jaka ere.

-Adela -aurkezpena egiten hasi da-, nire alter egoa, Onofre. Zer uste heuan ba, ni lako historiadore bat hona etorri barik geratu ahal zanik edo? Zer ikasi makina bat eta franko -barre egin du- dago hemen, kuttunok.

«Kuttunok!». Ironi jokoa ez ote den geratu da Onofre.

-Hi beti bardin. Mahai batean gagozak hor behean; jakanarrua jantzita etorri haiz ba, lehorreko marineru hori -Onofrek adiskide arteko

umekeriazko mendekuaren bila, neskaren edertasunagatik bilatua.

-Motorraz etorri gara, ezta Adela? -Adelak ez dio begirik kentzen beherago dantzan diharduen erromeriari, oinei ere eutsi ezinik, bera ere oskizolez behea jo eta jo; begi-keinuaz agindu dio «goazen», dantzara-. Hau baino ez: eskatu egiguk edateko zeozer, euk gura dokena.

Dantzari berri biei begira geratu da, ekarri dioten txakolin gorriari xurrutatatxo laburrak jotzen dizkion bitartean. Doroteoren buruko goikalde soildua doi-doi heltzen zaio neskari bekokira eta elkarren begietara egiteko berba, erromatar enperadoreen keinuaz behartzen du lepoa gizonak. «Enamoratuta diagozak», bera ere egon izan denekoez oroitu da. San Juan gaueko Maddalen eta Buenos Aireseko Marina, edo Malintxe. Adela honek ere arrenkuraz bete dizkio arimako behe-sotoak, gilatik hurreen dagozenak, eta ezin du zergatia igarri. Emetasun hutsagatik, ezin bideratu den barruko errekako ur ilunen batean jaiotzatik gorderik dugun isladaren berdina begien aurrean izatean, ur hori zorabio bilakatzen delako, akaso.

Jazbanda isildu egin da bapatean, deblauki, multzoaren ahotsei lagaturik inguratsa, bere osotasunean. Doroteok ez du utzi nahi Adelaren gerrikoaldea eskuetatik joan dakion. Neskak eskuin eskuko atzamar lodia goiko ezpainean duela, oinen punttan eutsiz eta lagunari emanda beste eskua, hango gehienek baino hobeto ikusten du norantz doazen begiradak. Eta berak ere arrapaladan ekin dio bertarantz. «Goazen» mutua egin dio bekokiko zimurren okerkada batez Doroteori.

Gonbidatuak eta Anita utzi dituen mahaira hurreratu eta Luis ez dagoenaz ohartzean Onofrek berak ere beherago jo du, aireak birinboloka dakartzan oihartzunetan «Itto» esaten aditzen duelarik.

-Nor itto da? -itaundu du.

-Ez dakigu -Anitak, Patriziak eskutik eusten diolarik-, Luisek ea ba lagundu ahal dauan joan da, ze autoa be hor behean daukan ezkerro, ba... -ez du amaitu.

Onofrek «Oraintxe nator» keinua egin eskuaz eta Gazteluatxe Munduari josten dion beso-zubira jo du, arineketan, Doroteo ere atzean darrai-

kiola. Erromes multzo bat borobilean bilduta dago. Lekua egin du Onofrek, ukalondokadez. Erdiraino sartu da. Hortxe dago Luis, apatx egin da behearen gainean luze datzan mahoizko baten buruaren gainean burua. Ahotik ahora arnasa ematen eta saihetsetako giltzan kolpeka dihardu. Aldi berean.

-Luis -legun egin dio Onofrek.

Lusek burua itzuli du. Agerian geratu da itota ei dagoenaren aurpegia. Ipuin edaslea. Doroteok besaburuetatik eutsi behar izan dio, jausi ez dadin.

-Zure ezaguna?

-Bai eta ez -ez du beste ezer esateko astirik izan.

-Egiok heuk, Onofre -Lusek ezin eutsi dio zereginari-, honetan zeozer dakian bakarra haiz. Dana dala ez diakiat ba hilda be ez ete dagoan.

Erabagior, zart ekin dio agindua betetzeari. «Kanpora, hala, kanpora», guztiei atzez egin eragin dien ahotsaz agindu du Onofre kapitainak. Lagunak ere harri utzi ditu une batez.

-Doroteo -dein egin dioenean alboan makurtu zaio berau, sorosteko prest-. Hik emoiok arnasa ahora nik bost esatean, bai?

Saihetsetako arkulua baino apur bat gorago ekin dio Onofrek itoaren bihotza abiarazteko surtara egurra ekarriz, «Mila ehun eta bat, mila ehun eta bi..»., bosta arte zenbatu eta «orain-txe» aldarri eginaz Doroteori, airea sar diezaion birikietako ifernu hoztuetara. Ifernu hotza, zeren lehenagoko ipuin kondalariaren masailetakoz ziza gorrikarak urdin bihurtu eta begietako zuringoetan azken mugetako jariora herio-mintz bilakatu behar bait zaio. Onofrek ekin egin dio.

-Hilda diagok -belarri ertzean aditu du diotsotela.

-Boosst! Arnasa Doroteo!!! -aldarri egin eta hurrengo kolpea jotzeko besoetan behera luzatu duen kemena miragarrirako bideratuz-. Autoa, Luis! -agindu du gaixoaren lehen okadek arnasa-bidea apur bat askatu duteneko.

Bostekoetan jo eta orduantxe arnaskada bat, halaxe egin dute aurrera, Luisen autoko argiek lekua eskatu duten arte. Erromesek ilara bi eratzuz egin diote bide. Onofrek lehenengoz kendu

ditu begiak itotzear izan denaren begietatik. Arrats erdi gorrituak ekarri ohi dituen hodei-lits urratuak lako zain-odolduak iragaziz, begietako herio-mintza bizi-kolore bilakatu zaio. Belauneta-ko giltzaduretan koipea falta bailuen jagi da kapitaina. Adelaren begietan kosk egingo luke. Beherago Anitarenak dagoz. Eta Indiorenak.

-Gaur ezagutu joat beste Onofre hori -esan dio Doroteok-, itsasoetako kazadorea.

Onofrek ez du aditu ere egin, eta aditu badu, ez du ulertu Doroteok esan diona. Luisek agintzen du orain.

-Hire andrea eta Patrizia gixajo honeri lagunduten etorriko dozak, atzean, eta aurrean beste lagun biak. -Ipuin edaslearen gorputzak ozta ozta hartzen du arnasa Onofreren agindupean diharduten morrosko bik autoan sartzen duten bitartean.

«Lasai joan, konponduko gaituk eta», Doroteok eta Adelak baietz egin behar dute hamaika bider, Anita baretu ezinik. Patriziak ekarri dio bakea. «Yo soy enfermera» esan dio. Autoak maniobra zaratatsuak egin ditu. Gaztelugatxeko la-karretaraino luzatu dira argi hageak eta, ostean,

autoaren bira berean itsasaldea bera eta, une batez, Akatx bakartia argiztatu dute. Jazbanda aditu da berriro ere. Tronpeta joleak 'When the saints go marching in' hari zarrastadaka desegin beharrean ekin dio.

«Oraindino txakolina geratzen jaku». Onofre edangura da. Lehengo mahaian hantxe dagoz boteila hutsak eta basoak. Txakolindegi inguruan dantzak bizitasun zoroa du. «Egizue dantzan», esan die, heriotzaren aurka egin duenaren itsasbeheran barruko urak, ekarri ere marraz harantzugo izan denaren bakea dakarkiolako, bare-bare.

-Hi burutik hago! Dantzan orain? Ikarea oraindino be dantzan diaukat hemen eskuturretan.

-Zer da ba ittotekotan izan den hori, beste askoren arteko bat, eta bizirik diagok ganera. Bera barik, gu barik, munduak bardin segituko jok, alaiago beharbada, ze espektakulu hau ez dok programan egon; zer kondatu eukiko juek gaurko Sanjuan egunaz. -Adelak eskuak luzatu dizkio.

-Egia. Nik neuk dantzan gura dot -Doroteori begiratu dio, maltzur-. Kapitaina, goazen!

Bera baino handiagoa dela, barre egin behar dietela, atxakiak izan dira. Ittotekotan izan denaren bihotza abiarazteak berari ere odol beroagoa ekarri dio zainetara. Dantza egin du, Doroteo han egoteaz gogaitu den arte.

-Joateko ordua be badok eta, hobe orain alde egitea gero baino, ze Bilborako bidean hi etxean itzi beharko haugu -Doroteorena jeloskeria dela susmatu du Onofrek-. Ipuinetako ha lez, okerreko emakumeagaz ezkondu hintzan hi, Onofre laguna.

Dantzarako neska kendu diolako lagun arteko zirikadaz hartu du Doroteoren kexa. «Ba hi ez hadi okertu, hau baino hoberik ez dok topako eta». Adela goragotik menperatzen dituen gizoni begiratu die, ironiaz.

-Hara hemen gure gurditxoa -Doroteok sidecar delako motorraren alboan-. Hi nire atzean eta Adela albokoan joango gaituk. Sasoi barriak, ganadu barriak -motorraren taiukerak Onofre-
rengan eragin duen ustebakoaz jakituan-. Hoztu

gingo haiz halan ezer barik. Ea zer dagoan hemen barruan.

Adela motorraren alboko arrautza modukoaren barruan sartu eta jesarri egin da, Doroteok eskaini dizkion eskunarruak jantzi dituenean. Narruzko txanoa sakonago sartu du. Durduzgarriago dago neska.

-Tira, zeozer topa joat -Doroteok txapel zarpail bat eskaini dio-. Neure atzean jesarri eta adi gero! Maniobra guztiak neuk egingo joadaz eta, hi hoa lasai.

Motorraren burrunbadak keinu mekaniko bana egin eragin die hirurei. Arrautza modukoak aurrean duen ispilupeko gakoari lotu dizkio eskuak Adela. Doroteok betaurrekoak jantzi ditu. Igelhandiaren begitzarrak iruditu zaizkio Onofreri. Aurreko argiak bazterrera jo arazten dien errones bakanen begiradek lagundurik urrundu dira, lizar eta miluen uda-usainen zainetan gasolio errearena utziz.

Motorraren atzealdean jesarrita izarrak ditu ezkerretara eta Adela eskuinaldean Onofrek. «Hartz Nagusiko atzeko izar biren arteko aldea bost bider, eta Iparra dok hori». Orratzen doibidea. Emakumeak ortzeko izarren eran agertu izan zaizkio bizitzan. Bakoitzak norabide bat, berea. Eta guztien artean irudi bakar bat eratu dute. Bere zeruko izar multzoa. Horretan non sartu beharko lukeen Adela, edo Patrizia bera, ez daki oraindio.

-Ikusten dozak izarrak, Onofre? -bere buru barruan sartu balitzaio ere ez zion hain zuzen igarriko gogoan darabilena Doroteok-. Nik beti amestu joat Hegoaldeko Gurutzea ikustea. Ede-
rreagoa dela jinoek.

Errepidazaleko zuloetan egiten dituen sartur-
tenetako takadek zulagaitzago egiten dute ketu-
tuak daragien abarrotsa. «Zer?». Hitz bat bai
bestea ez, lagunaren berriketako zatiak ausnar-
tu, logikaz josi eta tartetxo baten buruan lortu du
hala-hola aditzea. «Hegoaldekoa? Bertokoa

lakoia», sutondoan bero dagoenak itsasoa duela amets eta zero izartsuak dakarren herriminaz eridena etxeko behe-gaina estuaren irrikaz dago eta, «Ez daukaguna egiten joagu buruan eder». Hegoaldeko hemisferioan utzi zuen Marina datorrkio gogora. Grina hutsa izan ote zen ere ez daki Onofrek. Ez lehenago ez geroago ez da inoiz hain jabal, zamage, jarein, inoren besoetan izan. Ordukoan ez zen ausartu han geratzen. Damu izan behar ote duen ala ez, Adelari begiratzen dio erantzun bila. «Hori berori be izan jeitekean hire bihotzekoa, ala ez?». Itzulian oinez doazen erromesek aurre egiten diote motorraren argiari, aieruka, eta gero atzean geratzen dira, intziri egiten. Sanjuanak Aratuzte bat duela bere barruan, jai guztiak Aratuzte direla, inoizko argien ageri zaio.

-Hor daukak Poso Iluna, ipuin zaharreko laminen lekua. Horko kazadorea haiz hi, Onofre. -Matxitxako itsasargiaren ibilbidean oso-osorik sartu dira bide guztian lehenengoz-. Horko laminak ikusi ei juezan ba behin ehiztari gazte batek. Harez gero, zoratu eta ez jua besterik egiten bertora posu usinara etorri baino. Amak, bera be la-

mina izandakoa, kuttuna emon eutsoan, ikustezin egingo ebana ha aldean eroana, eta baita egin be!

Itsasargiaren eremutik kanpo, bidea oxkez jositako aldatz egiten den angelu batean sarturik doaz eta, burrunbadak belarrietatik bertatik ohostu dizkio azken hitzak Onofreri. «Zer esan eutson amak?», ezker eskuaz sendoago eutsi Doroteoren jakari eta bestea beronen belarrirainoko tututzat eratuz, behin eta berriro diotso, «Zer esan eutson amak?». Motorra aldatz behe-
ran sartu da berriro. Gasa urritu dio, zaratotsa ere kentzearren.

-Ene seme galanta! Bihotza ohostu deutsu horrek; inork jakitekotan neuk dakit, ze neu be osineko laminea izan nintzan. Ez dago zer eginik. Hartuizu kuttun hau, eroizu aldean eta ikustezin egingo zaitu. -Adelaren buruaren gainean zidarkara iragan da itsas-argiaren koroizarniakorra-; okerreko andreagaz ezkondu zara, berak galduko zaitu zu, eta zuk bera galduko dozu.

«Baina hori ipuina dok» esatean gura barik ere Doroteok igarri egin diola onetsi dio Onofre. Maddalen datorkio atzera ere gogora. «Zortzi

urte joan dozak», Sanjuan sutearen aurrean abarketa ondo ipintzeko geldi geratu zen harek ekarri zion Anita ere. Bietariko bat hautatu beharra izan zuen eta patuak egin zuen erabakia. «Maddalen gaixorik dago, betirako», Anitak halaxe esan ote zion ere ez du dagoeneko hain argi. Anitarekin ezkontzeko bezperetan zirela, Maddalen kalean ikusi zuen. Aratuzteak ziren. Azalpenak, zuribideak, atxakiak, alferrik izan ziren. Ezkondu egin zen, «eta kittu».

-Eta hik ipuinak bizirik geratu, zer dala eta egiten direala uste dok ba? -Doroteok airean geratu den haria ekarri du berriro; urrunean luzea izan behar den itsasuntzi baten argiak «Txopakoa, ababorreko berdea, brankakoa» oharkabean errepasatzen dituzte bere begiek-. Ipuinetan, gu nagusiontzako diran ipuinetan, beti zeozer, erara esanda zein iruntzitarra esanda, egia dalako, lagun, egia! Hi ehiztaria izan heintekean, tak ikusi joat hori. Baina ezkondu egin hintzan, eta ez ondo. Eta akabo!

-Eta hi heu? -Onofrek ezkerretara soraio jesarrita duen Adelari so eginez diotso, alarau batean. Doroteoren igelhandi begitzarrak alboz

ikusi ditu, itsasalderantz bihurtu bait du burua, neskak ez entzutearren edo.

-Ni oraindio ez nok ezkondu, eta igual egin be ez nok egingo! Ze ipuinaren bigarren partea ez dok ondo aditu hire barruan. Guretzat, entzun ondo, guretzat emakumeak -gasa askatu du Dorroteok, ez daki Onofrek ondo, aborrotsa areagotuz Adelaren belarrietara ailega ez dadin ahotsa, ala esan behar duenak eragiten dion erretura motorra kiskalduz legundu nahi duelako-, emakume guztiak, laminak dozak Onofre, la-mi-nak. Ez joaguz inoiz adituko, eurekin biziko gaituk, gila izango dozak gure barkuan, eurak euren artean egingo juek dantzan, eta gu, zer? Gu, kaka-zaharra!

Duela zortzi urteko Sanjuan gaua, «edo bederatzi urte ote dozak ba?», laminek osinaren inguruan egiten omen zutena berbera, Anitak, Mad-delenek eta berak, hirurek, suaren borobilean egin zuten berbera begitandu zaio bapatean Onofreri. «Noizean behin laminen artean galtzen joaguz begiak, eta begiekaz beste guztia» Euren dantzetan parte hartzen uzten dietela gizonez-koei, leku sagaratuetan. Adelaren gerrialdea,

txakolindegian dantzan izan direnean, laminaren hats-indar-eremuan sartzea izan da. «Burutik hago Onofre». Sanjuan egunek burua harrapatzen diotela erabaki du.

-Eta, beitu, kazadorearen ama, bera be lamina izan zuan. -Onofre ikaratu egin da, motorrak ziba-ipurdikada bat jotzean-. Trankil, alboko arrautzeagaz ezin jok bidetik urten.

«Eta?», Onofrek herrian sartu direla eta, lagunak ez duela han hitzik egin gura igarri gabe itaundu du, artegatsu, bere buruarekin haserre eta eguna madarikatzen. Berrito errepidean egon arte itxaron behar izan du eta Doroteok ekin dionerako Adelaren buruari begira galduta begiak, halaxe harrapatu du.

-Barkatu.

-Egon trankil, gizona! -igelhandi betaurrekoen azpiraino ailegatu zaizkio barregurazko zimurdurak Doroteori-. Andrak, laminak gu harrapatzeko leku saragatueta, egun sagaratueta eta dantza sagaratueta agertuten dozak. Gu ostera, zibilizatuak gaituk, makinak gura joaguz -motorrari abiadaxoa sartu dio, hitzak indartu gura bailituen- eta egun eta leku sagaratueta ager-

tu eta lotuta geratzen gaituk, betirako. Lamina beti lamina izango dalakoan. Baina lamina zibilizatu egiten dok, andra izan gura jok, ezkondu, umeak egin, lamina izan danik ahaztu.

«Eta guk ostera lamina gura joagu». Bete betean igarri duelako keinua egin dio buruaz Doroteok, motorrari abiadura geldo eta hitsa eman dion eran. «Eta eliza, zer da saltsa honetan?». Aizkorakada izan da Onofreren zat berarentzat ere buruan leku egin dion galdera berau.

Doroteok ez dio erantzun. Atzean utzi dituzte presoan etxola luzengak lehenik eta herri-kanpoko txaletak ondoren. Kale nagusian sartu dira. Ikaztegietan argia piztuta dago oraindik. Herriko jaiak hortxe dagozela igartzen da. Eurok arnasteko moduan egon ere. Doroteok ez du motorretik behera jaisteko zirkinik ere egin. «Ikusiko gaituk ba», motorraren arnasketa pal-palean eta berea erreboluzioz lar joanda igartzen ditu. «Ez diakiat ba», erantzun dio Doroteok. «Ez dakiala? Zer ba?». Adelaren ezpainetan bilatu du erantzuna, giltzitzat berak bailuen. «Kasurik be ez», neskek lepoa luzatu eta saman musu eman dio. Goiezpaina landare-ernamuinaren antzera, hara-

gi mamitsu nabaritu du eta laztan eme horretan jakin du neskaren mezua, «neba, pasiño handi batek lotu nau gizon honen besora». Gasa askatu du Doroteok.

-Neuk be mundura gura joat. Itto egiten nok leku estu honetan hilarterakoan sartuta -Ikazte-gietako atea zabaldu eta barruko bizi-hots sarria heldu zaie, tabako keez eta pattarrez garramaturik-. Hurrengo ez diakiat dendan ala Hegoaldeko Gurutzeari begira ikusiko ote noken.

Adelaren azken agurraren begira gelditu da motorra kaleko elektrargiek eraturiko eremu horriskatik kanpo izan arte. Ez da keinurik egon. Chester bat atera eta astiro iziotu du. Gauak oihartzuna bere baitan lurperatu arte itxaron du hantxe erretzen.

Ate-barreneko zirrikitutik argi-xafla mehe batek egiten du ihes. «Baten bat itzartuta». Giltza sartu baino ez eta barrutik iregi diote. «Gabon», atean ageri izan denak euskaraz egin dio. Zurtuta geratu da Onofre. «Zuk ez dozu jakin euskeraz lehen», eta han geratzekoak ez ote diren besteak izan, Patrizia eta 'indioa'. Dabitu egin da hitza erabiltzeagatik.

-Azken momentuan ez dok ondo topa; Patriziaren laguntza behar dauala eta Luisen etxera egin jok Cristinok.

«Indioa izateko izen ezin egokiagoa», bere artean mamurtu du Onofrek, ateari kisketa sartu eta aurrean duen gihartsuaren aztekerketa egin bitartean.

-Eta ittotakoa, zer?

-Zuzpertz jok. Ni, zera, Andoni nok, edo Anton. Bietara -airean geratu den galderari erantzunez esan du-. Bahator?

Gau batekoagatik berea den gelara gonbidatu du arrotzak Onofre beronen etxean, erabaki-

tsu, etxeko jabea bailitzan bera. «Honek aginduten diakik», susmo txar bat leku eske dabilkio golkoan.

-Gizon ikasia haiz -armairutik ateratako ohetxo luze dago leihopean, izara eta guzti lotarako prest. Mahaian 'Point counter point' bere laguna dago, begiratzen ari izan denaren seinale-; ingelesez dakik, bazterrak ikasita hago... -amaitu barik utzi du esatekoa. Onofrek chester bat eskaini dio sofan jesartzeko keinuaz batera.

-Ez joat erreten.

«Hire zereginagatik», dena dakienaren ziurtasunaz erantzun dio, lehen kee-puzkada goiko bonbilari eskainiaz. «Hi be Luisen beste lagun bat». Antonek ez ulertua egin dio, benetan zeren gainean hitz egiten ote dioten ez dakienaren planta betean.

-Leiduta daukak nobela hori ala?

-Hemengo erderaz; Mexicoko edizioan.

-Méjico!

Zutitu eta boteilak gordetzen dituen ateari giltza kendu dio. Barruko argi automatikoak Onofreren barratxoak erakutsi du.

-Ez dok edaten, ezta?

-Ez -Andonik besoa luzatu dio eskaintzen dioten kopa borobila hartzeko-. Hik lehenago esan doken moduan, nire zereginagatik ez joat edaten, gaurkoan egin egingo badot be -kopa polito bete dio Onofrek-. Enciclopedia de la Mar, liburu sorta interesgarria. Astia behar jok pertsoniak hau guztiau leiduntako.

«Barkatu». Onofre bere kopa utzirik pick-upera hurreratu da. «Musika apur bat», atal beltza ardatzean ipini eta besoari tak egin dio, aurrera. Rapsodiaren lehen nota tragikoak aditu eta berriro ekin dio, «eta zer deritzok nobelari?».

-Tamalez horko guztia horma itzel bateko bestaldean geratu dan mundua dok -berriketa luzeetara eginda dagoela erakusten duen berbararioan-, horko pertsonaiak munduaz hitz egiten juek, teoria politikoak lupaz begiratu, zientziak dioana aditu, munduaren norakoa ulertu guran edo. Kuestio mordoa. Mordoa, bai, eta alferrekoa. Berrogeitik gora miloi gizakume munduazaletik kendu dituan gerra bat egon dok; ez dok barria kontua, ez. Gauza bakarria diagok ostera barria dana, zera, intelektualak eta artistak, eskribitzaileak eta, Munduko gerrea bigarrenez etorri

behar zala igarri eben arren, ez jakeela jaramonik egin. Ba, egin egin behar joagu, egin! Eta horretarako behar diran liburu guztiak eta bost aspaldi eginda diagozak.

Pick-upean kontraltoak koruaren ahotsak idoro ditu zorionezko ibilbide airos eta barean. Susmoa ziurtasun egin zaio Onofreri. Anton ere politika gorabeherak gaitik du hor orain. Ikaratu egin da. Eta ikararekin batera bere burua gorrotarazten dion beste bihozkada batek jo du. «Gizon hau librea dok» pentsatu eta «non gertzen dira liburuko pertsonajeez daukezan prolemak, larrua, umeak, handigura, gorrotoa» urten dio ozen. Rapsodiako ahotsa, Helen Watts-ena, gauarekin berdindu da. Isiltasun egin berriak argia itzaltzea eragin dio Onofreri. Kaletik ahots hordituak datozkie, udaz eta grinaz eri.

-Apu bat galtzeko bildur danak, dana galtzen jok sarritan. Larrua diok, bai, baina zer dok hori, hik daukaan zeozer ala heu preso haukan katea? Ganera -xurrutadatxo legun bat jotzeko astia hartuz-, ez joagu guk elejiduten, bizitzak berak elejiduten gajaituk. Etxeko lau hormek tragatu egingo nindukiek. Hemen ez banengo,

beste edonon egonda be ez nintzatekek baketan izango, eta hemen be, beste alde batetik ez najagok baketan baina, librea nok, ze, bietako zeinguratan egoteko era izanik hemengo hau hartu joat; etxean geratu izan banintz ostera, koldarkeriaz izan zala susmatuko nijuan betiko. Zalan-tzak ez nindukean bizitzen itziko. Gabon.

Onofrek Anton ohean janzki eta guzti zelan etzan den ikusi du eta gizon haren bihotzeko lau zuloetan gau eta egun dirakiten galdara itzelak dagozela otu zaio. «Horretan antzekoak gaituk». Ezkongelan sartu da, katua baino emeago. Argi izpi batek labain-ahoa baino meheagoaden argiune luzengatxoa du eraturik, horma erditik behera trabeska. Errainua ezabatzearren kanpo-leiho estuago hersteke ahalegin isila egin du gizonak eta gurabakoan argitasuna oherantz birarazi du, mirariz sorturiko itsas-argia bailitzan. Ohegaina osorik igaro du, hango erropetako uhinak lipar batez argizatuz. Oheburuan Anitaren adatsa idoro du argitasun ezkikarak. Putz egin eta hoska ahoz gora geratu da Anita, loaren zuloerik zuloenean.

Begiak itxita beste bat da Ana. «Umea». Ohean sartzeko izera tindi bat erretiratzean agerian geratu zaio haren paparra. «Zer da hau be?», loarropak agirian uzten duen bularralde haragitsuan dintzilizkakoa du. Sokatxo zuriska eta posta-tinbre arruntaren taiukerako oihal zati-txoa non Donianeren buru bizartsua brodaturik ageri den. «Kuttuna!».

«Ze-e-er?». Loaren zulotik erabat argitara etorri barik, beste alderantz egin du burua, loa ebagi gura dion argi-aiztoari lepo emanaz.

Garondotik paparreraino samaren inguruan nasai datzan perlatxozko idunekoari begira dago Onofre, jakinik arropa azularen azpian, bitxiak agirian osatzen duten uztai luzengaren antzekoa eratuz, santuari eskainitako arrenezko kuttuna duela Anitak. Berak baino ez daki hala denik eta Kasinoan eguerdi eder honetan mahaikide dituen gainerako guztiek ere zeinek bere golkora-ko zenbat eta zelako segetuak gorde bide dituzten itauntzen dio bere buruari. Luisek, esate baterako, alboan jesarrita duen emazteari, Juliana esaten dio behin eta berriro, esan ote dio inoiz «Laster gobernu berria egongo jona», egin dizkion lau umeei negarraldi artean uzten dizkioten tarteetariko batean behintzat. «Ez jok emoten», buruan dantzan darabilen pamielan igar dezake Onofrek, beso potoloak nahikoa ez balira ere, urtean behin senarrak Kasinoko bazkarira ekarten duen etxeakoandrea, ilunetan amorante gero eta aspergarriago bilakatuz suhiltzen dena bera.

«Anita askoz be hobeto diagok». Umerik egin ez duelako, hurrean. Neska ematen du Juliana-ren alboan, bere aurre-aurrean, jesarrita duen Patriziaren aldean ere zaharragoa denik ez litzateke erraz esango. Onofrek badaki Patrizia hau erizaina inondik inora ez dena. Estalki hutsa da.

-Enpagugarria atzoko gaztea, zer zan bera ba! -ipuin edaslea alboan eroan beharra izan zuelako kexaz-. Harek ardo gehiago eroan barruan itsasoko urik baino. Luisen autoa basituta itzi eban beran gomitoakaz.

-Tira ba! Ez da mahairako gai egokia -moztu du Luisek-. Dana dala gazte hori benetan euskalduna da, behargina eta esanekoa. Vosotros me entendeis.

Erdarara jo du, Antonek eta Cristinok euskaraz ez dakitelako itxurak egiten segi dezaten, ala egun handietan Luisek eleganteago deritzolako hizkuntza kultuari, batek daki. Zerbitzariak mahai gainean utzi du sopaontzi ederra ke batean. Cristino harritu egin da. «Bero honekin!». Sopak eta beroak ez dutela elkarrekin zerikusirik, aurreko gauekoaren ajea arintzeko baino ez dela, guzti hau azaldu beharrak errotik sinesta-

razi dio Onofreri India egiako india dena. «Laster etorriko dozak hotzak be», Antonek zerbitzari iharduteko burduntzalia artatsu hartu eta platerak eskatzeari ekinaz, «lehenengo eta behin ama danari; Juliana, mesedez».

Sutan ditu emazteak papuak, keak zuzenean bertan jotzen duelako barik astiro baina taigabe urteotan hartzen eta hartzen ari den kiloen lotsaz. «Ahal dana izan baino ez da ama». Bekaizkeriak ziztada mingarria jo beharra eragin dio. «Aberriak behar dauz umeak, baina umerik ez dauanak be beste bide batzuk daukaz», Luisek legundu egin gura izan du emazteak Anitari etoikeriaz jo dion ukabilkadaren mina. «Batzuk horretarako baino beste ezertako ez dabe balio», Anitak bere esku hartu du erasoari aurre egitea.

-Artearen historian, gurean bertan, Seindun Andra Mari ederrak pintatu izan dira, zuhaitzeta-ko gerizpetan eder direan emakumeak be pindatu izan direan era berean. Inork dudatan ipiniko leuke baten balioa besteeri begiratzearren? Sagarondo eukitsuak eder beti, eta egun gitxi batzutan loretan; larrosa luzaroan, baina sagarrik ez. Baratza bakarra da, halan eta guztiz be. Ana,

mesedez? -platera eskatu dio-. Zeinek bere edertasuna landare guztiek.

Lusek hamaika segetu gorde bide ditu bere golkoan, Anitak platera luzatu eran eder eta bete eskaintzen duen ditiale horretan tinko dituelarik begiak, atzo goizeko aurkikuntzara joan zaio gogo. Anitaren hitzak ermitan, Luisen aitortpena makiaz, Doroteo eta Adela han agertzeak, Antonen gogoetak eta, azkenik, kuttuna Anitaren saman. Logura ekarri ohi dion zamariak artegatasun zehaztezina baino ez zion ekarri bart, gairik gai burua txakur deslaien modura ibilte ero bat. Arrenkuraren alde ilunetako usin sakonetan erromes ihardun du gau osoan, halako egonezin mingots batez, non oilarraren adar zorrotzak belarriak zulatzean jabaldu ere egin den. Barruan egindako zorne guztia oilarrek ireki dizkioten alegiazko zuloetan joan bailitzaion. Ordu gutxi lehenago Anton lo utzi zuen salara joan eta haren gauzetan kuxkuxean hasi gura izan du. Ez du askotarako astirik izan. Anton bera ere lokukuak egiten ohitua denaz ohartu da, no-or-da-a-a? aharrausiz esan eta batera besoak luzatu ditu, begiak zabaldu barik artean.

«Neu», Onofrek Antonen jaka antzeman du ate alboko gakoan eskegita, «Kafea gura dokenentz etorri nok» esan eta ezin ekidin izan dio barruan begiratzeari. «Ba, bai; ze ordu da ja?». «Sei t'erdiak». Beltz eta fin, ispilu ilun irudi, pistola ipurdia ikusi du. «Nahikoa». Ixi joan da suetera.

Antoni kafea bero mahaian utzita Luisenera joan da zuzenean, sutan bihotz-galdara, odole-tan begiak. «Hain goiz be nor ote da ba?» entzun du erantzuten diola Julianak bere aldabakadari. «Alfer hori ez dok goiz altxako ba bera», oldozmena suge-pozoinez satsatu zaio. «Goiz habil» esan dio lagunak agurtzako balkoitik. «Erdu behera!» aginduan bitakora kahierrean ia bi mila egunetako gorabeherak ohartarazi behar izan di-tuenaren irmotasunaz.

Portura jo dute zuzenean murtik egin barik biek. Moila puntan ikusi behar izan du bere burua Onofrek, zakar esan diezaion Luisi, «Bigarrenez egin deustak trikimailua, kabroi halakoa». «Ze trikimailu?». Berak ere sinesbaga erantzun dio, «Tira! horrenbesterako be ez dok eta» diola ulertu beharreko eran.

«Ez dok bildurtia naizela, gezurren bidez jokatu dokela baino» esan ahala berak ere sinesten ote dituen ez dakiela jaurti ditu hitzak. Chester bat piztu du, Luisek bere 'artabizarrak' nahastu dituen bitartean. Itsasadarrean behera mamuen untzia bezala datorren goiz-lainoari eskaini dizkiote keak, nork lehenago berba egingoko atezuan.

-Hori Anton hori euskalduna dok, bat; pistola diarabilk, bi; eta ez dok urun zuria, hiru.

-Gogora diatortak kanposantoan izan gineneko eguna, hi itotakoen ganeko ipuinak kontetan eta ni heuri entzuten, ze ni ez nok hemen herrian jaionekoa baina, hatz guztiz be, bertokoa egin nok, umeak eta andrea bertokoak diaukadaz -Luisek buruz polito ikasitako berba purrustada askatu du, kaioek euren karrankotsezko kontrapuntuaz efektukeria areagotuz.

-Eta dirua be berton egiten dok -Onofrek zatar etenarazi dio jarioa-. Diru barik ez diagok aberririk -arin ibili da hormara egin dion dejada altxatzen-. Baina hil, beste batzuk egiten dozak -Antonon pistola gogoan, atze atzera jaurti dio

pilota, kuiseraino. Arnasa barik geratu da Luis pilota zelan altxako ahaleginean.

-Lau semealaba eta jagon behar joadaz -lehengora etorri da-, eta hemen be gartzelak dia-gozak, polito beteta ganera.

-Hi ez habe eroango, lagunak daukazak eta -Onofrek ondo gogoan duelarik Luisek Udaletxean zein erraz egiten dituen sarturtenak, eta etxeak altxatzeko behar direnak han ez dizkiotela sekula ere ukatu, itxuraz-. Ganera, erremetatzen nauana ez dok inor gordetea, zuzen eta artez barik gezurren bidez etortea baino.

Onofrek sinestu egin gura du berak ere hala-xe dena, artez eta zintzo jokatzuz gero laguntza eskainiko liokeela kausari, orain aurrean mahai-buru egiten diharduen Anton edo Andoni horren begietan dizdira berri bat ikusten duelako; iretargiaren islada zidarkara gauerdiz itsasazalean laban. Patriziari begiratzean aldiz, zilar-islada iusturi egiten da. «Enamoratuen minak», Onofrek bere kautarako bihozside egin ditu biak, Luisen zurikeriak sinestu baga.

-Eguerdian bazkaria diaukagu Kasinoan, kan-poko hiru lagunak, emazteak eta bostok; egidak

etortea mesede -eta ezezkoa alde zurretik ezinezko egin diola ziurtatuz-. Anita esanda diagok. Zuekin zazpi izango gaituk.

«Zazpiak bat» motela egin du Cristinok itsaskiari laguntzeko atera duten ardo zuriaz opatuz. Horren segetua falta du jakiten Onofrek eta ez da Luis izango halakorik argituko dionik. «Joan egingo nok, baina azkena dok», esan dionean portuan Luisi beronek ere argi utzi dio bigarren ez eten dela euren arteko adiskidetasuna, inoiz halakorik izan bada, zeren erantzutean, «biok be lasaiago biziko gaituk holan», ezkutuan egon den gorroto baten izpia igarri bait du.

-Atzo ez dozue esan ba horrek ez dakiala euskeraz? -Anitak adierazi du ozen Onofreren garunean ibili dena. Maiestetez egin du gora bere basoa, agirian utziaz beso luzengatik eta eskumutur zaintsua, gizon-irriken sendagarri. Perlatxoeko iduna tema bihurtu zaiolarik, haraxe begira du Onofre, jakin barik emazteak kuttun ikustezinak eragiten dion eldarnioak jota begiratzen diola hala, soinekoa eta azala bera ere erauzi beharrean begien indarrez.

-Zeozter daki. Panpa aldean, bera bertakoa da eta, hemengo fraide napar bat ezagutu eban.

-Naparra bada zelan esan dozu hemengoa? -Anitak bere burua nabarmendu du eta Antonek azalpenen haria utzirik Luisi begiratu dio, «Honek be nondik urten dau ba?» mutu itaunduz.

-Hemengoa esatean euskaraz egin ebana zala esan gura dot, bai?, eta haregaz ikasi eban zer edo zer gure Cristinok euskeraz.

Cristinoren betertzak poz-zimurrez tolestu dira, gomuten ganbarara argia etorri zaionaren moduan, hau da, behiola ume izan eta oraindio ume hori barruan akatu ez duenaren errugabeaieruaz. Gehienetan erdaraz, euskaraz ere lantzean berba batzuk, fraidearen ordenaren berri emateari ekin dio, «Kaputxinoa», bere okotz garbian hasita zilborrerainoko bizar luzea duelako plantak eginez. «Horrek diabilk poza», Onofrek ondo ezagutzen duelako poz hori, apurrarekin bizi direnen artekoa, munduko portuetan eskean zein ohostuten, «Gauza bera dozak biak», bizi-modua ateratzen goizero hasi beharra dutenena. Txipiroiak ekarri dituzte eta hortxe isildu da Cris-

tino, halako eran non beste guztiak ere isildurik berari adi geratu diren.

-Yateko belza? -esan du, nafar kaputxinoaren oihartzuna izan den ahotsaz. Luisek harro hartu du hizpidea, euskaldunak munduan horretan ere leku egiten jakin duela esateko.

-Fraidearen hitzetan, era askotara egin du bidea eta lekua munduan euskaldunak -txipiroiei zelan ekin ez dakiela, sardeska ala goilarea zein hartu dudatan-. Gautxoen artean ere -Anitak gerritik gora aupatuz gorputza sardeska eman dio eskura, Cristino begiak eskerrak eman guran zabalagotzen saiatu zaiolarik-. Hobeto esanda, gure fraidearen iritziz, Gautxorik gehienak hasiera batean euskaldunak izan ziren, horren lekuko geratu delarik haien hizkera, euskal berbez josia, gautxoaren poema den...

-Geldi hor -Patriziak ere erdaraz moztu dio, ezti bezain erabagitsu-. Nahikoa da, bai, honenbeste goratu euskerea -halaxe ebaki du hitza-, zeren hain gora igaro dugu non inork ere erabiltzen ez duen.

Onofrek sendotu egin du bere ustea, «Hori ez dok enfermerea. Eta izatekotan be, beste horre-

na», bertatik josi dio lehengo gogoetari, airean gurutzatu diren begiradetan Antonek eta Patriziak elkar igurtzi dute eta. Luisek baketu egin gura izan du, mahai-zokondoan emazteak Patriziari etorria bekaizten diolako, edo euskararen gaineko ipuinak atsegin dituelako, Onofrek bien artean hautatu beharrean bigarrena baztertu eta lehenari eritzi dio zuzena. «Txipiroi ederra dok berau, tintea jaurti eta atzez egin; emaztea zemaizta ikusi dauaneko, tak!, tintea».

-...Gautxoen poema nagusia, Martin Fierro, hori euskaraz egiten dihardu azken hamabost urteotan. Neuk ikusi ditut paperak, areago, gautxoerazko testua neuk eman, azaldu eta argitu egiten izan diot, han egon naizen bitartean.

«Eta gautxo berba hori gautxoritik dator, ezta?», Onofreri mingostu egin zaio barrua, eta mendekua Cristinoren aurka jokatu beharko bailuen bota du. Ziririk ere ez du egin Cristinoren aurpegiak, agian indioa den aldetik iraindua izaten ekandua ondo hartuta duelako, edo berak ere gorroto duelako Onofre. «Indioen begietan ez diagok jakiterik», bere artean egin eta zerbitzariari bazkalburukoak ekarteko keinua egin dio

kapitainak. Kapitaina, hantxe dago Genaro ere, beste kapitaina, Inspektore egin dutenetik hona sarriago lehorrean itsasoan baino. «Komeni zaiok Genarori berba egitea», halaxe esan dio goizeon Luisek moilan, haserretu ostean ere al-kondara-eskumuturrean beste karta bat gordeta duela erakutsi orduko.

-Zer uste dok hik egin zala Askadaz -Onofrek John Ingelesak eroan zuen itsasuntziaz, berak maneia irakatsi zionaz, ezer ere jakin gura izan ez duela eta portuan ikusten izan badu ere inoiz inori galdatzen ausartu ez dena-. Ba, jakik, hi! Neuk ekarri nijuan barrero herrira, eta neuk esan neutsoan jabeari radiyoz abisua emanda egon zala, barku bat gobernu barik itsasoan, eta geu joan ginala bila, Genaro eta biok, eta Genarok ez juan ezer preguntatu, nork ekarri dau hau hona edo, zer da hau edo, e-ze-bez.

Onofrek epa egin dio eskuaz Genarori eta barkamena eskatu behar izan dio kamareroari, berari bigarrenez zertan deitu dion, «Bidean etorri naiz eta». «Genarori izan da, barkatu». «Zer gura dozue postretzako?», Cristinori haria eten dio.

«Si no lo cree usted, tenga», Cristinok ardilarruzko koadernotxoa luzatu dio, Hiri Sakratuko zazpi ateen planoa ematen duen Enperadorearen benaz.

‘Matxin Burdin’, dio azalean landare-txortenen itxura egiten duten letrez. Poemaren hasierako lehenengo bi zatiak dagoz eskuz idatzirik, erdarazkoa ezkerrean, euskarazko aldakia eskuintean, eta ohar andanak ertz eta atzealdeetan. «‘Gautxo’, de su genuina ‘uguartxo’, corderito repudiado por la madre». Behin bere artean irakurrita, bigarreanean ozen esateko irrikak gainez egin dio.

-Eta zertan ez gautxori berbatik etorri gautxo? Azken baten ez dozak ba biak ilunetan argi ibiltekoak? -Luisek barre eginez esan du, bazkalburutzat ekarri dioten kafeari kafeosterako eiden pattar xurrutadatxoa isuri artean.

Onofrek must egin du berriro poeman, Cristinoren begiek kokotaren gainean dituela jakinik. ‘Bagual’, bagoalakoa, animal que pasta la bellota; ‘yerra’, el verbo era no anda lejos; ‘cancleta’, diminutivo de txanka, piernita flacucha, mujercita. Liburuxkari kendu begiak eta Cristinori artez

begiratu dio. Honen irribarre meheak burua beste alderantz itzularazi dio. Antonek hiru emakumeen artean egina du lekua. «Ez jok horrek aparra galtzen». Zorioneko fraideari ahaztu egin zaiola kartetako txanka aipatzea esan gura izan dio Cristinori. 'Zetako?'. 'Aguaitando' hitzak 'guita' ekarri dio, Buenos Airesko hizkera lunfar-doaz 'dirua' esan nahi duena.

-Estuviste en Buenos Aires -bertatik esan dio, buru batek berriro ere aurea hartu bait dio besteari Onofreren barruko lehian. Cristinok liburuari zer deritzon itauna eman dio erantzuntzat.

-Ederra! Lo entiendes no? -lausenguz zuritu guran lehen zakarkeria.

-Ez naiz hain ergela -erdaraz erantzun dio, «bai» euskaraz esan eta isildu egin delarik. Onofrek Anitaren alderantz begiratu du, Kasinoko zarata eta jende nahastean ere esan behar dituen hitzak Cristino eta bien arteko eremu estutik hara irten litezen beldur bailitzan. Anitak Antonen besoan ditu eskuak, ezer ez delakoan, eta Patriziak, zigarrotxoa ahoan, ohituarena egiten du. «Euskal Echean egonda hagoa?», ozenago hitz egitean airean datzakeen mina lehegarriren

bat zapaldu eta ahotsak han lehertarazi ahal dukeelako. «Bai».

Onofrek dei egin dio zerbitzariari. Hantxe segitzen du Genarok, «Alkatea noiz etorriko diagok hori», argoi eta handigureneko, ahoaren beraren luzagarri darabilen puro eternoari tenka. «Ekarri egiguzuz Napoleon bi, eta Genarori berak gura dauan puroa». «Montecristo». «Ba berori». «Neu be egonda nago hor, Llavalloen», Cristinok zer erantzungo geratu da.

-Egon nintzen azkenengoan burdinazko atea konpontzen ziharduten. Etxea sortu zeneko berrogeita hamargarren urtea bete da aurten, apirilean. Dantzariak, diskurtsoak, alkatea, aberatsak eta tripakada ederra -mindura kutsu garraz bat nabari da Cristinoren hitzetan.

-Bazkaria, badakik, euskaldunago egiten gaituena -Onofrek bere makartasuna dela eta jasan behar izaten dituenengatiko mendekuaren bila moduan esan dio-. Hantxe egon nintzen ba.

-Bazkaltiar? -bihotzean barku-helizeak dituela dabilkio odola. Cristinok begi arteko zirrikitutik zomorro bati egingo liokeen moduan egin dio, betazal eta betazpien arteko indio-zirrikituetik.

«Kamarero, zerbitzari». «Hara!» esan eta berri-keta zelan albaindu igarri ezinik geratu da.

-Asko izango zinateen ba zerbitzari.

-Jaten beste ia.

-Hango ugazabaren alaba, Marina...

-Malintxe ere deritzana -ez dio amaitzeko be-tarik utzi Cristinok.

-Bera.

-Ederra horrena ere.

-Zer? -Napoleonak dakarren kemenaz eskatu behar dio odolari zainak ez hondatzeko bere abiaduraz eta beroaz.

-Gure amaren suerte berbera izan du horrek ere -berak ere Napoleonen adorea bilatu du pa-ttarrean; erdaratik euskarara etorri eta berriro-. Sasiko hitzak esan nahi duena dakizu? Sasikoa naiz ni, bada, eta sasikoa da Marina goitizenez Malintxe mestizaren umea ere.

Betzuloak putzu egin beharrean dituela begi-tandu zaio Onofreri dagoela bera. Anitak iduna-ren eremu magnetikora ekarri, lotu, eta deslotu darabiltza Antonen begiak eta Patriziak etsita Ju-lianaren kamamilaren keari tabakoarenaz lagun-tzen dio. «Heurea dok umea, Onofre». Somorros-

troko gertaeraren ostean afusilatu zutenaren larrupean izan moduan dago, suge barrua, izerdi hutsa kanpoa. «Haizea behar joat», euskaraz esan dio zuntzunduta utzi duen Cristinori. Genaroren alboan zutunik geratu da, goitik behera begira.

-Zer egin jak gizona? Gaixorik hago ala?

-Enbarkea behar joat -ez dio besterik esan.

-Trankil baina, jaiak be badozak eta -gorroto egin du Genaro larjakin itxurazko eta izaerazko hura, bere burua mesede eske ibiltarren gorrotatu duen ginoan-, noizkorako gura dok ba?

-Biharko bada, hainbat hobe.

Kasinoko nagusiak «sorpresatxo bat dauka-gu» iragarri die. «Ixi momentu baten mesedez». Musikak aretoan sabairantz egin du gora, kanpoko itsasoari berezkotasuna lapurtuz moduan. Kasinoko pickuparen musika Anitak eta Antonek estreinatu behar dute.

Hiru egun igaro dira Cristinok Marinaren umearen berri ustegabeen jakinarazi dionetik. «Heureumea», behin eta berriro esan dio bere buruari hiru egunotan, zer egin jakin ezean, Anton edo Andoniri ganorazko agurrik ere ez zion egin bazkaloste luzeak arratsaldeko lehen hodei-lits gorrikarek leku egin eta joateko ordua zutela esan zuenean, neke mingotsez, eginkizun zuenak bere asturua alde aurretik iragartzen ziola igarritz edo. Presa izan zuten bapatean. «Hobe ez balebe presarik ibili», Onofrek haren ostean hurrenkera zoroan etorri direnak gogoan dituelarik. «Eta hobe heu be ez bahintz inoiz jaio».

Hiru egun jaietan, Genaroren erantzunaren begira, ezer egin orduko zuzenean Marina ikusteko era izango ote duen jakin gura izan bait du. Eta telegrama edo egin beharko liokeela ere etorri zaio burura, beti koldarkeriari, «Hoa Heraclio txakurkumeari esaten Buenos Aireseko Euskal Echea», atxakia errazena aurkatuz, «jaietan ez diagok ofizinarik zabalik Bilbon», Bilbon jairik ez

dela argi onartu ezinik. San Pedro osteko astelehena ez dio beste irtenbiderik utzi, azkenean ere, erabaki beharrari aurre egitea baino. Gaua artega eta itzartuta eman du, logura gortu egin zaiolako, edo zelan deitu behar zaion ahazturik duelako. Oilaritearen garramuraz eman ditu azken gauak Anitaren logura etorkor eta sakonaren aldean. Antonek berari bihotzean zirgitea eragin zion eran piztu dio su ezkuturen bat emazteari ere. Lo dagoelarik ezpainertzera jausten zaion irribarre ezti eta gino berean ganorabakokak diotso hala dena.

Hiru egun ez dira ezer orduak osatzen duten itsasoan aingura astunik hondoraino laga ezik. Onofrek berea Kasinoko bazkarian utzi zuen, Cristinoren hitzetan enkaileta, «Nire amak bezala, sasikoa», eta harrezkero denborak ez daki aurrera egiten, edo Onofrek paisaia bakarra du begien aurrean unerik une, kanpokoa desagertu egin bait zaio. Azkenik oilarrek kukurruku gorriagoa egin dute goizean eta Onofrek pick-upari abiada eman dio, Brahmsen musikatik kemena edan ahalko duelakoan. Rapsodia. Atean hots egin dute sendo, oholaren beste egur zati batez

jotzeak duen doinu nahastezinaz. «Nor ote da hain goiz», solo beltzeko ildotik gorantz kendu du goldea eta isildu egin da ahots eder zolia pick-upean. Berriro egin dute hots, nork jotzen duen ere, horrek eskuetan azoge edo euki eran.

-Banator, banator -logura ohetik jagita bost minutura ageri ohi zaiolako errenka datozkio berbak ahora. Atea zabaltzean ikusi duenak zuntzunduta utzi du.

Hiru txapeloker batera. Seinale txarra hiru etortea. Beti ibilten diren biez gainera kaboa ere eurekin dela esan nahi du. «Zorionez kabo hau berria dok», Onofrek «Buenos dias, señor cabo» esan du, gogoan mingarriro John Ingelesaren akorduzko kimua berriro ernaldtu zaiolarik ahazturako lurrean gora. «Honek ez diakik ezer eta, egon hadi trankil».

-Qué desean?

Laguntzeko. Errutinazkoa dela. Eta Onofrek Aste Santuko kristoarena egiten ikusi du bere burua; alboetan txapeloker bana eta atzean kaboa, etxetik hiru karkaba porturantzago duten cuartelillora. Atalasean bertan dagoen mahaian

beste txapeloker gazteago bat dago, eskolatua hurrean.

Onofre Ruiz de Archanda eman dio izena eta bigarrena ere eskatu dionean, urduritu egin da, Uriondo, azkenean fitxa egiten dabilkiola konturatu eta datu guztiak eman behar izan dizkion arte. Halako batean ume-uhuriaren antzekoa aditu du.

«Pase», aurrera, «síéntese», jesarri, «quere-mos saber qué hizo», zer egin zuen Sanjuan egunean, hara jakin gura dutena. Beste ahuri bat etorri zaio, umearena barik minez dagoen baten batena. Kabo haginandiak irribarrea betondoetako oilarrankazko zimurretaraino ekarriz egiten dio berba eta Onofrek halako haginak eukita ezin izan dela bera baino gehiago, ikarari hesia kontrajarri gura dio. Zertarako jakin gura dutenentz guzti hori, eta kaboak erantzun, badakitela izendun eta ohoredun gizona dena, gerran ez zuela parte hartu eta emaztea, zer esanik ez emaztea, haren familian Movimientoaren alde bizia emandako bat baino gehiago dagoela gogorarazi dio, eta urrezko hagin bat ere erakutsi dio han atzean behematrailan. «Un café?», gurago duela

komunera lehenik, astirik ere izan ez duela, eta gero kafea. «Acompáñelo, Giménez», Onofrek protesta egin gura izan du, badakiela non dagoen. «De qué?». «Kakazaharra!».

«A!Estuvo aquí antes de la Cruzada, cómo le llamaban..». Koarteliloa dagoen etxea Batzokia izan zela gogorarazi dio kabo berri honek. Eta gero errakuntzaren bat edo beste denok izaten dugula bizitzan eta «déjele ir solo» agindu dio Giménez horri, zeinaren aurpegian eguzkitan bizkarra makurtuta mendeak eman dituen arraza lurkoiaren errobot-erretratua ageri den.

Komunerako bidean uhuriak datozeneko gelara kirik egin du. Hormari aurpegia eta berari lepoa erakusten, zutunik, gizonezko ttiki bat dago. Onofrek ez daki zerk esan eragin dion, «ipuin-kontalaria».

Ipuin-kontalariak burua bihurtu du. Betinguruak gorri, ubeldurik begiak eurak ere, arnasa hartu ahal izateko beheko ezpaina indarge jaus-ten utzita du. Kareazko lau horma zikinok er-azten duten barrutik baino haragotik begiratu dio.

Komunean zerbaitek uko egin dio gernubidea askatzeari bere barruan. Egin du azkenean ere,

eta itzultzean itxita topatu du lpotxa dagoeneko atea. «Hay quien se mea en los pantalones», batzuek praktetan egin txiza, «y hay quien no le sale», eta beste batzuri ostera urten ere ez. Txapelokerrek barre egin dute une batez, zeren kaboak eskuinerantza begian eta horman eskegita dagoen argazkitik Caudilloak isiltzeko agindu balio baino mutuago geratu da. «Y ahora vamos con lo que nos interesa». Zerk ote dien ardura horren urrun-usaina aditzen dien txapelokerrei, goizean goiz etxetik urten eta gauerainokoa kondatzeko bidean abiatu zaie Onofre, bihotza oinutsik.

«Ahorre ciertos detalles». Alboan dagoen txoria dutela euren ardurakoa. Onofrek ipuina edasten eta ardoa edaten ezagutu zuela esan die. Caboak argi esan dio, «no me sea usted cuentista». Eta gero egun berean ordu batzuetan ez zuela ikusi, harik eta itotzear uretatik atera zuten eta arnasketa artifiziala egin zion arte. «Y no le dijo nada al oído», belarrira zer esanbehar ote zion gixajoak, hil-aginean zegoe-la. Luisen autoan sartu zutela esatean Onofrek, «le estamos esperando» gaineratu du hagin-

diak. Onofre hormako argazkira begira geratu da.

«En ese coche..». Onofrek hitz berberak erre-pikatu ditu, «auto horretan zer?». Lasaitzeko esan dio kaboak, galderak berak, «viajaba alguien más?». Baietz. Hiruren izenak eman dizkio.

«Alguno durmió en su casa?». Ezezkoa ematekotan izan da. «Anton», esan du.

«Caramba, no me suena». Haginandiak kartaren bat gordeta duelarik igartzen du Onofrek, haren begirakunean ezezik atzean duen Giménez madarikatuak darabiltzan dantzatxo, eztul mehe eta poz-seinaleetan. Lehen uhuriak izan direnak alarau bihurturik aditu ditu. «Ipotxa».

«Es éste acaso», mahaukan gordeta izan duen karta erakutsi du azkenean ere. Argazkia. Iruntzitarra luzatu dio. Begien aurrean artezturik izan duenean arnasak huts egin dio. Berau dela esan die. Eta argazkian ageri den aurpegiak begiak hain zabalik izatea, azken argiek horko ninez barrurako bidea aspaldi egina dutela esan diote.

«Hilda» euskaraz egin dio ustebakoan adierazpenak. «Bai», euskaraz esan du kaboak. Berak ere zeozer ikasi duela, zerbitzuaren onerako. «Pues ya ve señor Ruiz». «De Artxanda», gaineratu du berak. «De Archanda» aldatuz onartu dio. «Esa misma noche». Polito ulertu du esan nahi diona.

Hiru pertsona autoz ailegatu dira mugaldera, erdaraz diotso kaboak, eta bik autoan aurrera egin duten bitartean, batek oinez egin du, basorantz. Autokoek beste aldera igaro eta hantxe itxaron beharko dute, hirugarrena agertu arte. Gero, hirurak autora berriro eta agur karabiñeruoak agur Benemerita, adios España.

«Conocía a la chica?». Ezetz, beste biak ezagutu zituen moduan egun berean ezagutu zuela, ausartu da esaten barrua erreten diona, «pero no ocurrió así».

«De buena familia, eso le salva», eta atoan galdetu dio irribarre gabe, akaso berak dakien zelan izan ziren gauzak. «No lo sé, pero..». Ez du amaitu.

«Pero ese está muerto», hori hilda dago, eta zelan izan zen jakin gurako duela, akaso lehena-

gotik ere ezagutzen zuelako. Ezetz, uzteko hala nahiago badu.

«Conducía el indio», txofer indiaa zihoala. Hori pasaporteagatik utzi dutela libre baina Franzian. «Tira» esan du gero, «ahor gure zibilizazioa Ameriketan».

«Usted..». Kaboak luzaz begiratu dio, Onofrenen barruan ahul-uneren baten bila moduan. Chester paketea atera du, ring-zokondoan dagoenak legez zigarroa iziotzean kokota arteztu eta goitik behera begiratu ahal izateko haginandiari. «Fuma?».

«Sólo nacional». Tabako xehearen zorrotxo atera du, petak, laster gordetzeko berriro. Egun berezietan tabako berezia eta halakoren bat ipini du atxakiatzat. «¿...le vió que llevaba pistola?».

«Ez».

«O sea que se la vió». Ezetz esan diola erantzun dio Onofrek, eta kabo azeri zaharrak argi utzi dio, ezezko hain borobila ustegabeen harra-patua izan denak baino ez daki ematen.

«Mire», beitu, mugaz bestealdera joan diren biek ez dutela oztoporik izan, lehengora itzuli da

kaboa, baina beste hirugarren harek, pistola zerramanak, ez duela asturua alde izan, adur txarreko egunak argitu zuela goizean horrentzat, «en su casa». Eta bera beranduago ailegatu zela eta orduan hantxe zegoela, Onofrek egia esan du, doinuan salatuz lehengoa gezurra izan dela. «Cómo?». Zelan? «Doroteoren sidec..». Beste susmagarri bat. Beharbada baietz, erantzun dio egiteke geratu den galderari kaboak. «Buen tabaco».

«Bien, pues ese hombre», tiro egin duela blausta basotik urten eta erreka uger igarotzeko prestatzen hasi denean han aurrean agertu zaion patruilari. «Y esto es lo que pasó».

Argazki sorta luzatu dio. Anton gerritik gora biluzik egokera ezberdinetan gorputza, hatsa alde eginda, hezur guztiak lokaturik dituenaren antzaz. Hilda. Karramarroak sendo estutu dio bu-larraldea eta samatik gorroak kanporantz erauzi gura izan dituenean txisturik ez duela eta itotzen hasi da.

Kaboak keinua egin dio Onofreren bizkarrean duen numeroari. «Agua?». Xurrutadatxoa jo dio

Onofrek, ipotxaren berri itauntzean ausartu orduko.

«Ese no sabe nada». Beraz, zer dela eta hemen? Eraginkorrak direla erakutsi beharrak agindu diela hori atxilotzea baina laster geratu behar dela libre hori ere, Luisi hirulau galderatxo egin eta bien arteko kareoaren ostean. Kareoak oilarrak ekarri dizkio gogora. «Usted no sabe» berriro hasi zaio kaboak Antonen gorabeheretara itzulirik ustegabeen. Ez ote dakien Anton hori benetan nor izan zen, «Enemigo de la Patria», eta eurek bien artean geratuz gero esango ziola egia, «que le echaba güevos», eta hitzok entzutean John Ingelesa etorri zaio burura. Kaboak igarri egin dio. Untxea barrurago sartu gura izan du, senaz, zeozer lotu ahal izango duelakoan, «le recuerda a alguien?».

«Ez», silaba bakarrekoa liburuetako berbarik luzeena balitz moduan esan du oraingoan, bihotzmina josi bait zaio beldur ikarari. Berari baietz, esan dio kaboak, beste bat dakarkiola gogora, hain zuzen ere, Epifanio izeneko txapelokerra, kontrabandoaren aurka bere kabuz ihardutearren trenbidean hila. Onofreren paparral-

dea izerdi hotzezko anpuluek ongarritu dute. Al-kondara doi jantzi berriak kokotak ibili dituen izu-igurtzien albiste lohia erakusten du. Ez du besterik itxaron behar izan kaboak esatea baino, «eta ordukoan ere halako bat egon zen zuenean, zelan zuen izena?».

«Aquel tambien le echaba güevos», Onofrek ez ei daki noren potroak ekarri dituen mahai gainera kaboak. «Epifanio», barre egin dio eta hortxe lasaitu da.

«Lo que no se puede», ezin dena Onofre Jauna, «es hacer la guerra así», ba, gerra hala egin, haginandiak gustoa diola jokatzeko duen errolari, batipat Jauna deritzan baten aurrean, begiertzeko oilarranketan zimurdurak biderkatu egin zaizkio, urrezko haginak dizdiz egin du eta Giménezen zirkinetan, bere sorbaldetan bertan, ikuskizunaz atsegintzen dagoenaren poz-jarioaren hats aditu du.

«O sea, que uno no puede hacer la guerra por su cuenta». Norberak egitea gerra ez dela kontua, «váyase» berbatik hara jaurti dio, ttu egin bailion, «bihoa berori», Onofrek ezin sinestu izan du hain erraz utzi dutenik. Beste chester bat

atera du erdi zutunduta ja, erdi kaboari eskua emateko egokeran. Kaboak bere aldetik eskua luzatu eta zigarroa kendu dio, artez paketetik.

«Para luego», geroko. «Eta horko gixajo hori?». Atean dagoela egin du itauna. «Hori?». jardetsi diote kaboak eta numeroak batera, barrerako aldarrez.

«Hori berori, bai».

«Se irá cuando se lave la cara y se limpie los pantalones». «Aurpegia zuok dozuena, eta azal gogorra be», oinak kalerako bidean sartu eta zenbat eta arinago egin hainbat hobe, gero arte esan die, burua itzuli du eta etxera etorri zaion hirugarrena ikusi du alboko gelatik irtetzean. Barrutik auspoak arnasa oztoparriturik ematen dionaren oskadak aditu ditu. «Ipotxa». Kalerantz jo du. Eta hantxe ikusi du Luis, ateko txapelokerrari datuak ematen.

-Hi hemen? -elkarri agur berbera egin diote, Onofrek berak ikaratik urten barik oraindio eta Luisek jaiegunetakoak izan gura duen «hemen-ez-dok-ezer-egin-ta-trankil» doinu dantzariak. Elkarren alboan igarotzean Luisek belarrira xuxurlatu dionak besterik adierazi du, «itxaron eistak Kasinoan».

Aginduari ezezkoa eman eta bere menera makurtzeko era ikusi du Onofrek. «Ikaztegieta» erantzunaz eman dio muturretan. Mendeku tindia, apurra, Luisi emango liokenaren aldean ez deusa. Gainera Kasinoari gorroto hartu dio. Lekoreko eguzkiak uztaila hortxe datorrela ekarri dio gogora.

«Anton, Anton», behin eta berriro izena etorri zaio burura, besterik gabe, errepikatze hutsak aztikeriaz-edo argiren bat edo igurtziren bat, ukenduren bat, zeozer hornituko diolakoan.

-Betikoa, Luzia -Ikaztegieta parrokiara gitxi. Jaia eta ere itsasora arrantzale ttikiak. Ardo

zuriari laguntzeko zeozer eskatu dio. «Ahoneek takartatxoak».

«Bera eroango balebe behinik behin!», Luis luzatu egiten dela eta, bere artean berbak hagi-nartean mamurtu eta arrain-hezurrekin batera ttu eta ttu darabiltza. Jateak beste guztia desagertarazten dio burutik. Anton, esate baterako.

Hezur bat okerreko samatik joan zaio. Xurru-tada luzeagoa jo dio ardoari.

Eta Marinaren akordua ere ia egon ere ez dago. Eztul egin du. Hezurra barrurago iltzatu zaiola uste izan du. Eta Luis agertu da.

Haigan txofer ibili denak tabernetan-eta mahaietara inguratzeko ibilkera berria ere ikasia du, halako dantza bat, oinak harago eta burua aurrerago, besoak gora, nori edo zeri oratu behar dioten inork igarri orduko eta beste guztiak stanby-en badaezpada ere, «zer dakar beronek?», esan gabe oldaztuak. Eta berak autoari gasolina ipinten diola esan moduan, «Luzia, honeetariko arraintxoren bat oraindino sartenerako moduan euki ezkerok», aulki bat mahaipetik atera, aidean, ipurdia eta jesarlekua sinkroniza-

turik mugitu eta, hara!, jesarrita Luis Onofreren aurrean.

«Halantxe egin jok honek egin dauan dirua», arrain hezur zuriskak ozta ozta ikusten dituenaren eran begiratzen dio Onofrek, lehenengo berba besteak botako duelakoan.

-Hau esturea, ez juek ba hi Bilbora-edo eroan gura izan ba? -Onofrek trikimailu berriren bat prestatzen diola susmatu dio Luisi arrapaladazko hitzotan-. Eskerrak konbentzitu dodazana, dana istripu hutsa izan dala, kasualitatea eta beste ezer ez. Hau gosea. Ez diagok munduan gosea egitea baino zer errezagorik.

-Eta barruan geratu dana?-Onofrek gogoan gorde uste izan du lehengoan Luisek esan diola hori hil-aginean izan zenak ezagunen bat zuela, euren kausakoa ia-ia.

-Hori be laster egongo dok kanpoan. Gixajoa, lehenagotik be begiz jota euki juek eta, zer gura dok ba, nire autoan bera eta Anton elkartu zireala jakitean, Tiro!, esan juek madarikatuek. Baina ez dok ezer, ze medikuaren papera diaukat, zelan egon zuan larri, eta oraintxe etxera joan, hartu, erakutsi eta libre itziko juek.

-Hoa ba, gibelandi hori. -Luisek ez dio jaramonik egin. Istripu harena zein borobil antzestu duen kondatu gura du-. Eta bestea bitartean han ustelduten?

-Mesede handiagoa egingo jeutsoat astiro joanda arrapaladan ibili ezkerro baino, ze susmagarri egiteko modua litzatekek gixajo horrerik inportantzia emotea -takartak atera dizkio Luziak eta tartiaz baliatu da Onofre ere beste pitxarkadaxo bat eskatzeko.

-Hi hemendik ez haiz inoiz lar sano egon eta gaur areago; ze istripu diok? -sartenekoaren ostean chesterrak bere sakoneko nortasuna agirira ekarten dakielako kea sakonago hartzeko gertu, lasaiago gizona.

-Hi ez haiz konturatu? Kabo hori berria dok.

-Eta? -egin dio Onofrek, berak ere badaki hori.

-Ba, zaharra, ha txarra -barre egin dio bere urtenaldiari-, ha zegatik kendu eben esan jeutset.

-Zegatik -Onofrek ere kabo berriak Luisen hitzei lehenago egin dien galdera berbera egin du.

Eta ipuin modukoa azaldu dio. Kabo harek seme bi ei zituen.

Eta behin umeok, hain ume ere ez zirenak, zina joan ziren. Eurekin, hirugarren mutiko bat ere doa. Pelikula, umeak zaleenak direnetarikoak, bakerada. Eta pelikula amaitutakoan, kalera elkarrekin hiru umeak. Jakina, ikusi dutenaren eraginpean, basora jo dute lehenengo eta behin, elkarri segika, tiroka, zaldiari ipurdian jo eta jo, irrintzi eta arrapalada, tiu!, tiu!, danb!, bang, pantaila atzetik etorten aditu dituzten hotsei egokitu guran itxura hutsak diren pistola eta zaldien hotsak. «Benetako pistolak apur bat beranduago etorri zituan».

-Ahor ba istripua, kaboaren semeren batek aitaren pistola hartu eta hil bestea edo? -Onofrek Luisen atzazalei begiratzen die, munduaren etorkizuna eurretan balego moduan saiatzen delako Luis takartek utzi dioten koipe beltziska kentzen handik-. Ez dok igarri.

Umeen jokoak filmeko hariari jarraitu zien, hau da, pistoleroaren jesarlekuan sheriffa eta beronen laguntzaileak, eta nor izango gaizkilea eta hirugarren umea izan zedin erabaki zuten

beste biek. Eta hala, basoan preso hartu, nekearen nekez, eta sheriffaren bulegora. «Koartelilora», oraingoan igarri egin du Onofrek. «Bai».

Koarteliloan, egon berri diren horrexetan, giltzak eskegita, ziegakoak, umeen irispidean. Eurak hartu eta bertara hirurak. Kontuz baina! Hara baino lehen izkiluak gorderik dagozen armairua zabaldu dute. Nagusienak handik hartu du aitarena lakoa den pistola eta oraingoan bai, «vamos a darte tu merecido», pantailakoen hizkera bere egin du, taiukerarekin batera. Ziegara.

«Eta beste txapelokerrak?», Onofrek haien usadioen berri ez dakiela adierazten duen itauna egin eta Luisek «Domekaz izan zuan» jardetsi, erantzuna labur geratu dela bera ere oharturik josteko behingoan, «Futbola entzuten, radioa zarata batean koartelean».

Ziegarako bidean soka ere idoro dute umeek eta bertatik erabaki dute eskuak gibelaldean lotzea gaizkileari. Harek ezetz eta nagusiak, sheriffak, baietz, pistolaren aho luze-estuak kosk egiteko itxuran zemaikor ipiniaz bestearen muzurretan. Eskuak gibelaldean lotuta epaiketa hasi da. Laburra izan da. Anaia txikia pistoladun

nagusiaren alde dago, forajidoaren kontra. «Ahorquemosle» erabaki dute. Urkatu egin behar dutela ba.

«Itxurak egingo ditugu, lasai», sokari begia egin, burutik behera ipini eta zutunik! Nagusiak aginduak txikiari, aulkia ekarteko. Eta forastero-arena egiten duena kaka dariola, pistola beti murretan, aulki gainera igoarazi dute. Soka, aldiz, sabaiko ageriko haga baten inguruan luzatu dute. Filmean legez, berdin berdin. Olgetan edo, tenk egin diote sokari. Eskegigaia, urduri, larri, aulkitik apur bat altxatu dutela eta, arren kentzeko handik.

«Eta radioa gora-goraka, golak eta, ezta?», Onofreren urdailean sugea esnatu da, halako moduan non ardaoak kalte egin behar diola uste duen. Beste chester bat ahoratu behar izan du. Luisek labur esan dio azkena.

-Aulkia behera jausi, edo bota egin jua eskegiak berak halako batean, eta gero ezin beste biek arteztu, ezin aulkia oinen pean egokitu eta soka han goian untxeren baten nahastuta egoala, ubeltzen hasi zuan ume gixajoaren aurpegia. Beste biek soka itzi eta alde ikaratuta, eta lagun-

tza bila jo beharrean hanka egin juen arin handik. Hilda topa juen mutikoa.

Onofre komunera joan da. Han takartak bota egin ditu, estomanguan berotu zaion ardao zu-riarekin batera. «Akzidentea» esan dio Luisi itzu-litakoan, «Zelan ez zan zabaldu ba horren berri-rik?». Luisek itxaron egin du jardetsi aurretik.

-Euren artean geratu zan gorabehera guztia. Hirugarren mutikoa, trenbidean preso egoan baten semea zuan eta, aita libre itzi eta ahoa jo-sita bialdu juen, familia guztia euren herrira. Is-toritxo hau -Onofreren mira ere koarteliloan utzi dituen haienaren berdintsua delako harro eta le-hergarriaren ondorioak kontrolatu guran- berau azaldu jeutseat, eta hara, libre itzi gajaituek. Adurra, asturuak, patua eta balbea be sinestu beharrekoak diralako. Agur ba, Onofrek, banoiak ze gixajo horrek nire paperak behar joazak eta.

Hiru egunez duen denboraren iragate geldoa izan duena ur-jauziaren abiada egin zaio deblau-ki. Oilarren kantuek goizeon Genaroren bila joan beharra iragarri diotela gogoratu zaio. Urrun ikusi du balizko semea ere. Ardao eta takartak pagatu eta kalera urten du. Eguerdiko eguzkiak

suspertu egin du. Ibilteak ez diola kalterik ekarriko eta, trenbideko lanak egiten diharduten alde-rantz jo du, Luisen hitzen eraginpean oraindio. Harexen Haiga harroa ikusi du handik ordu erdi batera edo igarotzen. Agur egin dio klaxonazoak eta nork egin dion ikustearren begiak itzultzean izan da ikusi duena, hantxe, ipuin-edaslea, ipotxa.

«Heure begietara ipotxa», aurreritzia albora uztea lortu du, orain, azkenaurrekoz-edo bere bizi guztian, izarloken antzera bere aurrean igaro den haren handitasuna ikustean. «Heure arnasekoa dok hori», burura etorri zaion bakarra izan da.

Haigaren ihestutuko keen atoian begiak, errepidean gora egin du. Han ezkerretara trenbiderako ekaia ateratzeko harrobiaren gainean or-migoizko eraikin itzela dago. Beherago, Anitari erostea erabaki duen ortua dago, itsasoa begiz meneratzeko behategi ezin hobea. Apur bat aurrerago lurpetik urten berri ageri dira burdinazko ezpainak, karrilak, bidea sugekoi eginaz aurrera zabalik. Oraindio ere zatirik gogorrena zulatu beharko dutela eta Onofre soraio geratu da itsaso-

ak erasotzen duen lurmuturrari begira, beroni muina zulatuko dion suts mekanikoak bere bihotza ziztadaka zulatzen ari zaionaren erdia ere ote den, mindura eta etsipen-isuriaren aldetik behinik behin. Bihotzeko mina baretu egin zaio suts mekanikoa den zulagailuaren maneian nor dagoen igarri duenean. Ciclon. Gizon harek bere baitakoenari dei egiten diola begitandu zaio Onofreri. John Ingelesaren oihartzunak dakartzio. Eta Antonenak. Arraza berekoak dira.

Onofrek ez du onartu Genaroren eskaintza, berak zenbait egun lehenago eskatutako enbarkea, alegia. «Enbarkea orain? Ezin dot inora mugidu». Txapelokerren susmo guztiak beregana doaz eta, John Ingelesak Epifanio hura akatu ostean bera zelan ostendu zen, orain berriro ere alde egitea kasualitate itzela litzatekeela deritzo. Beldurrak gainez egiten dio bere balizko semearen berri jakiteko grinari. «Umea!». Balizkoa. Cristinok ez dio esan noiz jaioa den eta beharbada Marina Euskal Etcheatik joanda dago. Berea ez ote den otu ere ez zaio egin. «Berandubada, berandu dok eta, bardin-bardin itxaron ahalko dok beste tartetxo batean», uztailak bere bide sargoritsua egindakoan Argentinara joan ahal izango duelako ustean oraingoz egin dezakeen hoberena Urigoiena bisita egitea dela erabaki du. Esan biezaio Anitari ezin duena bera dela, eta akabo. Bide batez Doroteo ikusi gura izan du. Eta Adela ere. Edo Adela batez ere. Bestela txalupa, bere 'Maskoltxu', berau egin du

lagun, Kasinotik hurrun eta kalean ibiltze hutsarekin ere beldurrez. Goizero jotzen du arraunez badiako uretara, arrainetan dabilelako atxakiaz.

Arrainena Doroteori azaldu zionean pozez jauzika ekin zion. Urigoienari egindako bisitak utziriko mingostura leguntzeko balio izan zion behintzat. «Zera, analisirik ez da behar; esaiozu Anitari ezin duena neu naizena eta akabo». Medikuak zelan dagoen galdetzeko astirik ere eman gabe jaurti zion. Dena dela mesedea eskatu behar diola eta bera itsasoan dagoen bitartean esateko emazteari, halaxe eskatu dio. «Bakea izatearen alde».

-Bakea hobeto izango dozu erretzeari izten badeutsozu -bereak ez ziren uretan sartu zen Urigoiena, eta halaxe igarrita esan zuen atoan-. Zera, eta Sandalio? Topa zenduan ba Txanoko gaztea?

Txanoko gaztea orain aurrean duena da. Maskolotxoren popaldeko bankada zabalean jazarrita, zabal zabal besoak, burusoilduko larruzko ispiluan laban egiten dio eguzkiak. Enperadore ageri zaio bere jarreran Doroteo, Sanjuanen Adelarekin dantzan ziharduenean bezala. Adela.

Adelaren hatsa nabari du garondoan, zeren eta batelean sartu eta soinekoak erantzi ostean, bainujantzi gorriska horrekin ikusi duenez gero ezin kendu bait du burutik emearen irudia. Gibelean izanik ere hirugarren begi batek aurre-aurrean proiektatzen dio neskaren irudia.

Oharkabean presoek diharduten trenbidealde berriaren beherantz jo dute. Itsasoaren ertzertzean, gainean ia, goi altxatu behar duten zubi itzelaren harri landuzko zutoinetara hurreratu dira.

-Uztaila, uztaila... -Doroteok aldi bereko erreguz eta ironiaz esan du-. Erregimen hau luzarorako dok. Seguruen, amnistiato bat emongo juk hamazortzian, dia del glorioso alzamiento. Eta danak pozik. Presoak libre, trena laster amaituta, lan-esku gehiago, etxe gehiago altxatzeko eta negozio hobeak bertokoentzat be, eta erregimena, ai erregimena!, sendoago.

Lagunaren hitzek Luis ekarri diote burura. Etxe berriak egiteko dela eta, Udaletxean sartu eta urten dabil aspaldion. «Negozioetan», portuko azken berriketa etorri zaio gogora.

-Zu be, zer zara ba, Doro! -protesta egin du Adela brankatik-. Ia Onofre, itzistazu erremubat, ikasi egin behar dot eta.

Lusekiko akordu mingarria behingoan ezabatu zaio. Neska hitzei orpoetan haginkatuz moduan mugitu da, halako eran non Onofrek sorbaldan Adelaren eskua nabaritu eta burua itzuli duenerako alboan jesarrita izan duen bera. Uda-reakin batera etorri zaizkion ezbeharrek Anitaren larrualdea bilatzeko izan ohi zituen grinak akatu dituen era berean biztu zaio odola orain. Aldez aurretik inongo atetan deitu gabe, berez.

Leku egin dio Onofrek bankadako eskuinaldean, alde bereko arrauna eskaintzeaz batera. Neskak berak baino beso luzeagoak ditu eta, ipurdia ipurdiarekin, nekez sartu ahal dira biak batera. Doroteok barre egiten du, bere enperadore kadiran nasai etzanda.

-Ameriketara!!! -aldarri egin du, Adela arrauna uretan sartzen duen bakoitzean batelbarrurantz euritxo bat ekarriz berak ere arraunlariei hura botatzen dielarik-. Goazen España kañi, zikín, honetatík, ta-ta-rii.

Azken hitzokin arraunlarien alderantz ur-uhintxo bat hegalarazi duelarik, Adelak Onofren garondora gorde du burua. Gizonak emearen giharren gainean haragia nabaritu du, eta haragiaren gainean larrua, sutan hedatzen den ura bezala, aldi berean epel eta bero, abegikor. Halako sendimendu borobil batek burbuila kosmikobaten barruan sartu du Onofre. Doroteoren algarak aditzeari uko egin diote belarriek. Arraun bien jabe egin behar izan du, Adelak berea utzi bait du. Une batez kontrolik gabe, eguzkiak begietan artez jo dio. Itxi eta berriro zabaldu ditue-nean Adelaren paparraldea begiztatu du, hantxe, bere saihetsen aurka estutzen, gaztainkara igartzen diren ditiburuak sendo eta tente, urak eragiten dion larru-ikara berberak gailurrera etorrazten bait dizkio haiek. Onofrek, gerritik gora biluzik eta mahoizko praka barrenak belauñetara bilduta, uretara salto egiteko gogoia eragotzi behar izan du. Bera ez da Doroteorenak lako prakalaburrik jazten ausartzen.

-Agur -esan du lagunak patetismo itxurak eginaz zutik-. Zelan ez dozuen Ameriketara joan

gura, oi argonauta etoiok, neure kabuz joango naiz, bai, ene gihar sendoen indarrez.

Must egin du uretara kikunbehera, batelari halako kulunkada arin bat eragin diolarik oinek aurrera bultza egitean gorputzari. Adelak Onofreren sorbaldan ezarri du libre duen eskua, besoa beronen lepoan behera eskegita utzirik. Doroteoren burua eguzkiaren jostailu agertu da urazalean, kaleidoskopio huts. Igeri egiteari ekin dio.

Adelak zuzen begiratu dio Onofreri, eskua non duen, larruazalean atxekirik zein larruazal duen, oraintxe konturatuta moduan. Ez du ezer esan. Zutitu eta txopara joan da. Han bankada gainera igo eta orpoak ardatz, lepoa eman dio Onofreri. Must egin du uretara. Begiak itxita azaleratu da. Begiak zabaltzean mundua lehertzea izan da Onofreren zat. Elkarri lotuta geratu zaizkio, Adelak goizari hagineta marfil guztia irribarrerik zabalenean eskaini arte. Lepoz igeri egiteari eutsi dio, Doroteoren alderantz. Harek urrunago jo du, benetan alde egin nahi bailuen. Trenbide aldetik lurrun-adarrak askatu ditu lokomotorak.

«Ez dok Anita», otu zaio Onofreri. Lokomotorak zama-bagoiak daroaz zubi berrirantz, eta makinariak eurei agur egiten diela irudi du. Adela geldi geratu eta besoa altxatzean beste adarkada batez zulatu bait dizkie belarriak lokomotorak. Ciclon hura gerritik behera biluzik bera bezala, presoan lanak etorri zaizkio gogora. «Kapitaina» dei egin dio Adelak. Keinu nabarmenez uretan sartzeko eskatzen dio. «Ez» esanez batera chester bat iziotzeko maniobretan hasi da. Doroteok bere buruarekin lehian dihardu igeri. Eta konturatu orduko karelari eusten dago Adela.

-Kaladatxo bat -eskatu dio, besoak karelaren gainean biak, elizan izan ohi diren jarreraren baina okozpean.

-Zuk ez dozu erretzen -Onofre neskaren parrerraino makurtu da-. Ipinidazu ahoan. -Zigarroa ez bustitzeko ezpainetan duen bitartean berak eutsi behar dio. Haragi-mami ilun eginda daude ahoaren aho diren ezpainak, uraren hotz atseginaz zimurturik. Ditiburuen irudia etorri zaio. Haragi berbera da Adelarena, alde guztietan.

-Salto uretara -esan dio neskak kea belarrira putz eginaz batera.

-Ezin dot.

-Bai -musu eman dio samako giharrean eme-eme.

Onofrek Doroteo ikusi du han urrunean. Neskak gorago igo du karelaren gainean. Besoak lepoaren atzean estutu dizkio. Indarra du, sekulakoa. Uretara etorri da eta, burua agertu duenerako batelera igotzekoan da Adela.

Igeri egin du, arin, Doroteo dagoen aldera, «lagundu» diotsoen aldarriari men egin gabe, haren gorputza berriro ukituko balu bertan hilko litzatekeelako. Ikusi ere ez ditu gura Adelaren ipurmamiak karelaren gainean, ezta ere ditien borobiltasuna bainujantzia den azal bustiak esturirik.

Doroteoren alboan geratu da Onofre eta neskak agur egin die eskuaz. Lokomotorak beste adarkada bat jo dio goizeko ingurats elektrikoa-ri. Adela hala ikustean 'Point Counter point' etorri zaio burura. «Gizonjalea?», nobelako halako hura datorkio mingarriro gogora. «Ez, ez!», barruko besteak erantzun dio. «Ez».

-Galduta habil lagun -Doroteok umoretsu egin dio berba, bere barrukoa irakurrita baino beteagoan igarri duelako-. Han zulo egiten dabil-tzan makinak baino sendoagoa do Adela. Eta ni neu be. Hemendik alde egin gura nik, berak ez, ezin joagu batera egin. Aharitxoak topeka ikusi dozak inoiz?

Aharitxoak topeka. Doroteoren pasioaren de-finizioa eman dio. Elkarren aurka, elkarren pre-miaren premia hutsez. Berak Anitarekin duen lehia berbera? Gogoetan sartzeko astirik gabe geratu dira gizon biak, Adelaren iuju ozena aditu eta txaluparantz begiratzean. Arraun biak hartu-ta alde doa neska. Belauna belaunaren aurka estu, eskua eskuaren aurka estropezuka, aldi be-rean traketsa eta eraginkorra den eran ekinaz arraunei urruntzen doa.

-Eee! -aldarri egin diote behin eta berriro. Al-ferrik. Adelaren barreek erantzun diete eta, ige-riari ekitea beste biderik ez dute izan. Onofre Do-roteo baino igerilari hobea dela erakutsiz berak eutsi dio txopari lehenik. Mezatarako jarrera ho-rretan besoak okozpean izan dituenen karela-ren gainean berriro begietara zuzenean begiratu

dio Adelak. Beronen ezpainarteko zero-zerutik bainujantziaren azpian borobil koroatu ageri zaizkion ditietara joan zaizkio begiak Onofreri. Eta handik belaunetara. Grinak elkarren orbitan sartarazi dituen asturuak dira biak. Sendo nabaritu du emearen erakarmen-eremua dagoela gizonak, eta beste gorputza ere halaxe dagoela jakin du, berearen orbitan, ziur. Doroteok sorbaldatik eutsi dion arte. Batelean elkarri eutsiz igo behar izan dute, biak baino malguago den neska-karen barrearen menpe.

-Ez gara ba arrainetan etorri -Onofrek apaiuak gordetzen dituen otzara erakutsi die, konbentzimendurik gabe.

-Beste egunen baten -Doroteok erabagitsu esan du-. Ze hi bustita hago eta, igual katarroa edo harrapatuko dok.

Eta arrainetan egiteko egun hori ailegatu gabe egin du uztailak bere uztaiaren erdia, Doroteoren hitzak, lehengoak zein oraingoak, bete egin direlarik. Katarroa harrapatu du Onofrek eta aske utzi dituzte presoetariko batzuk.

Uztailak Doroteok agindutakoa ekarri du. Onofre ohean izan da egunetan txalupako katarroa kentzen eta urten dueneko zuzen jo du Ikaztegi-tara, ez bait du inondik ere gura Kasinora agertu eta Genaro bertan aurkitu. Marinaren gorabeheran susmoren bat ote duenentz dago. Beldurra beldurraren gainean, «Umea, heurea ote da ba?» behin eta berriro esateak ez dio ezta hau ere leguntzen ziurtasun mingarriaren arramaskada. Anitari begiratzen izan dio, ohera edo gela debekatuko atepostara bedar-urak ekartzan izan dizkionean, egia begietan balu baino gardenago antzeman behar diolakoan. Eta emazteak «ene bada» esan, musikagatik, eta bera ere beste orbitaren batean balego moduan mugitzen izan da. Antonen besoak gerrian sentitzeak erantsi zion indarra Onofre ez den beste planetaren baten erakarmen-eremuan sartzea izan da. Ortzeko gorputz bi dira, zeina bere ibilbidean. Elkarren alboan eta urrun aldi berean. Onofrek berak Adelaren orbitan du burua, eta ez

umeak ez txapelokerren ikarak erauzten dute haren eraginpetik. «Adela eta Doroteo». Ez direla itzuliko diotso zerbaitek bere baitako sakone-tik. Eta Ikaztegietara eroapenez abiatu den goiz honetan, uztailaren hamazazpian, hain zuzen, kontua egin ahal izan du munduaren ardatza ez dena bera. Erregimena sendotu egin eta eskuza-bal jokatzeko era ikusi du, Uztailaren Hamazortzia dela eta. Lekutan dago mugaldean hildako batek edo bestek eragin dezakeen kaltea.

Ikaztegietan atetan egon baino ez, sartu barik oraindio, eta parrokiario berrien ahotsak aditu ditu, ozen, erdaraz egiten.

Sartzean bizitasuna gainez igarri du barrua. Udan eta jaietan baino beste inoiz zabaltzen ez den atearen alboko mahaian hiru parrokiario berri dagoz, pitxarra eta lau baso euren aurrean. Beste guztia hutsik dago. Onofrek lurraren kolorea ikusi du haien aurpegietan. Lan gogorrenen eskuek zizelkatu dituzten giharrak igarri ditu al-kondara garbien azpian eta odola irakiten dihar-duen galdaretako beroa antzeman du hiruren ipurterre jarreran. Ciclon etorri zaio gogora ohar-

kabean, «Eta laugarrena?», baso eta edaleen kontuak eginaz batera.

Lugarrena Ciclon bera da eta barran dago, bertako habeak ezkutaturik, ardo berria agintzen ate nagusiari lepoa emanik zutik. Lepoa barrari erakutsi dionean tupust egin du Onofrerekin.

-Hombre paisano! -barruko soka guztiak askaturik, pozez urten dio agurrak.

Onofreri zenbatetan ikusi izan ote duen gizon hau, berau etorri zaio burura eta bien gorputzen artean buruaren alde dagoela ohartzean digantetzat izan duen gizon hari indarra, gihar hutsetan barik, bere nor-zer osoan dariola erabaki du.

Berria guztien ahoan dabil. Lamiaren Zelaian preso izan dituztenetariko batzuk aske utzi dituzte, gudua amaitu zenetik laster hamabost urte izango direlako. Doroteoren hitzen zuzentasuna gogoan, bere ohizko lekuan jesarri da Onofre, nahi gabe ere John, edo Juan, haren gomuta etorri zaiolarik.

Amaitu da makien aroa. Han berbetan dituen haiek hegoaldeko bentzituak dira. Tabernako andrearen gizona nazionalistekin hasi eta gero, beste aldekoek euron bandora pasarazirik, nagu-

situ zirenetarikoa da. Eta oraindion etorri ez diren betiko arrantzaleak iparraldeko bentzituetaoak dira. Han bera da gerra egin ez duen bakarra.

Eta Luziak ardao zuri pitxarkadatxoa ekarri dion eran lau haiek gonbidatu gura izan ditu, «Hareeri be beste bana», euskaraz, eta andreak «Invitados estais» esatean eurak badoazela esan dute guztiek, Ciclonek ezik.

-Yo me quedo, señora, que no tengo novia -azken hau esatean igarri zaion gozotasunak hegoaldekoa dena salatu du-; pero me siento junto al que convida.

Ciclon Onofreren alboan jesarri da eta honez gero han ikusten duten guztietan errepikatzen den zeremonia da, bata bakardadean eta lagunekin bestea, eurok joandakoan biek bat egiten duteneko, Uztaileko Hamazortziaren bezperakoan ez bezala, iluntzez, lan behartuetan egiteko gartzela zigorra kenduta ere trenbidean lanean segitzen dutelako preso ohiek.

-Eta ostatu eman digun andrearentzat gaseosak betetzen -erdaraz azaldu dio Onofreri, uztaileko errainu akituek ateetako zirrikituetatik ihesean gauari dei egiten dioten azken ordu ho-

rietariko batean-. Orain ferrokarrilak ordaintzen digun guztia ostatua pagatzeko behar dugu eta, handik bueltan gaseosa botilak betetzen ditugu atso-sorgin horrentzat.

Anarkista izan denaren amorruek gainez egiten dio Cicloni eta horretan ere izenari arrazoi eman gura diola otu zaio Onofreri. Ezizena nondik datorkion argitzea eskatzen ausartu behar izan da horretarako, lankideek beti Ciclon hura gora eta behera ibili arren Onofreri gogor egiten bait zaio ezizena erabili beharra.

-Goazen kanpora eta kondatuko dizut -egin dio erdaraz eta Onofrek berak «Nora, ba?» galdetu dio-. Edonora, paseiatzera.

Bataiarriko izena Justicia duela esan dionean ezin sinestu izan dio Onofrek. Portua alboan eta aurrez aurre ilargia, irlaren gainean bere urre-zidarreztuzko adarra uretan luzatuz, trenbideko preso ohiak itsasoari begiratu dio, urazaleko irudikeria sorginduetan olibondoz eta sastrakaz gainezka diren muinoak ikusten moduan, gaueko asturua sorterrikoa berbera bait du han goian.

-Eta ezizena?

«Ezizena?». Mutikoa zelarik mandazain eta eskola sozialeko ikasle ibiltzen zela, halaxe hasi zaio azaltzen, eta kondatu dio, bada, zelan irakurtzen eta beste ikasten gero eta aurreratuago joan, eta orduan eta barruan amorruek gainezago egiten ziola bere lanbidean, goizean-goizeko zereginean.

-Mandazainaren betebeharra ez zen erraza izaten, ez, hala ematen ez badu ere.

Ciclonek minduraz egiten dio berba, begietatik ezpain ertzetara luzatzen diren diagonalak bata luzeago eta bestea laburrago egiten zaizkiolarik. Galtzen ziren mandoen bila korriarazi egiten zituztela, makilkadaka, kortijuetako nagusiek. Eta ba omen zen bere urkamendi berea zuen halako etxalderik ere. «Iniustizia». Eta bera jaio zenean aittak Justicia izean eman behar ziola, gero izenaren gaintetik ezizena jarriko bazioten ere.

-Zergatik? -Onofrek chester bat eskaini dio, ilargiari begira eta jakinik, ondo gainera, Ciclonek onartuko ez diona, eta betikoa erantzungo diola, «Nik nahiago dut frontekoa», tabako xe-

heaz beteriko petaka atera eta papel urdinskaz zigarrotxoak egiteko behingoan-. Zergatik?

Ciclonek olibondoak ikusi uste ditu ilargiaren adar luzean hazten, eta olibondoaren artean mandazain hura, Antonio agurea, korrika, arrapaladan nahi eta ezin, atzean makilkadaka kortijuko kaporalak dihoazkiolarik jo eta jo. Orduantxe egin zion gainez eskola sozialean hainbatetan entzundakoak, ez dagoela inor inoren gainetik, piztiak hobeto bizi zirela behitzainak baino, eta habaila gertatu du Justizia hamasei urteko mutikoak, oharkabean, egiten duenari garrantzirik eman gabe. Jaurti zuen lehen harriak kaporaletariko bat jo zuen hankan bete betean.

Ermitaraino ailegaturik daude Onofre eta Justizia. Han beste aldetik trenbideko barrakoietakoa argiek dirdir egiten diete. Badian txalupatxoak dagoz, txipiroitan. Hogei urte joan dira Justiziarren habailak ezizena ekarri zionetik. Harrikada harek Errepublikaren garaitza ekarri zuela esan zitekeen. Hurrengo lau urteetan jornaleroak eta esku-langileak izan ziren kortijuan nagusi, uga-zabak hain ziren erreboluzioaren beldur. Ciclonek gogora ekarri nahi ez dituenak dira eta,

beste hiru lagunak bertoko neskaren batzuren xuxuan dabiltzala, hariz aldatu nahi izan du. «Nesken susuan», mingosturaz errepikatu dio adiskideari berea, orain buruan darabilena beste pasioaldi bat bait da, duela lau urte Luisekin kanposantura egin zuena, bien arteko adiskidetasuna hoztu zuena bera.

Zerua berunkara zegoen. Talara hurreratuak ziren Luis eta Onofre, orain Ciclonen eta biek egin duten moduan. Uher eta nahasi ageri zen itsasoko urgaina iraileko arratsaldean. Oraindio intxaurrak behean jausita usteltzen amaitu barik zegoenez, negu aurpegia zekarren eguraldiak.

-Zerua itsasoaren ispilua dok -zioen Luisek, Caldozko zigarrotxoa atontzeari eusten diola.

-Zuzen habil -Onofrek astiro egiten du berba-, baina azalekoa azpikoaren ispilua bebadok. Azpiko korrontea dok urari ugerra eragiten deutsona. Dana dala, gauza bat diagok azalean ageri ez dana: itotakoak.

-Hi beti poztasun eta kolorez beteta, Onofre. Atsoak baino luto gogorragoa daroak hik hor barruan.

Onofrek chester paketea atera eta zigarro bat ahoratu du, Luisek bere pitiloa iziotzeko txiskeroa piztu duela baliatzearren.

-Esan deuat inoiz sasoi batean monagilo ibili nintzana? -Onofreren barru suhila suspertu egin da umezaroko akorduz.

Lagunaren logika-harien nondik norakoak ez igarten ohituta zegoen Luis.

-Ze karajo! -pentsatu zuen, ezpain artean geratu zaizkion tabako apurrak ttu egiten bitartean-; tabako hau gero eta eskasagoa diatorrek. Eta? -ozen diotso orain Onofreri, ttu-ttuka oraindio-; horrek ze zerikusirik dauka itsasoagaz ba?

Erantzun barik geratu zen. Umetako akorduzkion oldarrean burura, oraingo berdin.

Gogora datorkiona da monagiloek hiletak jai modura hartzen zituztela, abadeak besteetan baino sari hobea ematen zielako. Eta heriotza, ezta urrundik ere ikusten ez zutelako, poztu egiten ziren entierroa zegoela jakinda.

Teatroa antzeztearen berdina izaten zen. Aldare aurrean mahai karratua ipintzen zuten eta haren gainean oihal beltza, hari hits urregorritzaturik eta guzti. Gero kandelak katafalkoaren in-

guruan, lau edo sei, hildakoaren kategoriaren arabera.

Gorpuaren bila lagundu beharra izaten zen okerrena. Batzutan ia herri osoa egin behar izaten zuten oinez, joan eta etorri. Eta katabuta mahaiaren gainean ezarritakoan, hasi da ikuskizuna.

Latina, intzentsua eta lantuak. Azkenok ugarriagoak erdiko aulkietan, bertan bait dagoz andrazkoak. Gizonak, hits eta ilun aurrekoetan. Organu hotsak. Leihoetako beiradura koloretsuek kanpotik datorren argia iragazten dute. Eta hauts harrotuak argizko hageetan dantzan dabil-tza, zeruaren aieru moduan. Azkenean, kanposantura.

Beste chester bat ekarri zuen ezpainetara Onofrek. Ezarian ezarian, kanposanturako bi-dean zihoazen orduko lagun biak Luis eta Onofre, orain berau eta Ciclon doazen moduan. «Umearen barrua kabroia dok». «Zergatik diok hori ba?». «Itotakoen entierroetan ez gintuan poztu egiten ba?».

Itotako baten aldeko hiletetan lehenengoz egon zenekoa gogoratzen zaio Onofreri. Katafal-

kora kutxa behar dela eta gora laguntzeko esan zion monagiloen buru egiten zuenak. Agertu ez bada, zetako egiten dabe mezea; ze igual bizirik dago; ba bizirik badago, hainbat hobee; baina orduan honek mezeak ez dau balio; balio dau, bai; zergatik? neuri esan deustalako abadeak. Ezta-baida itzela izan zuten.

Ipini dute kutxa katafalkoko mahaiaren gainean eta honen gainean, bada, beste oihal bat, ezkatabutarik ez hilik dagoela inork ez igartzeko. Familikoak etorri eta meza hasi da. Onofrek ez du sekula santan halakorik ikusi. Hango erdiko bankuetako negarrak inoizko mingarrien egiten zaizkio.

Erdiko bankuetako aurrenekoaren erdian emakume gaztea dago, aurpegia mantila beltzaz ezkututzen duena. Komuniorako txilina jo du Onofretxok eta ilara luzea eratzen joan da. Erdiko emakumea ere badator. Haren txanda izan denean Onofretxok patena okozpean ipini dio. Mantila gora jaso eta mihia atera du, more-morea. Eder eritzi dio mutikoak. Inoiz ikusi izan duen ederrena.

Luis eta Onofre kanposantuko aurreraino ailegatu ziren, oraingo lagun biak bezala.

-Goazen barrura -agindu zuen Onofrek.

-Euria diakarrek ba, ez diakiat, herrirantz edo komeni jakuk.

-Gauza bat topa gura joat -euskaraz esan zion Luisi eta erdaraz diotso Cicloni-. Halako tunba bat, nire ezagun batena.

-Hi, Onofre, ilunduten hasi dok eta, goazen ba -lagunaren erantzuna eta berea «Kakalarri haiz, Luis», biak ditu gogoan, udako iluntze zoragarri honetan.

-Hurrengoan harrapatuko najok ba zoro honek! -Luisek hagin artean mamurtu zuen-, ka... -zalantzan geratu zen, kanposantuan dagoela eta- ...guen zotz!

-Topa joat, topa joat! Erdu! La he encontrado, ven, mira -ordukoan euskaraz, erdaraz orain, pozarren ematen du Onofrek. Geldi dago, bedar gaiztoek eta goroldioek erdi janda duten hilobi baten aurrean. Halako batean sukartuta moduan makurtu eta hilobi gainekoak eskuaz kentzeari ekin dio.

-Beituk -garaitza lortu duen umearen aurpegiaz-, hortxe ageri dituk izenak eta eguna, 1925eko irailaren hamahiruan, gaur hogetabost urte. Baster Senar-Emazteak, biak egun berean hilak.

-Eta? -jakako kueiloa gorantz igo zuen Luisek-. Euria diakarrek Onofre. Goazen.

Ari zuen euria mehea bazen ere, ortzea ilun ageri zen itsasaldean. Ia hogeit hamar urte beranduago Onofrek begiak hilobi berean iltzaturik ditu. Tru-moi-hotsa eta euri-zaparrada ekarri zuen behin-goan. Zutitu eta Luisi begira geratu zen Onofre. «Barkatu».

-Hi burutik hago. Goazen aterpe bila -Luisek oraintxe esan moduan gogoan Onofrek bere erantzuna-. Kapilara.

-Zigarrotxo bat? -eskaini Luisek eta «Hemen kanposantuan?» esan ziolarik, lagunak haserre bota zion-. Defuntuak ez dozak itoko gure keagaz. Gainera erretzeak beroago nagoela sentidu arazoten jeustak.

Bere jokaera eroapenez hartzean Luisek erakutsitako zabalatasunari erantzutearren, amore eman zuen Onofrek. Guztiz bestelakoa da orain-

go bisitaldia. Lasaigo onartu du Ciclonen eskaintza, zigarro bana erretzeko.

-Monagilo ibili nintzaneko lehenengo itotakoaren tunbea dok horkoa. Eta alarguna, hartu eta bertan jateko modukoa zuan.

-Baina itotakoa be hor dago lurperatuta ala?

-Kontu luzea dok. -Esku bana poltsikoan, zigarro bana bestean, iluntzea gainera datorkie lagun biei. Euria zeragoion Luisekin egon zenekoan, irailean ezik beste ezein sasotian ez dakién moduan, zarratu eta berde. Gaur, ostera, gorri eta zabal dago ortzea Onofrek bietan ekin dio berdintsu, hizkuntza gorabehera.

Alargun gaztea senarraren gorpua barik geratu zen, ze, Indikoan-edo uretara jausi eta ez zuten berreskuratzerik izan.

Emakumeak herriko ederrena izaten segitzen zuen, horregatio. Lutoak atsoen soinean Herioren jarraigoa gogorarazten duen eran, Erosen deia luzatzen du gazteak jutzen duenean.

Zurumurrua zabaldu zen herrian, emazteak bisitari misteriotsuren bat izaten duela lantzean gau batean. Edo bisitari bakarra barik gehiago

izaten direla, gauzez denon itzalak bat bakarra direla esan daiteke eta.

Halaxe igaro ziren urteak, alargunaren edertasun zurbila ederregotu egiten delarik, zimeldu beharrean. Eta halako goiz batean, domekaz, betirako galtzen hasita aurkitu dute, hau da, hilda. Alboan zuen gizona, berau ere hilda.

-Jainko laztana! Zorioneko amoranteak hil zijaizan biak!

-Kia! -Onofrek euriaz bestaldean zegokeen zeredonor ikustezin batean eskegita zituen begiak, orain keaz honantzago duenaren berdintsu-. Entzun azkena -dio.

Oin-hotsak aditu ditu emazteak, eskaileretan gora datorren baten batenak. Ikaratuta dago. Aspaldion ausartago zirikatzen dute gizonezko batzuek kalean. Nor ote den, atera hurreratu da, ez sukaldean duen kutxilo ederrena eskuetan hartu barik, ostera.

-Nor da? -galde egin eta «Neu» erantzun dio ateaz bestaldetik ahots batek. Askoz ere urrunagoko beste ate batetik datorrela eman badio ere, ezagun kutsua hartu dio ahotsari.

- Eta? -Luisek.

Atea zabaldu eta ilenti pareta ikusi zuen, besterik ez, emazteak. Gizonak besarkatzeko keinua egin zuelarik, erasotzat hartu zuen alargunak. Kutxiloa gizonaren saihesten artean bide egiten hasi baino ez eta, senarra dela konturatu da. Beranduegi. Gizon haren begiek aldean zekartena itzela zen. Hondoraketa, salbamendua eta, gero, kalentura ezezagunek jota urteetan ospital galduren batean. Halaxe geratu zitzaizkion zoro-begiak, ilenti goriak lakoak, izugarriak. Eta bihotzak erantzun ez, eta emaztea ere gau berean hil da.

-Hori dok, ba, alkar hiltea.

-Ez lagun, zurrumurru gaiztoek hil jutzen andra-gizonak -Onofrek bere akabera ikusiko balu moduan dio. Beherago ubehera dago itsa-soa. Hareazko unadak azalean dira, hil-argipean zilarrezaturik. Eta ez da ageri hor itotakoen arrastorik.

Kanposantua erakustean errealitatearen lepoa erakutsi diola igarri dio Ciclonen Onofreri, hantxe goian ageri bait dira ispiluan legez aberatsak eta pobreak ondo bereizturik betiko, behe-ragoko herrian biziak legez. Bestela, Ciclonekin egin duen adiskidetasuna herriko mihingain guztiek akitu arte erabili behar duten gaia denaz ziur, iluntzeroko osteratxoak udari joaten uzteko bide bihurtu zaizkio Onofreri.

Harrigarri egiten zaio gizonen arteko adiskidagoak ohi dituen bide bihurriak. Luisena hoztu zitzaion eran eta leku beretsuetan irmotu zaizkio lagun berriekikoak. Ohizkoak egin dira iluntzeetako pasioak, beti ere jendemodu eleganteen aldean zapaldu barik herri inguru guztian barna egiten dituztenak. Lantzean osteratxo bat egiten dute burdinbidearen alboko aldatsean gora, Anitaren orturaino, eta han, emazteak lagun berria atsegin ez duela ohartzen da behin eta berriro. «Ez daba trenak ekarrinekoa hori be?», esaten dio gero afalorduan eta Onofrek grinatsu ekin

behar izaten dio lagunaren ezbeharren letania aletzeari. «Preso ekarri eben; berak gura barik, aitzitik». Eta ez dio azaldu nahi Anton hura hilik denik, zergatik eta Ciclon preso egin zuen gerra berberean segitzeagatik. Sekretua bera eta Luisen artean ondo gorderik dute, Doroteok dakienik jakin barik, harik eta uztailaren hondarretan herrira atzera azaldu den arte, agur-kutsua izan duen bisitaldian.

Goizerdia aldera izan da. Portuko karkabara jotzen duen bere gelatxoan egon da jesarrita, 'Point counter point' aspaldion ukitu ere egiten ez duen liburuaren bizkarrezur luzengan idatzirikoari begira Antonengana doakiolarik gogoia, Bachen musika orekatuaren hegal-maniobretan. Fitt! egin dute kaletik eta behingoan ohartu da. «Doroteoren txistu hotsa».

Ez da Doroteo bakarrik izan. Adela ere hantxe ikusi du, plano pikatuan, arropa luzenga soinean, pamiela buruan, itsasotik datorren hozkiriak bere esku ikustezinaz atzetik oratu eta janzkia bigarren azal baten moduan datxekiolarik gorputzari.

Anitak abegi amoltsua egin die, behingoz, orturako dagoelako barkamena eskatuz batera kafea eta gailetak eskaini ostean ezer ez delakotan galdetzeko Antonen berri.

-Zer da lagun harena, Antonena? Ez dakizue ezer? Ze zuen laguna be bada, ezta?

Anitak ez du borobildu bere esatekoa, modurik izan ez duelako barik, lar ardura dionik ez erakustearren.

-Ez dakigu ezer -Doroteok erabili duen pluralari susmo txarra hartu dio Onofrek bere kafekearen atzetik-. Beno, zeozer bai. Gizonak ez deutsu ezer esan?

-Zer? -Anitak bihotza ahoan erantzun du.

-Hilda dagoela Anton.

Bihotz bakoitzak bere lau zuloak, Anitaren begiek askatu duten iusturiaren lipar bateko argitasunaz hango beste hiruren bihotzak eta berea ere agirian geratu dira, sekretu bana erakutsiz. Anitak Antonenganako duen grina, zorbio egin da. Adela eutsi behar izan dio, Doroteok Onofreri luzatu dion begiradan honek ziur jakin duelarik Antonen sare bereko beste maila

bat dena. Doroteok berak Onofrek bizi duen ikararen neurria jakin duen bezain ziur.

-Zoazte nonora -Adelak senaz ekin dio Anita-ren aldeko maniobra xume bati.

-Kasinora -esan du Onofrek, neskak bertan sartzea errazen izango duen lekua delako. Kalea zapaldu baino ez eta, chester bat iziotu du, zeharkako begiradaz galdera mutua luzatzen diolarik Doroteori-. Zelan jakin dok Antonena?

-Ez deuat beste ezer esango zera baino, halakoak beti jakiten dirala, segun eta non, goizago edo beranduago.

Onofrek ez dio ezer erantzun. Ikara batek astindu du, beti goiz-edo-berandu jakiten diren horien artean bere umeara ere dagokeelako egunen batean. Ikararen oihartzunak gortu zaizkioneko bere artean ihardun du Antonen sare horretakotzat dituenak josten Doniane egunean Doroteo ez zela kasualitatez agertu izan erromerira eta orain ere ez dela hala izan, ziurtzako du. Jon sarean zelan sartu, beraudaez dakiena, makisa izanik ez bait zen hemengoekin ibili.

-Ez hadi dena ulertzen ahalegindu -igarri egin dio lagunak buruan darabilen gogoeta isila, Kasinorako harmailetan gora doazelarik.

«Hemengoak?», harritu egin da bere buruak oharkabean egin duen bereizketaz. Kasinoko sa-loia zapaltzean itsasoa ikusi du, azul eta bare, beiraduraz bestaldean. Orduantxe igarri du zer diren «hemengoak». Itsasoz alde egiten laguntzeko sarea da, erregimenaren kontra den edonor balia dadin.

-Onorfe jauna, zer izango da? -ipurdiak egokitu orduko egin die galde zerbitzariak, Onofreri gorrotoa eragiten dion akats madarikatu eta guzti.

Doroteok Campari eskatu du eta Onofrek bere betiko ardo zuria agindu du, lagunaren mizkeriak esanahiaren bat duenentz igarri ezinik. «Campari, kanpora», halaxe josi ditu hariak bere baitan, Adelaren ahotsaren hatsak garondoa epeldu dionean.

-Nik be beste Campari bat -eskuak Onofreren lepora luzatu ditu, katu higikeraz, gizonak ikusi barik ere igarri uste duen emetasunaz.

Emazteari gorputza galdatu behar diotela egin du bere artean Onofrek, lepoan dituen eskuek iraganarazten dioten isuri elektrikoak horretarako beharke lukeen energia guztia kortozirkuitatzen dion artean. Adelak berak erabagi du auzia, labur.

-Lagun handitzat izan dau ba berak egun bitakoa -Anita dela eta dio-; ez da harritzekoa ba holan paratea. Neuk be halantxe nahibakotu nintzan harena jakitean. Hemen datoz gure Campariak.

Ez diote gaiari berriro ekin. Doroteok gurago izan du batelekoagatik Onofrek sufritu behar izan duen katarroaz zirikatu, umoretsu.

-Kalenturearen erdian, ze sirena ikusten izan dok heuk ba? -zeharka Adelari begiratzen diolarik-. Sinfonietakoak baino melodia gozoen bat daukana da bera, hemen inguruan dagoan baten bat edo?

Beiradurak iragazten dien eguerdiko argiaren izpi oblikuenek baino berotzen ez duten miradorean jesarrita hiru lagunak, Onofreri jatekoa bertan agindu behar dutela otu zaio, euren arteko suak bihotzak azkenengoz berotzen ote dien,

susmoa duelako, hurrean. Berak ere ez daki. Eguerdi honetan dena egokitu da behiolako bazkari haren simetrian edo, falta izan ziren biak hemen direlako eta izan ziren besteak falta direlako orain.

Bazkalondoan trenbideko gorabeherak azaltzeari ekin dio gogotsu Onofrek, iluntzera arte geratuz gero Ciclon aurkeztu behar diela eta, beste mundu bat ezagutuko dutela. Doroteok erabat ezinezkoa dela esan du.

-Ez joat gura sidecarrean gauez ibili -moztu du, Onofreri harrigarri egin zaion eran.

«Behiola holan joan zintaten ba», esateko gogoia barru-barruko beste susmo ilun batek kendu dio. Adelari begira geratu da, beronek alde egingo ote dion.

-Hango batek keinu egiten deutsu -esan dio, begiak beste nonbaitean galdu guran ibili dituelarik hango beste batenak estekatu dizkiotelako.

Bertarantz begiratu du Onofrek. «Barkatu» labur bat esan eta zutitu egin da, chester bat iziotzeko mainobra aldi berean hasiz. «Genaro deika daukat».

«Genaro txakurkumea», hagin artean mamurtu du, inspektorea harro jesarrita, habanar zigarroari tenka irribarre zuri batez abegi egiten dion gizonaren alderantz doala.

-Zer, zelan doaz ba lehorreko kontuak ba?
-gizalezko berbon atzetik marrazuaren haginkada etorriko delako era lasaian bota dio.

-Tira -esan du Onofrek, hurrengoaren zain.
-Gogoaitu be ez haiz egingo ba, beti batelean edo pasiaten bestela, zeragaz, zelan esaten deutesoe berari?

Behingoan igarri du berri txarren baten enbajadore datorrena. «Madarikatu hori!» pentsatu du, jesartzeko keinua egin bitartean.

-Ez, ez hadi jesarri, egongo gaituk besteren baten, ze ikusten joat ba jendeagaz hagoana; baina behintzat jakik zera, ezin deuat lehorrekoa gehiago luzatu. Atentzinoa deitu jeustek Bilbotik. Asteon joan behar dok, edo itxi bestela postua.

Zerbitzariari dei egin dio Genarok, gonbitea luzatuz berriketa moztutzat ematen duela adierazi nahian. Halaxe ulertu du Onofrek ere. «Ezer ez», erantzun eta «tira ba» esan dio Genarori, mahaira itzuli aurretik, hartu duen telegramari

«jasoa» erantzuna emanaz, hamaikatxo milia urrunagotik itsasoan mezuren bat igortzen dionari bezala.

Aurpegian igarri bide diote aztoramena Onofreri mahakideek, ez bait diote ezer ere galdetu. Onofrek berak azaldu gura izan die, bada, hiru egun beranduago berriro itsasorako bidean, Sondikako aireportuan lehorra uztera eroango duen berria. Nahita ere Ciclon ezagutu gabe geratu behar direla eta, honekin gogoeta egitean, orduantxe ohartu da Genaroren ezkutuko zioaz. Zuzen begiratu dio. Zigarroa jasoaz batea luzatu dion irribarrea inoiz baino zuriago izan da eta, halaxe jakin du bere susmoa egia dena.

Onofre datorren hegazkinak Sondikako lehorra ikutu dueneko zerua goitik behera jausten moduan hasi du euria. Abenduak hilik ankerrena dela erakutsi gura izan die, eguerdiko ortze kedararen bidez, eta edurra dakarrela esan dio Londonetik Bilbora hegakide izan duen ezezagunak, hantxe airesuge helizetsuaren tripa barruan zutunik dagozelarik. «Sasoia be badok edurrena», ohikeriaz josi duten berriketaren azkena izan da. Eskaileretan behera jaitsi eta arrapaladan joaten hasi dira denak, han aurrean dituzten etxekoei aieruka eta keinuka. Onofrek ez du inor zai. «Bildurra emoten dost horrek trashteak», Anitak erabili ohi duen azken berba hori ingeles kutsuz ebaki du bere kautarako. «Hainbat hobe ez etortea».

Aireportuan bertan hartu duen taxiari Bilbora agindua eman dio, emaztearen ikarak berak herrira joan aurretik bakarkako libertadeaz gozatzeko abagadunea eskaintzen diolako pozaseturik. Golkobete eskutitz eta zorrokada li-

buru dakar, Anitak eta Doroteok idatziak lehenak, lagunak beronek erosteko aginduak bigarrenak. «Poesia bera be galazota diagok hemen», azilean egin zionekoan ziotson, Losada argitaletxeko titulo-zerrenda luzearen atalburuan.

«Topa be topako ote dot bera ba?», lekoreko mortu negutiarrari beha taxiaren ibilbide guttitan, tindi bat histen zaio betargia Onofreri. Liburu zerrendaren ostean elkar ezagutu zutenekoaren bazakalostean aitorturiko seta ilun berberaz idatzi zion, atzera ere, «Historia irakastea hemen Gobernu fasista onen politikea egitea besterik ez dok eta ori baino gurago joat diskoak eta kitarra sokak salduten emon nire kalbo-bizimodu tristea». Eta Adela ere tartean zegoen. «Hire preguntan ibili dok barrero be ¿zer emon eutsoan ba panderuaren soinuagaz batera?».

«Ezebez, gu biok artean olgetan ibilteak ekartson gozamenagatik egin juan dantza nigaz». Bateleko musua ere gogoan du eta, emakumeek bere buruko ortzean marraztu duten izar-multzoaren irudia osatu guran eman du azken itsasotea. Arenaleko argizko izar artifiziala.

lei begira orain, taxia pagatzen duen bitartean, Marina ezabatu den izarloka izan dela ohartu da. 'Biscayan Sea' horrek Argentinan egin duen eskala bakarrean Lavalloleko Euskal Echeara jo zuen, bihotza ahoan. Marinaren arrasto bakarra aurkitu zuen, beraren aita, ohar laburra eskue-tan eta asmo bakarra gogoan, inoiz ilobaren aita agertuko balitz ere, hari muturrak hautsitakoan umearen etorkizuna ziurtatzea. Izarloka ala une batez piztu, ernaldu eta kanposantuko airean galduriko su-txakurra izan ote den egin du bere artean, kaleko apain-argiei begira. Gorroto ditu Onofrek Gabonak.

Segarra zapatadendaren alboan igarotzeko-tan izan dela, geldi geratu da, erakusten diren oskiei begira. Ilara ondo doituetan ezarrita oinetakoak, lurkarak zein beltzak, aurrekalde borobila gora begira dute. Eman diote Onofreri barre-guraz lehertzear diren igelen ahoak, edo preso alaien ezpain haragitsuak, beheko zola lodia eta goiko larrualde mehearen artean osatzen duten aho banako horiek guztiak gorantz begira. Objetu berdinen pilaketa mihiztatuek egonezina eragiten diote. Afusilaketa ekarten diote gogora.

Baldur izeneko vulcarriera hondoratu ostean errudunak aurkitu behar zirela eta, goizaldeko zeru gorritua han atzean, zazpi txapelokerrak hemen eta gixajo hura hor erdian, begietan oihal beltza. Eta oilarren lehen karkarak egunargia lehortarazi orduko sei balek, sei ahotik irtenik, sei zulo egin zioten. Hamabi zapata ondo garbi ikusi zituen Onofrek, afusilatuari ez begiratzearren begiak hara ekarri zituelako. Zapata ilarek egoinezina dakarkiote, barruko karramarroari joko baliote moduan. Tindi bat mugitzen zaio eta arramaskadak ildoak zabaltzen dizkio bularbarruan. Ordenuaren barruan bera ez da besterik harien bidez ihardunarazten duten txotxongilo hutsa baino. Afusilaketa ikustarazi zioten. Gero jakin zen urpekari ingelesak askoz ere lehenago ikusia zuela Baldur hura, Gijoneraino jarraitu zitzaiola, gutxienez, eta han, urpetako sugea desagertua zelakoan, berriro itsasoratu zela vulcarriera, eta afusilatu zuten gixajoa ez zela ezein sare-sekretuko hari, ez maila, ez ezer. Mendeku hutsez akatu zuten. Ez zegoen han sokarik.

«Hori be sokakoa?», Doroteoren dendako leihoan ere zingol koloretsuak, urre eta elur, eta

punpulu itxurazko bonbilatxo sustarbakoak antzematean otu zaion lehena izan da. Behingoan jakin du Doroteo dendan ez dagoena. Maleta behean utzi eta «Egunon, edo eguerdion» esan eta batera jakin du, erantzun dionak eginiko begirakunean.

-Buenos dias -erdaraz erantzun dio, Doroteoren berdin-berdin kaska soildurik duen gizonak. Aita hurrean. Berbatik hara argitu dio, Doroteo, semea, ez dagoela.

Onofrek euskaraz ez ote dakien itaundu dio. Ezetz, bera ez dagoela semea dagoen moduan zoratuta. «Ahí al lado vivió Unamuno», Erronda kalea gibelaldean duelako keinua egin dio, destainez, «Semea eta Unamuno, zoro bi» esan moduan. Ea ba, bakarrizketaren haria eten barik egin du aurrera gaztelera ederto tajutuan, filosofoak esandakoa, «tal vez lo más sensato que dijo» euskarari hiletak ondo egin eta ehortz genezan, horren kontra egitearren zer dela eta ikasi behar izan duen semeak euskaraz.

-Algún recado? -josi du azkenburutzat. Liburuak ekarri dizkiola, Ameriketatik.

Enebadaka, semeak hainbatetan aipatu izan diona dela bera Onofre, hala bada, eta atzedendara joan da, zezeren bila, denda inor barik utzita. «Ez diabilk ba bezerorik bertan», Onofrek lehenago oldoztu eta lehenago sartuko ziren familia oso bat ematen duten bospaseiak. Zarata delarik bitea, dendako sarera arrapaladan itzuli da gizona.

-Déje los libros y llevese esto -liburuak utzi eta gizonak eman dion paketea hartu du. Eta hortik aurrera jaramonik txikiena ere ez dio egin gizonak. «Aita eta semea bi dozak honeek», atea ozta-ozta zabaldu ahal duelarik gauza guztiak aldean hartuta, aldarri egin dio, sumindura adieraztea eragotzi ezinik.

-Eta non dago ba semea -euskaraz. Ulertu eta erdaraz erantzun dio aitak, «Se ha ido».

Elkarri begira geratu dira une batez, ateburuan Onofre, bezeroei kaxak erakustetik kenduta begiak Doroteoren aita, biolentzi izpi batez biak, elkarrengan tajuera zehatzik gabeko zerbaiten erruduna ikusi dutelako. «Hanka egin dau», aitak atea ixteko keinuaz batera Onofreri beronek ere hanka egiteko agindua luzatu dio,

euskaraz. Agindua bezeroek indartu diote. Begira geratu zaizkio eta euren begietako suteetan irrakurri du atea ixteko, hotz dagoela. Atea itxi eta kanpoan izan da. «Diskoak», fardelaren itxuran igarri du, haztatuz. Geltokirako bidean botikadenda madarikatua begiztatu eta begiak leihotik aldendu guran igaro da, gizagorputzaren barrualdeak erakusten dituen manikia ez ikustearren. «Eta Adela?», zizt egin dio bihotzak. Anita gogora ekarten ahalegindu da.

Sendabidea okerragoa izan da gaitza bera baino, zeren gutunetan aipatu izan dizkion landareak, edabeak, ukenduak eta beste hainbat botikakeria etorri zaio burura. Gizonezkoen ezintasun hori, eta berau izan da Urigoienak agindua bete diola igartarazi dion lorratz bakarra, berak duena, ez dela betirakoa izaten, Tiarenean izan dela eta ikaragarri egongo dela ortua harek eman dizkion landareak hazita dagozenez, udazkenalderantz, eta nahiz eta «zu hona ailegatzean lore barik egon», ontzietan gorde dituela udakoak, letra ederrean idazten izan dio beti Anitak. «Kapitainaren alaba bera be!». Atxuriko La Guerniquesan geratu da, arnasa hartu eta tre-

nen ordutegia zehatzago jakinez gero estomangua zeozer ekarri beharko duelakoan. Bedar edabeak irentsi beharko dituela susmatze hutsak gomitolarri antzekoa eragin dio. «Bermuta», piloto automatikoak eskatu dio. Beste Onofre batek trenen orduen gainean galdetu du, behingoan. «Astia dekozu» erantzun dio baserritar itxurako tabernariak. Eta ahora eroatean bermuta berau ere bedarrez egiten dela eta, ozta irentsi du basoari ipurdia agerira ekarri barik, atzamar baten hondalearekin uzteraino. Trenean damutu egin zaio dena ez edana. Loak hartzeko tindi bat baino ez du falta izan.

«Ha hartu baheu, orain lo», erreka bestaldeko etxe-aurpegi lohiak atzerantz galtzen dira trenak abiadura azkartzen duen ginoan. Lehen tunelean sartu eta argiak piztu direneko eskerrak eman ditu, lo ez egotearren, zeren lurpean doan sugearen barruan jesarrita, epelen egiten zaion altzoa trenekoa dela erabaki du. «Eta Ikaztegietakoa». Hala tenk egiten dion beste lekurik ez du. Bapatean Ciclonen berri ez duela eta iluntzean hantxe izateko irrika zuzpeltu zaio. Beste altzoa, etxea, Anitarena da. «Oso-osorik ez», tu-

neletik irtenda kanpoan edurra geratzen da sagarrondo biluzietako adarretan. Arantza zuri dirudite. «Umearen koartoa daukak, hire pick-upa entzuteko». Bermutak uhin garraskila eratu dio estomanguan. Etorri ez datorren umea irudikatu du, gelan. Gero Anton etorri zaio burura, Rapsodia entzuten duten bitartean berbetan. «Hiru egun eta gorpu egoan». Bere buruari aitortu ez diona egundoko indarraz ageri zaio orain. Sei hilabetez uko egin dio Antonen argazkia garunetako azidoetan errebelatzeari, bekoki atzeko pantailan proiektatzeari, Antonen soinenbor-balekzulatua ikusteari. Umea ez da etorriko gela haretara, eta Antonen itzala, ostera, itzalagoa izango da, Argentinan duen umearena handiagoa egiten zaion era berean. Loak har dezan gura du Onofrek, edan ez duen azken bermut apurragatik madarikatzen.

«Horreek hor, ni hemen, eta bakoitza bere munduan danok», Onofrek bidaiariak ikusi ditu, lehengoz egin izan bailuen, eta bere bizitzaren sakoneko giltzarriaren irudia begitandu zaio tukupustean trena. Anton bere bizitzan gurutzatu zen, Gernikako geltokian beste tren horri, alboko

karriletan dagoelarik, «berau» parean igarotzen zaion moduan. «Gexu baten». Ondoren, zein bere bidean aurrera elkarri buztana erakusten joango dira. Ezer ez da ezeri kontrakarran, «izan be direanak aldiberean izatea baino», trenbagoi berean doazen guztiak zera 'eta' zera dira, inondik ere ez zera 'baina' zera. Ez dago bainazkorik. Ezkontza bera zer izan zen besterik, bada, haragoko jesarlekuetariko batean jesarrita zihoan beste norbait, Anita, eta Onofre bera, mugakidetzat leiho berbera duten aurrez-aurreko jesarleku bitan egokitu zirela baino? Trenak aurrera darrai, eta munduko kilometro guztiak egin eta gero ere aurrez aurre jesarrita doazen pasaiari biren arteko distantzia berbera izango da, hau da, laburra bezain infinitoa, laburtzerik ez dagoen tarte hori, larru biak eta gogo biak sikieran behin edo behin ere bategitea eragozten duena izanik, infinitoen bait da. «Larrua eta gogoa, biak», Buenos Aireseko hilerri alboko emea etorri zaio burura. Leizean behera jaustea izan da. Trenbagoiko muturraldean diren terraza antzeko plataformetarik urrunekora, atzekora, arrapaladan urten beharra izan du. Bermut madarikatua

jariokin garratz eta hori-gorri bihurtuta bota du, okadaka, bekokia burdinezko barandari dautso-la. Urdaila libratu duenean burua jaso eta itsasoko brisarak dakarkion kresal-airea usaindu du. Suspertu egin da, tunel pareta eta gero azken geltokia duelako lasaiago. «Diskoak ahaztu barik gero!» esan dio bere buruari.

Oinak nasan pausatu eta maleta behearen gainean utzita, begiez ingurua borobilean arakatu ostean abegi egiten inor ere etorri ez zaiola ohartzean huts egin dio barruan arimako zolak, eta esperantza isilaren hankek aborrots itzela atera du, garraixia ia, «Ez haranzkoan, ez honanzkoan» bere buruarekin haserre mamurtu du.

-Fardelik? -baten batek diotsola aditu du, «Onorfe» esanaz segitzeak argitu diolarik nor den.

-Tomas? -gogoeten areto ilunetik lekora eka-
rri ditu begiak aurrean duen gizonaren aurpegi-
ra-. Bai, berau maletea; eroistak etxera.

-Eta beste fardeltxo hori, Onorfe?

Ezetz erantzun dio, irribarrez, Tomasi txirrist egiten dion erre-hots horretan hurkotasuna aditu duelako, bizi guztian lehenengoz.

-Eutsi -paperezko hamar laurlekokoa luzatu eta etxerantz-edo abiatu da Onofre.

Kalean behera herrian erreko duen lehen chesterrari muturra iziotu dio, tentuz eta benatsu, zereginaren garrantziaz ohartuta. Lehena ondo sartzen bada gero dena doiago joaten da. Etxaurrean zigarrokina bota eta zapaldu egin du, Anitaren lehen begirakune berari joan dakion, tabakoari barik. Alferrik. Ez du inor aurkitu, hala da ze, diskoen fardela atadian utzi eta kalera egin du berriro. «Ortuan egongo dok ba» otu zaio, makurraldiak aldartea hondatu gabe. Herri guztia du ikusteko, eta trenbideko lanak. Agian Ciclon bera ere ikusiko du han.

Oinek berez eroanda ekin dio. Itsasadarraren ikuspegi osoa izan duenean gelditu egin da, urruneko mendiei begira. Edurrez zuri dagoz. Gero, okozpean artez begiratzuz gero hor azpian duen urari beha geratu da. Negua hotzago, urazala garbiago, hoztasunak gardentasun aratza

ekartzan dio itsasoari hondale txikia dagoen aldeetan. «Bizitzaren beraren ispilua».

Onofrek eskuak itsasoan bustitzeko irritsari men egin eta uretan artez sartu dituenean aizto zorrotzek eskuturrak ebagi bailizkioten izan da. «Bizitza bera» otu zaio, agerikoak, urazal erakar-garriak, eta sakonekoak, hotz erikorrak, elkarrekin zerikusirik ez dutelako, eta amarrua ikusten ez duenak min hartzen duelako. Luis datorkio gogora. «Trikimailu hutsa». Isabelitak kezko eta lurrunezko adarra luzatu du han urrunean. Ciclon lanean irudikatu du. «Hobe dok Kasinora baha zoezer jatera». Egunean baino egunean luzeago egiten den convoy bilakatzen zaizkio gomutak. Bagoi bat abiatuz gero beste guztiak atoian datoz. Mendia zulatzen duen Isabelita horren luzea den sugea nabari du berak ere enborreko leizeetan barrena. Eta gauetz abiatzen denean trena, akabo. «Hobe dok zoezer jaten badok». Itsasadarrari lepoa erakutsi orduko hondartzaz bestaldean dagoen muinoan pausatu zaizkio begiak. «Kanposantua beti geldi». Euri tangadak jausten hasi eta estutu egin du ibilkera.

Kasinora joatea txikitako eskolara itzuli izan balitz baino okerragoa izan da. Sei hilabetean kanpoan izan ostean puskada bateko tartean baino ez dela herritik kanpo egon, halaxe begitandu zaio Onofreri Genarok «Eguerdion» esan dioneko. Planeta honek darabilen abiaduran urte erdi iragatea bart gauean joan eta goizeon berriro hemen izatea da. Eta goizeon ohetik jagitzen loaldi txarra egin dutelako aurpegikera antze-man die Kasinoko hirurlau parrokiarioei. Laster jakin du begiak zuriz gora jarri badituzte beragatik izan dela.

-Jesarri hadi hemen gizona! -Genarok leku egin dio ABC txarto tolestua eta errioxa-boteila-txoaren artean-, ikusten joat ba bizirik hagoana. Pozten nok, pozten nok.

-Bizirik? -Onofrek zurtuta begiratu dio Genaroren bekokiari aspaldi mahatsa eta orain odol lodi den ardo usaintsuaren arima bere egiten duen bitartean.

-Gaixorik hagoala zurrumurrua zabaldu dok bazterretan eta, badakik, izaten dana baino handiagoa esaten juek beti -arnasaldi batean jaurti dio Genarok, eta ezer ez delakoan egin du jauzi beste hari batetara-. Zelan Biscayan Sea hori? Gure konpainiko ederrena dok bera.

Konpainiko inspektore-buru egin berri Genaro, barkatu egin dio Onofrek 'gure' horretan bera ere sartzea. Ardura diona bestea da, «Ze gaixotasun diñok?» buperatsu bat esan eragin diona, hain zuzen.

-Ene! Ez dok ba tentel-buru egingo, ze heure andrea dok esaten ibili dana. Umerik ez egitearen zera -berriro bete du Genarok edalontzi pareta, bere paparrari hitz egingo balio bezala beste inork ez entzuteko moduko sekretu handiren bat duelakoan-, ezin ba, heuk ezin dokalako ei dok.

Ardaoaren arima ilunaren usaina aditu du Onofrek sudurtzuloetan gora garunetaraino bide bila. Bakea ekarri dio, logura emez kutsatua. «Arin ibili dok ba batzarretan bera», emazteak Urigoienaren berriak jakitean behar izan zuen la-

saitasunezko ufada irudiatzean irribarrea ezpainatu zaio.

-Onorfe Jauna, zer gura du berorrek? -zerbitzari hau ere madarikatuen zerrendan duela ahazturik, irribarrea zabalago eginaz begiratu dio, behetik gora, «Zer? Jatekoa diñok?», eta Genarori luzatu dio erantzukizuna, «Biok berdin».

-Sopea eta lapikokoa, egon dagoana? -leihotaz ate susmatzen den hotzak beste ezer jateko erarik ematen ez duelako aieruaz-. Baina egon hadi trankil gizona, umeak enbarazua baino ez dozak eta.

-Hartuik heuk lehenago -Onofrek Genaroren arnasakeran igarri ahal du haren atsegina, aspaldi lurperaturiko hezurra agirira atera eta laster kosk egingo dion zakurraren modura, adurra dariola. Orduantxe igarri du aurrean duen horrek ez duela ezer sinesten, eta beste zeozeren bila dabilena. «Honek zeozer jakik».

-Ganera botikak jagozak; hortxe jaukak penizilaren inbentua -Onofrek «Hara berton gako», barruan lehertzeaz izan duen sumendia baretu egin zaiolarik egin du bere artean-. Lehen fran-

tses gaixotasuna harrapatu eta kanposantura, eta orain barritz!

Amaitu barik utzi du esatekoa, Onofrek konfidentzien ganbarako atea zabal dakion. «Nirea ez diatorrek hortik» esan eta behingoan ohartu da bazkalkidetzat duen piztia durditurik utzi duenaz. Aho biko ezpata dirateke Onofreren hitzak, beronek polito dakienez. Gurata esan ditu, Genarori eskaini gura dion amukin tentagarri izan daitezzen, «eta Buenos Airesekoa?» itaundu dakion, amua irents dezan, zeren ezintasuna gaixotasunagatik ez bada, Argentinako umea nola egin duen galdetu behar izango bait dio.

-Ederra bisigu hau -ekarri berri dieten arrainaz esan du Onofrek, besteak murtik ere egin ez duelako. Olatuak popadan datozkio. Euron sakeda indartsua baliatu guran, Genaroren uretan sartu da.

-Bajakiat, Genaro, biok behar izan doguna injeziñoren bat edo beste inoizko baten.

Ez dio huts egin trikimailuak. Hariz aldatu du Genarok. «Umearena ez diakik txakurkumeak».

Gonokoziarena daki Genarok, barkuan etorri bait zitzaion Onofreri gaitza eta, han, baten

batek konpainiaren begi-belarriarena egiten zuen. Zorionez gaitz ikusgarrienek eragin ohi duten shockak erotik erauzi zuen Onofreren buru-basoan ernaldu berri zen kezka hura, umearekikoa. Buenos Aires utzita berehala hasi zitzaion hazgurea. Hasieran kasurik egin nahi gabe, «Hotzitu egingo hintzan» ziotson bere bu-ruari komunerako bidean. Gernua isurtzean zakil barruko hodi mehea erretzen nabari izaten zuen, kanporako bidean jarioarekin batera arkakusoak edo inurriak, suzko hankadunak, arrastaka ekarri moduan. Hazgura eta erreturaren ostean usain sarkorra aditu du halako batean, eta usainaren gorputz itzelak sudurra bete dio. Koloretsua, beroa, beste gorputz batetik datorkio. La Negra haren sexutik.

Marinaren aitarekin izandako berriketa luzea du berriro gogoan. Haren eritzirako alabaren etorkizuna zutoin sendoetan finkaturik geratu zenean, handik aurrera Onofrek bere alogerearen ingeles liberetako batzu sei hilerik behin Llavellol-era etorriko zirena ziurtatu bait zion, emakume-katerik gabeko gizon bik tratuak ixteko

behar duketen eraz baliatu beharra zutela esan zion Gerbasio hark.

-Chacarita aldean etxe itzel ona diagok -hizkera ere aldaturik esan zion Onofreri, izen hura kanposantuarena ez ote zen bada?, gomitolarria egin zitzaion-. Aurpegi zantarra ikusten deuat. Jandako zeozerk ez deua ondo egin. Baina maneia gaitzen; hantxe joango jakazak aje guztiak.

Heriotza jai bihurtzen du Buenos Aireseko hirerriak. Hiriaren barruan dagoen beste hiri bat da hura, oinezkoak baino hirurlau arrabete gorago diren estatuek populatua bera. Eguzkiak hesien gaindi mendebaleko aterpean gordeta zuelarik burua, gizakiak itzalen barruan bizitzen hastekotan ziren, itxuraz. «Gizon hau eginda diagok baina, bere eskuetan hauka», pentsatu zuen behin eta berriro. Taxistak 'El morucho' izenekoaren aurrean esan zien, «Ya llegamos», berbatik berbara esateko, «Ah!, Gardel». Orduan jakin zuen Gardeli esaten ziotena El Morucho. Haren heriotzaren osteko hemeretzigarren urteko sukarrak argi iragarri gura zuen hurrengoa, hogeigarrena, munduaren akaberarena izango zela.

«Hilak eta fantasmak be jaten emoten juek»,
umea etorri zitzaion gogora, haren izena zein ote
zen, Gerbasiok argitu gabe utzi zion. El Morucho-
ko atean galdetu zion.

-Carlos!!! -aldarri egin zuen, behin zulo
haren barruan sartuta-. Carlos.

Onofrek ez zuen jakin zertara zetorren izena.
Oraindiko ere ez daki. Gerbasiok carloska egin
zuen andreen besoetara. Bera zurtuta eta zun-
tzunduta geratu zen. Pampako iruditeria zaharki-
tu guztia zegoen han, Platako kosmopolitasun
europarrak kutsaturik. «Mestizoak» otu eta
Cristino etorri zitzaion burura, orain Genarorekin
hitz egiten dagoen leku berean bazkaltzen izan
zirenekoan.

-Hor diabilk ba egunero ortura hire andrea
-bisiguari erdiko hezurreraino sartu dio aiztoa,
trebe, Genarok-, hantxe bedarretan edozertara-
ko erremedioak dagozala eta, erein eta batu,
batu eta erein. Sorgin moduan, esaten jeustak
sarritan andreak.

«Ene!», alerta argia piztu zaio Onofreri, «be-
rriro diatorrek hau», pentsatu eta lehenbailehen
zeozer erantzun behar diola, bere baitan gailurra

aidean lehertzearen duen sumendia du eta, berau hoztearen. «Andrak!», beste hari batera jotzeko bide erraza utzi dio. Genarok bisiguaren begi bat hartu eta ahoan sartu du, arrautza zuringoaren antzeko mintz eta guzti.

-Hirea ederra ganera! -begi mintza barrurantz irensteko jo duen xurrustadak ezin estaldu izan du Genaroren hitzetan behera labandu den bekaizkeria.

Ederretan ederra El Moruchon besotik oratu ziona, Gardelen argazki hari, 'El tango de Broadway' filmekoari begira zegoela.

-Tenés cara de haber sufrido; vos amuraron, o es que palmó la grela?

Onofrek ez zuen aditu. Begiek egin zuten lan guztia. Aurrean zuen emakumea beste ema askoren kumea betigandu zitzaion. Emakume guztien kumea. Indiarra ezpainez, beltza larruazaleko distiretan, paristarra hormetako argazkitik Blanca Vilchesi harturiko ile-orrazkeraren tanke-raz, sabelaldean leun egiten zitzaizkion belaun-zeetan gora hasitako borobiltasun doituak, sorbaldak hain tente eusten zien ditien bila hasi orduko atsedean behar bailuen haren larruazal ten-

katuak. Etorri zitzaion usaina musikaz itsatsi gura izan zion neskak. Hantxe ikusi zuen azkenengoz Gerbasio. Sarrerako atearen ezkerretara gorago pisura zuzenduriko eskaleretan zeramatan atso bik. Eskalerotan gora igo zenerako galdurik zuen aititaren arrastoa.

Biscayan Sea haren kulunkadetan dardaka nabaritzen zuen itsasoabaino segerutu ugariago zuen gorderik «Llamame Negra, Mi Negra», eskuak beldur barik gerria baino beherago ausartu zitzaion emakume zati hura. «Bera eta bat», behin eta berriro etorriko zitzaion burura haren usaina, penizilinak bere lana egin zezan injekzioak kin! egingo zion guztietan. Genarok berak ere ondo jakin behar du halako ziztaden eragina. Gogoak bisigutik alde egiten dio behin eta berriro, neskarengana.

Larrosaren hosto ireki bakoak legez, usainezko mintzak zituen, arropazko azalak bezainbeste. Eta kanpoko petaloak hatz pundetan zirikoak izan baziren, eskaileretan gora igo ahala haren azpiko errasoa erakutsi zion, eskuei geldi gera zitezen eragozten zien ehuna bera. Azken mintzeraino eginiko txangoan brodatuak eta fan-

tasiak idoro zituzten Onofreren ahur gosetiek. Belarriak laztanduz jakin zuen hiru angeluko basoa estaltzen zuen oihal-laino mehearen laburra. Luze eta borobil, biak aldi berean, haginez ikasi zituen haren ezpainak, mardo zituen alde guztiak, lepoko gihar sendoak, galtzarbeetako zubi-arkuak; harik eta Negra harek, «Mi negro» ziotsalarik, berak hartu behar zizkiola gorputzaren neurriak erabaki zuen arte. Gorputzak toles-turak eratzeko gaitasunik duen alde guztietan gorde mihia, eta atera, hankarteko hezur-arkura etorri zen, eta bero laztandu zion luzeago ezin eta alboetara handiago hazten zitzaiona. Odolaren taupadek bihotza bertara lehertzera bajaturik zela eritzi zion zeukala zakila. Hamaika bider gura izan zuen irten zekion arima handik kanpora, eta beste horrenbestetan atetan utzi zuen emakumeak, bizia barkatzen ziolarik hala. Lehengoz egin zuenetik hara ibilbide parabolikoa zuela egina, halaxe irudituko zitzaion itsasoari begira gero, «Halako andra batekin hasi hintzan eta, beituk», gorrotoa hartuz bere buruari, barkukoek apurka apur apurka denek jakin bait zuten. Eta orain Genarok ere daki.

«Eta hara berau, zerekin datorren orain»,
Onofrek irribarreari deitu dio, enpaguaren enpa-
guaz okerturik duen muturrera etor dakion.

-Enpagua emoten deua ala?

«Heuk emoten deustak enpagua» esan barik
utzi eta «Ez» erantzun dio. Genaroren jateko
eran igarri du haren azken barru-tolesdura.
«Señor baten moduan hemen jaten, andrea se-
ñora daualakoan; eta amets, inoren andrea egi-
ten jok, berea izan be marsopea dok ta», Ono-
freak agirian egin du barre, Genaroren emaztea-
ren gerrialdeko zabalera gogoan. «Eta gainera
ez jakik jatekorik egiten!».

«Emakumeak lamina izan daitezen gura
joagu guk», Doroteok sidecarrean esan ziona go-
mutatu zaio. Negra ere lamina zen. Hamaikatxo
bidarrez plazerezko gailurretara ekarri eta beste
hainbestetan maldan behera amil zedin uzteak
gorroto-ateren bateko zerrailari mihia gordarazi
eta sarrera aske geratu zitzaion herrari. Onofrek
gainetik kendu neska eta belarrondokoa jo zion,
esku-atzealdeaz. Aidean joan zen behera neska.
Indarrez altxarazi eta ipurdia eman ziezaion
agindu zion. Egin egin zuen emakumeak.

Bekokia izaretan, ukalondoak oheari trabes eusten zion burdinean, luze bizkarrezurra zaldi lepoaren antzera, ipurtzuloan landatu zion, min emanaz, gurata, ekintza haretan munduari mendekua hartuko bailion. Makurrarazi egin gura zuen, emakume harengan, ederraren ederraz itsutu egiten zuen harexegan, guztien aurkako mendeku-grina iziotu bait zitzaion. Gogor jo zion larrua. Hoska, bere pizti-trosta arrapalada bilakatu zitzaion. Gero eta sartuago bere buruaren oihartzunetan Onofre, gorturik, ezin dekodifika zuen beste izaki harek ziotsona. Frantsesez. Hamaika bider barruan geratua zitzaiona taupada luzeetan irten zitzaion ipurtzuloko berotasunera eta orduantxe ohartu zen, neskak aldarrika egiten zion, frantsesez, españolez, ahal zuen eran. Min eman zion. Eta elkarren artean biluzik eta begietara begira geratu zirenean Onofrek ifernutik hara antzeman zuen leizerik sakonenean dirakien sua, gorrotozkoa barik eldarniozkoa, zeren herra, aiherkundera, grina gaiztoena ere, hurreko egiten den eran urrun eta izugarrien egiten baitzaigu larrukidea, ukitu eta ukitu egiten

dugun hori berori, izpirituz larrupetik at dagoela antzematean.

-Habeis sufrido vos -sufritu egin duzu,esan zion neskak-, peropor vostra culpa -baina zure erru hutsagatik, gaineratu zion-. Querés vengaros? Vengaros en vos mismo.

Min eman zioten Negraren hitzek, gero etorriko zitzaizkion kokoena baino handiagoa, latzagoa. Bere buruan mendeku hartzeko esan zion, zuzen gainera.

Neskaren akordua Antonen irudiarekin batera datorkio orain, Kasinoko komedorean Genaro duelarik aurrean. Beilan emandako gau bana utzi diote. Zauri minberak ireki zizkioten biek.

Aldaba altxatu eta jotzekotan izan denean kollarreko atea barrurantz egin dio Onofreri, «Tira ba, zabalik diagok», eta eskaileretako argia piztu barik egin du gorantz. Goizeko bermutaz hasi duen soka lar luzatu du. Anitaren gorputza hamaika aldetan borobildua, ilegurizko baso sarriez han eta hemen apaindua, arnasa hartzea bera ere eder eta laso egiten duena, hantxe bide da itxaroten, sei hilabeteko egartearen ostean. Goiko atea ere zabalik igarri du, argi-xaflada luzengatxoa kanpora irten dadin uzten duelako zirikituak. «Altxata diagok».

-Honeek ote dira orduak ba? -eskaratzeko ateburuan egin dio abegi haserre mingarrez, gizonarenera hurreratzeko zirkinik ere egin gabe-. Aspaldi ekarri dau Tomasek mailetea ba.

Onofre geldi-geldi geratu da, itxuraz makineria guztia lotan duen katuaren eran, hau da, edonora jauzi egiteko prest. Buruan egin dituenak ez dira ohean egingo arean. «Zeu be ez zara egon

eta!», atxakiaz leundu beharrean esan eta erantzuki begitandu zaio atoa.

-Gero kasinoan bazkaldu dot.

-Eta oraintxe amaitu dozu jatekoa, bai?

-Lehen kolarrean itzi dodana? -Onofrek uraldeak dakarren iceberga saihestu guran esan eta eskaratzerantz egin du-. Arin esan dozu ba nire gaixotasunarena. -Eskaratzeko bere aulkitxoan jesarri da, belaunak paparra baino gorago eta okotza euroi dautsela. Anita errukitu egin dela otu zaio.

-Hara! -apatx egoteraino makurtu eta besoak belaunetan, eskumuturretatik oratu dio senarrari-. Zuk ez dakizu nik iruntsi behar izan dodana eta, barkatu eistazu ba.

-Eta bedarren kontu hori? -Onofrek begietara esan dio, elkarrekin lehian hango esmeraldazko lautadetan dituen suteetan kiskaltzen bereak. «Sorginen kontuakez dira ba?» Anitak barre egin du, beheko ornoan abiatu eta garondoraino sugarearen bidea egin duen dardaran.

-Betiko lez, zeu osatuteko dira bedarrak, ez dago ezer barririk horretan, oraintxe famatu bada be -eskumuturretatik kenduta belarrietara

ekarri dizkio eskuak Anitak, musu emateko burua ere aurrerantz eginaz-. Edan egin dok!

Zuntzunduta Onofre, egin duen uztai-higikeraz metro bat harago eta zutik gelditu zaio Anita. Begietako suak haizete itzel batek astindu eta hedarazi bailituen hedatu zaizkio, ezpainetako dardaretaraino.

«Gabonak be badira ta», Onofrek ohera artekoan esan dituen azken hitzak izan dira, zeren frontisean akatsa aurkitu eta jagi egin beharrean tak! hantxe hilda jausten den pilotaren berdin geratu bait da. Atezutik okerrago ez irtetzearren, astia eman nahi izan dio Anitari, biluztu eta ohean sar dadin, hala da ze, pick-upa duen gelara jo du, Doroteoren fardelak dakarrena ikustera. Egon den moduan utzi du, zeren hormetan eme-eme airearen dantza berean dabiltzan argiune horiskek zur eta lur utzi bait dute.

«Hau be zer da ba?», bere artean egin du lehenik, eta tximista moduan gelara joanda berdin esan dio dagoeneko ohean eta argia amatata dagoen emazteari, «Hau be zer da ba?», ahots totelaz.

-Ha argia? Santuari ipini deusat, Tiak esanda, gaixotasunean lagundu deiskun zeruak.

Erantzi eta ohean sartu da Onofre, larru-suamoltsuaren guran, gorputzak, makur etorri zaizkion guztien gaintetik, bere lera eta garramurra sutuago dituelako.

Anitaren ipurdimamiak irtenago burua eta oinak baino, lepoa ematen diola erakutsiaz, halakorik ohartu gabe Onofrek, «santuari lagundu egin beharko jako ba milagroa egiten», emaztearen belarrimamiaren bila berau apur bat goratuz esan dio.

- Ez!

Erantzuna ligorra eta zorrotza izan da, aizkorakada hotza. Kanpoleihoek barrura etorten uzten duten izarrargiak doi ukitzen duen sabaira begira, ahoz gora geratu da Onofre, birikietara arnasa tentuz eroateko moduan, zeren karramarroaren arramuskadak nabari bait ditu hango barruko hareatzan.

-Zer ba? -ahoskatu du, beldurrikaraz, Anitak beste umearena, edo beste gaixotasunaren igartzeko gaitasuna duela susmatu duelako.

-Zer gura dozu esatea? -burua burkotik tindirik ere higitu barik jaurti dio, esatean hortzidura eragin dion ligorkeria geldoaz-. Pekatua dela umerik ekarteko ez egitea? Ala gurago dozu esatea zure zantarkerien jakituan nagoala?

Ez orain, ez geroago ere beste inoiz, Onofrek ez du barrurik galdetzeko, airean geratu den biko horretan zein den egiazko zioa, eta zein min eman gurak ernalarazirikoa. Ala biakotediren egiazkoak, «Zelan jakin behar dau ezer ba?», ardura ere bigarrenak baino ez diolako, bere artean ekin dio mihiluzearena egiteko eran egon direnen zerrenda osatzeari, alboan duena zurrunen puxika puztu eta hustu, lo sakonean dagoen artean.

«Kakazaharra», logura beste behin ere hondatu egin zaiola ziur, jagi, prakak eta alkondarea jantzi eta karrajura irten da. Lekorean haizeak euri tanta galduak leiharraren kontra estrinkatzen ditu, mendekugura primitibo batek lipar laburrez puzkadako zartailuaz astinduta. Umearen gelara egin du eta hango orio-argitxoak dantza bera darabilela eta, puzkada batez iraungi du.

«Ezin jok ezer egin; Genarok berak ez bada-ki, inok be ez diakik eta, trunkil», logura berriro gortzeak eragiten dion alde zurretiko durduzuren bildur, burua beste zeozertan entretenu behar duela erabagi du. Begiak Doroteoren fardelari joan zaizkio. Eskuetan hartu eta barrukoa diskoak besterik ezin direla izan jakinda, zeintzu ote diren igartzen ahalegindu da, nagi burua eta urduri eskuak. Ludwig Van Beethoven, lan guztiak. «I eu be Losadaren katalogo osoa ekarteko gauza hazalako. Huxleyren lanak neu erosiko deudaz aurrerantzean. Ikusi arte eta goraintziak Adelak be. Doroteo». Papertxoaren esku artean oraindik, lagunaren idazkeraren azalean arkeologia zaletasuna duen baten arrastoa igarri uste du, eta kriptologoaren mezu ezkutua idatzaren mamian. «A ze sustarrak egiten dokazan eskribitzeko, Doroteo». Gogoeta honek sotorik sotoenean sentinaren batekoak itsasoko ilunbeetara betirako hustutzea eta gero hango atea zigiluz eta giltzarrapoz ixtearen berdina izan da. Zama itzela arindu zaiola nabari du. Eta zutik dagoela konturatzean astiro egin du jesartzeko, izarrargiari laguntzearen bonbilari tak! indarra

emateko baliatu delarik. Filamentuko sumendiak gela guztia argitu du. 'Point counter point', aspaldiko liburua hantxe du, Antonek utzi zuen leku berean, ukitu barik harrezkero. Eta bapatean Doroteoren mezua dekodifikatu du. Jonekin bat egitera egin du alde. Donianen agertu zenekoa, gero Antonen heriotzarena jakitea, alde egiteko gogoia, denak kate bakarreko begi egin zaizkio. Enciclopedia del Mar azal urdineko zazpi liburukiei begiratu die. Lagunen gomutak zulo egin dio flotazio lerroaren behetik. Handik arima barrura ur-garratsen sartukera eragoztearren, zuloa txaplazteko ahalegina egin du. Liburua hartu eta irakurtzeari ekin dio.

Egunargiak bonbilarena meneratu eta hits utzi duen arte egon da irakurtzen Onofre, jesaraldi batean egiteko urtebete luzean burutu ezinik izan duena. «Halako jende moduarena izango da Zeruetako Erresuma», nobelako azken hitzak irakurririk zutitu egin da leizetik irtenaz. Argia amata eta diskoen artean bilatu du, «Koartetoak, koartetoak», harik eta bilaturikoak begien aurrera etorri zaizkion arte. 'The Aeolian String Quartet. Estring Quartet N. 15 Op. 132'

dio diskoak azalean. 'Point counter point' nobel-
lan egiten dutenari bere esperientziaz kontra-
puntu egiteko gertu dago, hau da, Onofrek berak
ere diskoa entzungo du, ea egia den hor Jainkoa
badena, hots haren izatea, musika horrek frogatzen
duenentz jakitearren. Liburuko protagonista
biak horretan ez bait dira bat etorri, berak eraba-
gi dezake zeinen alde dagoen egia. «Ehun urte
lehenago Beethovenek, gorturik, soka-tresna ho-
rreen musika aditu juan bere baitan», liburua be-
rriro eskuartean, zutik gelaren erdian, bere bu-
ruarekin ozen hitz egiten dago, lehen mugimen-
duko bibolinek airezko bakealderen baten bila
dihardutelarik. Lantzean behin bakealderako bi-
dean belarrietako harritxingarretan eztopo egi-
ten dizkiote melodiaren oinek. Onofrek ez daki
Jainkoaren esistentziaren zein froga dagokeen
musikan. Antonen hitzak datozkio gogora, «Libu-
ru horretakoak berrogeitik gora miloi semealaba
lurrazaletik kendu juazen gerrea dan horma ho-
rren beste aldean geratu dozak», eta gogoan Jon
Ingelesaren akorduan geratu zaio zintzilik, bibo-
linek zalditeriaren trosta-pausoa ekarri dioten bi-
tartean. Orratzak ildo hutsak aurkitu eta krakada

hotsak hedarazi ditu. Orduantxe aditu du Anita suetean Onofrek.

-Ortura noa -ozen esan dio-. Armozua mahai ganean dekozu ta, eguerdirako etorriko naiz.

-Kasinora joango naiz -ateko danbadak Onofreren hitzak txiki-txiki egin ditu, eta ziurren, txirlora modura ailegatu dira ordurako kanpo-haizea arnasten izan den Anitaren garunetara. «Bost!», diskoa beste aldeaz gora ipini eta orratzari hango notak gelako inguratsean josteko agindu dio.

Hasi dira berriro ere bibolinak, hartu du berak ere liburua eskuartean, jesarri da kaleko argia artez leihotik hara edateko, eta guzti horrek sumindu besterik egin ez duela ohartu da. «Eta ez jeustak berba erdirik be esan gauekoaz, ezta murtik egin be ez». Anitak ez diola inoiz argituko «zantarkeria guztiak» horrek esan gura duena, hirugarren mugimenduko bibolin bakarlariari darrion histura sakonaren zolan ageri izan zaio idatzirik bezala. «Jainko bi dozak Beethovenena eta orio-argiari adi dagozanak ba!», liburua behera jaurti du, amorrus. Mezatarako deika kanpaio-tsak aditu ditu. «Bederatziak ia!», Anitak ortu-

rantz zein goiz egin duen, buruan izan duen puzzleak oraintxe erakutsi dio Anitaren beteko irudia. «Burutik diagok», Tia eta Urigoiena medikua, ortua eta botikategia, orio-argia eta pekatua, bide guztiak ditu Anitak haizu, denetarikoa zilegi, hemengoaz beste aldean ei dagoenari berak onez eman gura ez duena trikimailuen bidez kentzeko. «Eta Eliza, zertako dago ba?». Doroteok erantzun barik airean gera zedin utzi zuen galderak sitsaren zuloa egin dio kaskezurrean. Beethovenen bibolinek hirugarren mugimenduko hamabosgarren minutua bete izan duten artean Huxleyren nobela behetik hartu eta diskoaren orratzak egiteko dituen ildoak berregin ditzan arte zutik geratu da. Alaitasun pozezko baten notez egindako himno laburra izan da laugarren mugimendua. Hiru txilin hots aditu ditu. «Meza hastekotan diagok» otu zaio. Eta himnoaren pozkarioak elizarekiko ardura-gorapiloa musikazko baltsamuan urtarazi dio.

Armozua egin beharrean kafe hutsa xurrutadatean edanik kalera urten du, pick-upa piztuta eta liburua besapean, hesteetan sugetu zaion sendimenduak gorantz egitean halako

ume zirinaren keinua ezarri diolarik begietan. Ganoraz orraztu barik, gaua itzarturik eman duenaren jasaz, iziotu berri duen chesterrari su eta ke joaz, berak dirudi Onofrek zoroa, portuan goizeko hotzari arnaskada lurruntsuez arima berotu gura dioten arrantzaleen begietan behintzat.

«Hor joak zoro hori be» esan duela baten batek aditu uste izan du, beste guztiek kokota tente bertarantz begira teilatuetara datozen kaioena, berdin-berdin, egiten buruaz.

-Daukon andre sorginagaz harritutekoa be ez dok.

Onofrek berak ere han egon izan den guztietan egindako larruketen berri dakielarik joan da, «Egunon» esan agirira eta barruakoaz «Txakurkumeok» egin dielarik. Eurek ere berdin egiten diotena ziur daki.

«Beethoven erratu egin zuan bostgarrenean», Onofre, gero eta hurreratuago erabateko bakar-dadea den leizeko hegira, betirako joana sumatzen duen Doroteoren bezuzaz gozatzen du, Mundu erdi bihurturiko gelan, pick-uparen alboan eta orio-argirik gabe. Lehenengoz amata zue-nean Anitak agiraka egin zion. Erantzuntzat zuzen eta argi esan zion, «Orio-argi hori kanpora gela horretatik edo bestela amatatu egingo dot, barrero be». Harrezkero ez du sarriegi iraungi behar izan izpirituentzako su apurra. Zeinek bere esparrua dutela biek ikasi dute eta bakoitzak bere hesia sendoago egiten du, barrua seguruagoa izan dadin. Hesian gora aiherkundera hazten zaie, geldi egonaren egonaz goroldioa harrietan bezala, bihotz gogortuetan.

Anitak irratari sua ateratzen dio arratsaldeetan eskaratzean, senarrak kanpora joateko baliatzen dituelarik bazkalosteko orduak. Patuak eta asturuak barre egingo bailieten dela deritzo Onofrek, emazteak 'Dos cartas de amor' izeneko

foiletoia entzuteaz negarrak emateari. Herra diote elkarrenari. Bide berekoak izanik horma biak, zelan batean eguzkiak goizez eta bestean arratsaldez jotzen duen, eta zelan batean halako landareak eta bestean bestelakoak hazten diren, halaxe dira irratia eta pick-upa, Anita eta Onofre-ren hesietako horma nagusiak.

Bazkalostean trenbidea luzatzeko beharretan dabilzan aldera joateko usadioa egin zaio Onofreri. Leba-leba negua aurrera doa, bularraldean duen mindura zabalagotzen zaiolarik, era berean. Bada, Genarori erraz egin zaio medikuaren oniritzia jadiestea, denboraldi batean itsasora joan gabe egon dadin. Itotakoen arrastoa lehorretik igarri beharko du. Herri guztiak daki bere gaixotasunaren berri, berak ezik. Haatik, ez du Kasinora gura izaten goizetan. Gurago izaten du Ikaztegieta. Han, berak chester eta besteek Caldo xehea erretzen dutela, keek bildu eta bereiztu egiten dituzte parrokiakoak eta bera, dena aldi berean. Batipat bera eta Ciclon izaten dira keak hurbilago nahasten dituztenak, azken hau Ikaztegieta agertzen den apurretan. Andregaia egin du Satakatalinetan, Onofre kanpoan izan

den bitartean. Guduan ofizial gradua iritsi zuen lur zati hura, zergatik eta lurrarekin bat eginik ametrailadoreen haginkadei atzera egin gabe eusten zielako, huraxe bera, bertoko beste lur batekin baratz bakarra bilakatzeko bidean da. Inork ere ez dio gaixotasunaz itauntzen ikazte-gietan. Egon ere ez dagoen gaixotasuna, Cicloni berak gurata azaldu dionez. «Baina hoa hori esplikatzen Kasinora», berak bere artean egiten du, asmatu zuen jukutriak huts egiten diolako. Anitaren larrua libre gura izan zuen, eta horrekin batera Anitari berari mesede egingo ziolakoan, gogoia astuntzen zion zama arindu gura izan zion. Tamalez, okerretara ulerturik zuen emakumearen burua.

Ohea hoztu ezezik hormatu ere egin zaielarik, inoizko argoien dabil bera, eta Onofrek besotik hartuta kalera pasioan atera dezan nahi izaten du. Atsegin du kalean baten batek esan diezaion, «Zelan ba gizona?», gizon hori, Onofre bera, aurrean dagoenik ere aintzakotzat hartu gabe, balizko baten bati buruz egin moduan. Bien esparruak basoalde bana lakoak dira. Eurotan dabiltzan piztien apatxek eta hondakinek

mugarritzen dituzte, jabegoa ezartzen dute. Haizu zaio Anitari kalean gora kalean behera ibiltea, trostan zein pausuan, edozein eratarra. Areago, kale kantoietan geratzea dauka, nahi izanez gero, inork berari ekinean ekin gabe horregatio, eta dendan txanda okerretara hartu duela eta, inori mihiaren puntan bota barik geratuko ez ote zaion ironia, 'matxorra', horren beldur izan barik erriertan egin dezake. Apoteosia igandeetan izaten da.

Burgoi, tente lepoa, Meza Nagusirako bidean besotik joaten dira. Lehenago, etxean, Onofrek bere musika auzoko guztiena izan dadin uzten du, pick-upari ozen jotzea eskatzen bait dio. «Egun batekoagatik», edo «Domeka da», edozein atxakiaz. Halakoetan Onofrek edozer ekartzen du pick-upeko orratzaren azpira. Beethoven ezik.

Beethoven bere bakarkako oturantzetarako gordetzen du. Altxorra da. Eta giltzarria. Mezatarra baino lehen han barruan entzungo duen organuaren antzeko zeozer ipini ohi dio Anitari. Bach edo, kristinauak makurrarazteko zeozer «Kriminala, kupidarik bakoa». Gero, elizako aurrean el-

karren besotik askatu eta Onofrek elizatzera jutzen du lehenengo eta behin, eurei egunon esan beharko lieketen guztiak han barruan dagozela-ko, eta aste guztiko chesterrik gozoena erretzen du. Azken ke-ahokadek karramarroa anestesia-turik trenbideko beste beharginek, preso edo neskaren bat hartuta ez dagozenak, euron kartapartida egiten duten beste tabernara joaten da, Sol-era, zeren herrian esparruak bereizturik direla jakin duen ginoan, sortze bidean edo eratze-kotan dagoen ingurats berria idoro du hor. Iku-siz, gainera, hango denak ezagutzen ditu.

Bazkalosteetan ikusten ditu, egunero egunero, itsasoari trenbidea luzatzeko lekua kentzen, arrabete gaur eta beste bat bihar, izerdia lapur, odola ohoin, mendiari han ohostu diotena itsaso-aren sartune honetan ipini eta iruntzitara, itsas-pearri harriak erauzi haitzetatik, euriak behera labanarazi gura duen maldari eusteko hormaz, edota, aspaldion dabiltzan eran, zubia eraikitzen amaitutako aldi berean azken tunela zulatzen dihardutelarik. Banan banan ezagutzen ditu guz-tiak, hala da ezen, badaki, igandeetan Sol-enean ikusten ez dituenak azken presoak dira.

-Inauguraten danean askatuko ei juezak, ze, Franco ei dok etorteko -gogaituta dagoz, zenbaitan ez ote duten berdin esaten entzun azken presoan kontu hori berori. Gehienak erdaldunak dira eurak, eta kartetan trebe izateak dakarren adiskidetasunak tindika-tindika erdaldunago egiten ditu parrokiarioak, bat bera ere ez euskaldunago. Igandeko bazkalosteetan eguneroko ibilaldiaren mina izaten du Onofrek, eta ontzat ematen du Anitak gero eta sarriago egiten dion gonbitea, «Goazen pasioan», ze berak ere ortura ezin duenez, bide albotik ikusteaz eta gizonari landarak erakusteaz asebetetzen da.

-Horreek hartuko dozuz lorea emonda dagozanean -irunsi beharko ei dituen edabeez egiten dio berba, «Zure zikinkeria guztiak» zeintzu diren behin ere harira ekarri gabe. Ez dute gura izaten, ez batak ez besteak.

Onofrek badaki berak bedar-urik edango ez duena, badaki sekula ere barkatuko ez diona ere, horregatik ez du gura Urigoienari eskean joan, esan diezaion Anitari, «Analisi berriak dagoz; zorionak!, egizue ba, ekarriko dozue eta». Egunen batean Argentinako umearena ere

jakingo da. «Txakurkumeok jakingo juek, halan edo zelan, goiz ez bada berandu». «Eta diruarena diagok», laster hasiko delakoan emaztea Buenos Airesera desbideratu behar den diru zatiatzaz ohartzen.

Anitaren ortutik ezin hobeto ikusten da harrobia, zeinetatik porlana egitekoa ateratzen duten. Igande arratsaldeetan danbadarik gogorrena baino ozenago aditzen du Onofrek inor ez egoteak belarrietara dakarkion durundia.

«Goazen», artega esaten dio behin baino gehiagotan, harrobiko ormigoi hutsezko egitura biluziak bihotzeko sakonetan piztia berria esnarazten bait dio, eta ematen bait dio piztia horrek leizean amiltzera egiten diola dei. Leizaberatu egiten da, durduzurak erakarri egiten du, eta gino berean arrotzago ikusten du munduaren azala. Ortuari begira luzaroagoan egoten ez jakiteagatik hondatzen ditu, hurrean, ohean elkarri erakusten dioten lepo arteko sakana hori aidean desegiteko era. Dinamita bera baino burrundatsuago egiten bide zaio Anitari «Goazen» hori entzutea.

Haatik, astelehenetan goizez abiatu izaten da Onofre trenbideko beharginak eta lanak ikuskatzera, igandeko barauteak utzi dion garraztura eztitzearren. Eskuaz egiten die diosala ezagunei, eta erretiratu-taldeen moduan egiten du, urrets kimu gazte arteze bat ebagi eta azala zuritu, edonon jesarrita, uda hurreago, aroa horretarako egokiago bait du aspaldion. Jesarrita, Beethoven entzuten du, orogailutik hara, eta behin eta berriro otutzen zaio, «Erratu egin zuan bostgarrenean», hitzok esan gura dutena berari ere ulertezin zaiolarik. Eskerrak eman behar izaten ditu, tematuegi egonik sarritan hitzokin, dinamitaren eztanda-hotsak gortzen dizkionean belarriak ustebakoan.

Dan-dan-dan-dan, dan-dan-dan-dan, patua-
ren hotsak ei direnei dinamitaren danbada alde-
ratzea izaten du atsegin, lurmutur biek, Matxi-
txakok eta Ogoñok, zedarrantzen duten badiari
munduan diren besteren neurriak erkatzea go-
goko duen eran. Beste edonon izanik inurrien ze-
regina begitanduko litzaiokeena, gizandien be-
hartzako du han, zeren umetako olgeta-lekuak

izanik gehienak, orduantzeko begi ireki berriez ikusten bait du dena, zabal, handi, itzel.

Apea lodiak trabes ezarri lehenik, karril lu-zengak euron ostean, eta azkenik torlojuak iltzatu eta sarrarazi, Onofreri miragarri egiten zaio burdinbidea hazteko era. Zama-orgak, gurpildunak, taigabe ari dira gorantz zubi berriaren alde bietan. Presoek horko harrizko zutoinak ekarri dituzte itsasotik zerura harriz harri, eta gerran gal-tzaileen aldean ibilitakoak dira, baita, dinamita-ren maneiua egiten dutenak, txapelokerren begi zorrotzak beti gainean. Arriskutsua da zeregina. Oraindio tren-gurpilek euron gurtziez dirdiztatu gabeko karriletan odola dago daburduko behin baino gehiagotan jausita. Horregatik ez da ernegatzen Onofre dinamita behin eta berriro leher-tarazi behar dutela eta, guzti-guztietan aldarri larriak entzutean. Gaurkoan ezik.

Gaur apirilak bat du, lehena, eta alde bateko-ak garaitza bandera goi jaso zuteneko hamasei-garren urtea ospatzen dute. «Gezurrezkoa» otu zaio Onofreri, presoan lepotik barre egiten duen kaboari begira John Ingelesaren akordua bait da-torkio. Eta gero, erreskadan, Antonena eta Doro-

teorena. Gerra amaitutzat eman gura ez duten guztiena. Azkenean, dagoen lekutik altxatu eta oroigailuko ganbarari haize ematea erabagi du. Kaboak keinua egin dio eskuaz eta geldi geratu da, listua ere saman gogortutik.

Kaboa aldapan gora datorrela, zizparen zamak eta bideak berak burua makurrarazirik, eguzkiak buruko txarolean egiten du dantza eta Onofrek beldurrari ipuinen bat kondatzearren oraintxe berton tunelean sartuz doazen dinamiteroen kontua egiten du buruan, bat, Antonio, bi, Andaluz, hiru, aberatsa ei den iruzurtzaile falangista, txapelokerra eta bera buruz buru izan direneko buruturik egon da beharginen erreskada, «Zazpi, Ciclon», eta kanpoan geratu dena, zortzi, kapataza, bat edo beste zartailuaz maniarazteagatik arazoak behin baino gehiagotan izan dituena. Nondik zehatzik gabeko egonezinezko brisara bat etorri zaio.

-A los buenos días nos de Dios -Jainkoak deuskula egunon, jatorria salatzen duten hitzek esan dizkio ezizenez El Extremeño deritzon berdezko harek.

-Buenos días, cabo -erantzun dio, zalantzan 'señor' esan behar izan ote dion. Bera lanik egin gabe egonik besteak lehian ikusteak eragiten dion irribarre zabalak enpagu eman dio. «Itoko ahal haiz ba hire kapa horren azpian eguzki honegaz!». Ez dio halakorik esan. Eta kaboak aspaldiko haria hartu du. Ipotxa.

-Estábamos equivocados -erratuta egon zirela, gixajo hura benetan itotzeko zorian egona zela jakin zutenean, ba, barkamena eskatu eta alde egin zezan esan ziotela-, pero mire que era perro.

Hori hola zergatik ba, galdetzeko adorea hartu du Onofrek, adiago trenbidekoari haren hitzei baino, zeren kapataza han bait dakus, dinamita lehertarazteko hariak batera darabileneko tren-orgara ekarten, besteak bitartean tunelaren barruan direlarik.

-Tenía miedo de algo, y se hizo más culpable -kaboak berari ere ikara eragin gurako moduan diotso-; decía yo no he sido.

Eta bera zeren erruduna ez zen, bada, hura xe argitzeko, eta halaxe atera omen zioten aldarrri batzuk egin zirela, «Contra el Caudillo», Fran-

coren aurka, San Juan goizean erromeri-lekuan edo. «Tira! Hara zeri eusten deutson honek orain», Onofrek berriro ekin dio beharginak zenbatzeari, banan banan eta arrapaladan irtenahala, lehengokoaren atzekoz aurrera, zazpi, Antonio, sei, Andaluz, bost, Falangista, eta «Yo no oí nada» esan dio, Onofrek ez zuela ikusi, halako moduan non kaboak begietara esan dion, «Qué le pasa?».

«Bat, bat, zazpigarrena, non dago, ez jokurten», eta kaboari «Perdone» estu bat esanik arrapaladan ekin dio aldatz beherari, kaboak zoratu egin ote den aldarrika diotsolarik.

Kapatazak eskuartean du bateriaren etengailua eta Onofrek bat oraindio barruan dagoelako, alarau batean, «Geldi, geldi hor, ez, ez!» diotso. Jaramonik egin gabe, leherketa seinalea jotzeko erabiltzen duten turutatxoa ahoan ipini eta putz egin du, tuuuutt!

Beharginak bakoitzak irispidean duen lehen oztoparriaren atzean etzan dira, danbadaren zain. Kaboak aldarri egin dio Onofreri, «Echese al suelo». «Lurrera!!!». Kapatazak pozik, betekada

ederra egitekotan denaren harrokeriaz, une labur batez artez begiratu dio.

Eztandak harriak airean atera ditu tunel ahotik eta Onofre bera birinboloka jausi da kapatazaren oinetaraino. «Asesino», oso osorik aurpegiratu dio.

-Hi eginda hago, zoro hori -euskaraz erantzun dio kapatazak.

Durundia airean oraindik, harri zati bat hartu du Onofrek eskuan eta aurrean lasai-lasai duen hiltzaileari jaurtitzeko indarrak bildu ditu. Ez du astirik izan. Kaboak besotik oratu dio.

-Qué hace?!

-Le ha matado -Onofre zutitu den eran zutitu dira beste langileak ere. Durundiak atzean utzi duen isilunean aiene buperatsuak aditu dira.

Tunel barrukoa zaurituta bizirik dago. Hautsa besoak astinduz kendu guran, bertara jo dute kapatazak, kaboak, guztiek Onofrek ezik. Zubialdeko beharginak eta txapelokerrak ere hantxe izan dira laster, tunel zuloan zauritu bat badagoela ohartzean sirena hotsa haizeratu bait dute bertatik.

-Es el Ciclón -lauren artean beso eta hanke-tatik eutsiaz odoletan dakarten giza-apurreria-ren izena behin eta berriro aldarrikatu dute-. Es el Ciclón!

Kaboak, errepidera joanik, agertzen den lehen autoari altoa emateko agindu dio txapeloker bati. Beste guztiak kapatazaren inguruan bildu dira, biribilean, eta bertan laga dute zauritua. Hesteak kanpoan ditu. Bestela aurpegia osorik eta zerua ikusten dagoenaren betartea ditu ageri. Begiak zuri geratzen ari zaizkion bitartean kapatazari zuzentzeko ahalegina egin du, eta Onofre ikusirik edo, beroneri hitz egin gura dio, barrurantz joan beharrean kanporantz alde egiten diolarik arnasak, birikietako labirintoan non sartu aurkitzen ez duelako aireak. Unean unean baino meheago haria, hortzartean geratu zaio esan nahi izan duena.

-Akatu egin dok, kabroi horrek! -Kapatazak ederto ulertu duena frantsesa izan da kaboarentzat.

-Haga el favor, hable en cristiano; y ustedes -txapelokerrek errepidean autoren bat geldiar-

zi dutela ikusita kaboak-, lleven a éste a la carretera.

Eta besteak lanera itzultzeko. Onofreri berriz, erdaraz esateko esan duena, atzera agindu dio. «Le ha matado». Eta ikusi duen guztia, eurak biak han goian berbetan izan diren artean berak ohartu duena, xehe-xehe azaldu dio. Kapatazaren aurpegiak zirkinik ere ez du egin.

-No me dí cuenta -berak ez duela jakin Onofrek, beronek duen zoro izena eukita, zer adierazi gura izan dion-. Además, era un rojo.

-Ponga una denuncia si quiere.

Kaboak halaxe utzi du erabagita auzia. Bere zeregina han goian dagoela nabarmenarazteko arin-arinka ibilteari ekin dio. Onofrek atzetik jarraitu dio, dena ezerezean geratuko ote den, El Ciclón eritzi izan dioten hura, bertan akabatua eta erruduna zigorrik gabe geratuko ote den. Kapitainaren buruak egin du, ustebakoan, Onofrek dituen buru guztien buru.

Geldi geratu da kaboa, militar-airez. Okozpe-
ra hurreratu zaion Onofreri goitik behera begiratu dio, higuinez.

-Si quiere, ponga una denuncia, coño! -eta barruan duen suak txinpart egin dio aurpegira kapitainairi-. Usté siempre cerca de la mierda, cojones.

Hantxe geratu da Onofre, soraio. Kaboak ipurdia erakutsi dio handik goitik eta gero autoak abiatzean eragin duen aborrotsa eta kea aditu ditu.

Orogailutik hara Beethovenen notak etorri zaizkio. «Erratu egin zuan», hitzekiko tema barru-barruan landaturik du.

Zuzen jokatu duenetan ez jakinean egin duela, eta jakinaren gainean egitean buru batek beste guztiei gehiago egin diela, Onofrek berriro izan du bere adurra aldatzeko aukera, Ciclonen heriotzagatik salaketa jarriz izan ere. Ez du egin. Gogora etorri zaizkio Jon eta Anton, Ipotxa eta koarteliloan egindako goizekoak, beti entzun izan dituenak, «Horreen kontra ez diagok zer eginik», eta joaten utzi ditu egunak, Sol edo Ikaztegietan agertzeko beldurrez.

-Ez dozu ezer aurreratuko. Zuk hortik jotzen badozu eurek Antonen kontuari ekingo deutsee barrero eta, nik neuk ez dot esango, ez, ha Anton, edo dana dalakoa gurean egonez zanik, ez dot nahasterik gura nik. Halanda ze, ezer egitekotan be, egizu ondo pentsatuta -arnasa batean esan dio Anitak, eta haizeak belak puztuta segitu du hitz egiten-. Bihartik aurrera Bilbora joango naiz gauero lotara, amaren etxera, amama jagoten.

«Amama jagoten», Onofrek ez du erantzun, erantzun nahi izan zukeen eran, «Eta ni nork ja-

gongo nau, ba?». Isilik geratu da, errudunaren isiltasunaz. Gogoetan sartu da, bada, orain artekoan egin duenik eta sakonean, Beethovenen errakuntzen bila, haren biografian, eta musikan, bere bizitzakoak arakutzen. Azkenean Solera agertu da, eta hango parrokiarioek ez diote aurpegira erantzuteko zuzenik jaurti. Zeharka, begiradaren bat, isiluneak bera han dagoelarik. Besterik ez. «Azken batean ez dok hire mundua». Eta bere mundua zein ote den, bera ere gorra dela susmatu du.

«Gorra izatea besteak heu ez entzutea bebadok», hala da ezen, gortzat du bere burua. Areago, munduaren giltzarria begitandu zaio gorrieria. Inork ez zuen ezer ikusi trenbidean, ozen esatekorik behinik behin, eta inork ez du ezer entzungo. «Haatik, kitto». Mundua dute inguruan. Maiatzean ziklistak taberna aurrean igaroko dira, adibidez.

«Ederra! Karreristak!», bera dagoeneko maisuaren biografiako uretan dabil mosugerka. Hura ere aitatasunaren kariaz garrastu omen zen. Buenos Airesek utzi dion onik bakarra du La Guardia izeneko baten liburua, zeina bere es-

kuaz egindako oharrez eta marrez basiturik duen. Zertarako Kasinora joan, bada, noizean behin Genarori gaixotasunagatiko oporraldia luzatzeko eskatzearren ez bada, zeren, agerian duen moduan, makartu egin bait da, kemena ja ez datorkio atzera ere gorantz eta hazten utzi duen biboteak beste inori aurpegia lodiago egingo liokeen eran egiten dio berari argalago. Luisek esan dio Kasinora azkenengoz agertu deanean. «Makar-makar hago, Onofre», eta «Joditu hadi», esan moduan izan da haren aldetik.

Anitak bedarren bidez osatuko dela diotso, eta agorrila noiz etorriko irrikaz bizi da, senarrari bazkaria atondu, solora osteratxoa egin eta afaria mahaian prest utzi ondoren azken trenan hartzen egunero. Onofrek bere aldetik erabagia eginda du. Ez du bedarrik hartuko. Irensteko den gauza bakarra musika da. Afaria sarritan joaten da kantuen tripara eta pick-upari kea atereaz egiten du oturantza izpirituala, etxe guztia bere duelarik.

«Bostgarrenean erratu egin zuan», buruan mailu ibili izan zaizkio hitzok, harik eta euron

esangura idoro duen arte. Bederatzigarrena entzutean izan da.

Hasteko, aspalditik bazterrean lagata duen Point counter point' nobelako gixajo harek jainkoaren esistentzia frogatzen dela dioten kuartetoan, 132. -ean, hantxe dago irtenbidea susmarazten dion lehen airea. Aire hori bostgarrenean errepikatu egiten denez gero, atea erakutsi behar du, zeren eta, azkenean, bederatzigarrenean ere aire hori berori aditu du. Hiru angeluko osatzen dute, bada, hiruren artean. Eta argitasuna dario hiruren arteko iturbegiari. «Heriotza minik gabe onartzen, hortxe diagok gakoa», argi ikusi du, ekurutasunez, Beethovenek erakutsi gura izan diona.

«Errakuntza berriz, heriotzea hasiera bertan iragartea izan zuan Beethovenen aldetik, gero bera be konturatuko zen moduan». Onofrek bederatzigarreneko lehen mugimendua du buruan. «Heriotzea baino lehenago jaiotzea diagok, eta umetzaroa gero». Lehen mugimenduan zorion irribarreak ageri dira, ñir-ñir oskarbian. Eta hala-ko batean trumoi-hotsa. Umetzaroaz zer ekarri dezakeen gogora, zorionekoa ez denik, ezin du

halakorik ezer aurkitu. «Gortu egin haiz eta, ez dok heu izan hintzen umearen negarra entzuten, gogoratu egiten baino, mutu; txikitan zorionsu izan bahintza ala ez, heuk be ez dakik». Asturua-
ren zama igarri besterik ez zuen egiten orduan. «Ha gerra madarikatua!». Korto Ocañan hilda, Jon atzerrian edo makisean, eta bera Ingalate-
rran libre. «Hobe guduan hil bahintza heu be». Antonek ezin argiago esan zion, «ez dugu guk gure patuari ekiditerik, hemengoaren bildurrez bestean geratu ezkerro ez nintzateke libre izan-
go, ezta zorioneko bez». Orduan ez zekiena mu-
sikaren getasunaz datorkio. Mindurarik ekarri barik, gaztaroan bere ibilkerak danbolinen eta txilibituen trosta ibilkera hartu zuen, bederatzigarreneko molto vivace horretan legez.

Cuba, Venezuela, Argentina, lehen bidaieta-
koak ekarten ditu gogora, eta Argentina dioe-
nean bere bizitzakoa ez den pasarte baten mo-
duan ikusten du Marina, izenez ere itsasoa dena,
beronen aldagarritasunean hain igartezina. Go-
gora datorkion bakarra asetasuna da, haren la-
rruazala ukitzean erpuruetan barrena erraietako
azken muineraino hedatu izaten zitzaion jabal-

dura, zama eza, arintasuna. Getasuna. «Umea aittitek konponduko jok, ona da bera ba!», Onofrek laster diru baten falta nabarituko duela Anitak, eta ezin esan izango diola bajagatik denik. «Euskal Echearako dela esango jeutsoat». Ez daki horrekin zer egin. Bigarren mugimenduaren azken alderantz danbolinak gerra-danbor bihurtzen dira beti. «Entzuizak txilibituak! Hi ezkontuta hengoan, eta hasikeran gogoz ganera. Andrea itzi eta Argentinan geratuko hintzan ba?».

Hirugarren mugimendua gogopozez hasten da. Berrogeitik gora milioi heriotza egin zuen gerra zela tartean, ezkontzea erabagi zuenean, nor hartu andratzat, Ana ala beronen laguna Maddalen. Adurrak erabagi zuen. «Eta zer egin geinke ba adurraren kontra? Baldea daukanak, baldea diaukak, eta kitto». Bizitzako misterioen bigarren giltzarria idoro du, aire horixe, ezein izakik egundaino irudikatu duenik eta meheena, ekurutasun osoa, eztirik ez dariona, gorreria den iragazkailutik hara garden datorren ura. «Bizitzaren zentzua dok bizitzak zentzurik ez daukala ohartzeko unera ailegatu eta hala eta guztiz be ez aztoratzea, bare-bare geratzea barruko itsa-

soa». Egia hain erraza mamitu eta Onofreren begietara beste argi bat etorri da, itsasmugaz haraindikoa, ninietako leizetan, sakon sakonean, beste ortze bateko izarrik-edo bailegoen. Egunak aurrera joan ahala giltzarri biak sakonean bakar-ra direla igarri du, gorreria eta bizitzaren esangura, bat dira biak, Mundu bakarrean hemisferio bi diren eran. Bizi-haria noiz etengo patuak erabaki beharrean norberak erabakitzea dela askatasuna, oldozpen honekin batera bere buruaz beste egitekoa ere etorri zaio. Eta ez da ikaratu. Bere munduak hemisferio bi ditu, trenbide ingurua eta pick-uparen gela, eta kalea, Ecuador marra, pilotu hasberri izutiek legez egiten du, batetik besterakoan itzalak eurak baino isilago. Halaxe joan gura luke berak ere isilik, gero eta murriztago egiten zaion mundutik. Kasinoa jada ez dago beraren itsaskartetan, eta Ikaztegieta edo Sol ere bazterretan galduriko irla gero eta arrotzagoak dira. Zubibegien gainean karrilak ipintzen hasita dagozela ikusteak betetzen dio oraindio ere barrua, Ciclon tunel barruan jausi ez jausi, kapatazak jakin ez jakin, aspaldiko gakoa begitantzen zaiolarik. «Hilda diagok, hara jakin

beharreko guztia!». Munduko komediako akto-reak eskenatokian aldi berean dagozenak dira. Bada, zelan luzatu eskua banbalina atzetik mutis egitekotan dagoenari? Eta, zetako? Ezin ditu joandakoak eskenatokira ekarri. «Jon bai, Jon itzuli egingo dok!».

Onofrek ez daki zer dela eta egin zaion bapateko ziurtasun hori. Agorrilaren hamaseian amaituta euki dute burdinbidea eta igurtzapenez karrilek euron ezpain kasik-infinitorantz-luzeetan ageri duten uherra zidarkaratasun bihurtarazten hasteko Caudilloa etorriko dela eta, harrera atondu diote. «Jon itzuli egingo dok». Onofrek Lamiaren puntatik ikusi du itxuraz denak bere kontra dituen haren Azor untzia portuko bokalean geratzen, arrantzuntziak ere espainiar banderaz josita, eta bila joan zaion baportxoaren ere, galai-galai. Doroteo gogoratu zaio. Doroteo eta Adela. Min hartu du biak sidecarrean gogoratzear, eta mina erretura egin zaio txalupakoaren gomutaz.

«Bihar dok inagurazioa», esan dio baten batek alboan pasatzean eta halaxe baretu zaio mina. Hango muinoan laster kenduko ei dituzte

presoen azken barrakoiak, atoa hasiko direla moila nagusia lazatzen, «Bost hiri!», haserre esan dio bere buruari, orain arteko hemisferio bat oinen azpian desagertuko zaiolako. «Ezer ez dok berdin izango». Caudilloaren yatchari azken begirada luzatu eta lepoa eman dio, hala egitean mundu guztiari ematen diolakoan. Ibilteari ekin dio, astiro, zigarrotxoak pizteko maniobretan berari adi. Inoizko auto gehien dabil errepidean. Eurotariko edozeinen gorpilen azpira jauzi egin «Eta akabo», pentsatzen du behin eta berriro. Ezin du egin. Gaua ere laster etorriko denez, goiko bide zaharretik lasago ibiliko dela otu zaio. Beste hegalaria jo du. Bihartik aurrera hemisferio bakarra izango du Onofreren munduak: pick-upa. Musikan urtuz gura luke Onofrek bereak egitea.

Itsasoan Caudilloaren ardura barik diren txalupak azken errainuak baliatzen dituzte, lehorra hartua duen gerizpetatik alde, urgainean eguzkiak herrenago egiten bait du ihes. Uharak eta gainerako ore azul iluna beste urdinago batean urtuz doaz. Errepide berrian autoak argiak piztu-rik datoz.

Bapatean klaxona jo dute, temati, eta hantxe ikusi ditu, bide zaharrea gora etortzen argi bi. Autoren bat. Harritu egin da Onofre, nor ote den. Argietariko bat bestea baino beherago, autoa ezin izan dela otu zaio. «Sidecarra dok!».

Itsasmarratik gora igoz uztaileko arratsgorria den pantaila goriaren aurka proiektaturik gero eta bertarago etortzen ari zaionaren irudiaren ertzak zehatzago bereizten dituen eran, motorrak dakarrenaren soslaia nori ote dagokion igartzan ahalegintzen da Onofre. Beheko bidean doazen autoen noizbehinkako argiek ustegabeko zamalkariaren aurpegia betaurrekoek estalirik dutela adierazten diote, eurotan isladatzen bait dira une batez errainu herrenak behetik gorantz, gero zeharkako abiadaz gorago jo eta buruko kraskoan ispiluarena eginik iluntasunean deuseztatzeko.

Doroteo ezin izan dela otu zaio Onofreri, ezen enborra harena baino argalago eta burua jasoago, sendotasun behartua adierazten duen dardarra batez eusten bait diote eskutokiari besoek. Areago igarri ezinik, motorraren alboko arrautza hutsik dakarrela ohartzeko baino ez du astirik izan. Geldi geratu da sidecarra bera dagoen lekutik metro batzuk beherago. Tenkada luzeagoa

egin dio chesterrari eta orduantxe bilakatu dira errauts itsasgainako ilenti gorrikarak, arratseko su guztia zigarrokinaren muturreko eraztun erre-
ra igaro balitz moduan. Motorretik albokorik ez duen aldeko hanka, ezkerra, luze luzatu du bisitariak eta, bestea ipurtokiaren gainetik arkua osatuz pasarazirik, zutik geratzeko egin duen zirkin berean betaurrekoak erantzeko keinua egin du. Bide berrian goreneko bihurduan sartu den autoren baten argiek dantza egin dute motorrekoaren inguruan. Halaxe antzeman ahal izan du Onofrek, osorik, gorputz haren borobiltasun doitu. Argiaren labankadak narruzkoa dela erakutsi dion jakaren azpian bularraldeko hantura eta gerrialde mehea zizelkaturik, Onofrek ezin sinestu du dakusana.

-Adela -esan du, emakumeak motorra atzean utzirik bideari ekin dion eran chesterra zigarrokina behera jaurti eta lurrean zapal-zapal eginez.

Emakumearen gerritik behera belaunetarainoko aldean belarri antzekoak dituzten prakak estutu egiten zaizkio pantorriletan, non bat egiten diren bota luzeekin. Berauetan tente handia-

goa Adela, Onofreren arnasaren esparruan geldi geratu denean hatsak huts egin behar diola igarri du gizonak. Eskutik oratu dio Adelak.

-Zelan? -ez diote elkarri besterik esan, ez dute eskua eskutik askatu, harik eta gauaren baitako isiltasuna zaurituz bolandera baten ziztadak danbada gorrerazlea ekarri duen arte. Ikaratu egin da Adela. Onofreren lepoa bilatu du esku biez. Hortxe susmatu du emakumea haraino ekarri bide izan duen zeregina artegatzekoa dena.

-Zer? -esan dio, emakumearen hatsak aurpegia berotzen diolarik, odolak zainetan darabilkion bezainbesteko su meneraezinaz. Adelaren begi borobilek isiltasuna eskatuz begiratu diote. Onofrerenetan igarri duten indarrak albora arazi dizkionean, gizonarenak ere haien atzetik joan dira, biratuz. Bete betean ikusi dituzte han itsasoan Azor-eko argiak. Adelaren eskuak tak! egin dio Onofreren senazko hariari, amua ahoan sarturik alde egin nahian arrainak jo ohi duen tenkada siku eta bapatekoaren berdinez. Arrainari amuak eragiten dion minagatik labur eginiko tenkadabera ere pita eskuetan duenari nahikoa

izaten zaion eran, Adelarentzat gako mingarria dena itsasuntzi haretan dagoela jakin du. Susmoa mindura egin zaio, hari berria zaharragoei josten hasi bait zaie. Gogoetetan urrunegi joan orduko Adelak oroimeneko balizko orratza lapurtu dio keinurik emeenaz.

-Goazen -agindu dio, eskuari oratuz berriro, eta aldatz behera jo dute, sidecarrera. Arraultza modukoaren barrutik lepoko zakuto borobiltxo hartu, eskutokiaren erditik giltzak atera eta zamarrako poltsikoan sartu ditu. Zakutoa lepoan eskegita, errepide berrira ailegatu arteko bidezatia eskutik egin dute. Han, auto bakanen baten argien menean, itxuraz gizon bi direnak elkarren eskutik joateak eragin dezakeen susmoari aurrea hartu nahi izan diotela biek igarri duten moduan, eskua askatu diote elkarri eta delako hormaren aldea hartu du.

-Ez zara bakarrik etorri -herrian sartuz batera galdetu dio, beldurrez, Doroteo non ote dagoen, ezin bait du irudikatu beste inor datekeenik Adelarekin etorri eta nonbaiten ezkutaturik egon bide dena.

Karkabetan urduri eta ahoa lehor, Onofrek hamaika begi asmatu uste ditu leihoetan eurei begira eta, karramarroak arramaska egin gura dion eran odolean dabilkion dardarak adimena ezertan finkatzeko edozein gaitasun kentzen dio. «Ikusten bahabe ikusi!», asteburuetan ezik gauetz etxean izaten ez duen Anitak biharamunean izan dezakeen berriak eragiten dion egonezina ez da ezer bere baitako leizeetan gora igozten datorkiola antzematen duen ametsak eragiten dionaren aldean.

-Adela.

-Zer?

-Ez zara bakarrik etorri.

Erantzuna berak ekarri beharko balu moduan, herriko haizearen esku beroa nabaritu du Onofrek aurpegian, sargoritsu. Are beroagoa izan da kolarreko atalasea zapaldu dueneko lepo gainean pausatu zaion eskuaren atzetik etorri zaion agurra.

-Onofre!

-Juan, Mekaguen!

Adelak atea itxi eta argia piztu du, Onofre bisitariari begira, geldi, zer egin jakin ezinik dagoen bitartean.

-Oraingoan ez diakart ezer gabardina azpian -Jones umoretsu esan dio, ez bait dakar gabardinarik, besoak eta alkonda zabalik, agirian paparra baino.

Onofrek gogoz onartu du aspaldiko lagunaren besartea eta hango epeltasunetik hara Ciclonen irudia etorri zaio gogora, berak oroigailuko gotorleku izan ledin gurako lukeen horretan zulo eginez. Lagunaren bizarra egin barik nabaritu du masailean, betertzetan bide bana bila datozkion malko biekin batera. Burua bihurtuz Adelari esan dio, «Argia», zerbaiten ikararekin moduan, eta emakumearen ustebako edertasunak itsutu egin du. Argia amatatzeak begiak euren onera ekartzeko balio izan dio eta, ahotsak traizio egin ez diezaien ixilik igo dute ateraino.

-Ez dok ezertan be aldatu hau etxeau -Jon harat-honat hasi da bazter guztietan kirikatzen, jakinik duela hiru urte edurrekin batera etorri zenean Onofrek gogoz aurka eta hotz hartu zuena;

bada, ganorabako berotasun apur bat ekarri gura du oraingoan.

Eguraldien arteko aldea jarrera aldea ere egin dela igarri du aspaldiko makisak. Onofrek sukaldera egin du, Anitak utzi ohi dion gehiegizko afaria zertan den begiratzera. Adela atzetik jarraitu zaio, jaka erantzeko astirik hartu gabe.

-Dagoena hiru zati egin eta kitto; hau beroa! -esan dio, zeozer esatearren.

Adelaren jaka erantzeko keinuari ezikusia egin gura izan dio Onofrek, han, mahai gainean plater batek bestearen gainean ipurdiz gora gordetzen duena zer den jakitea inportanteagoa balitz moduan.

-Narrua beste ezein zerik baino epelagoa da -Adelak berak ere afariaren prestaketan eskua sartzeko keinu egin du. Ez dio utzi Onofrek.

-Akostunbrata nago -esan dio, agirian geratu diren arraintxoei begira.

-Badakit -erantzun dio Adelak. Gizonak ezkutatatu nahi duen sekreturik handiena biek dakitelako, gorri biak, Jonen ahotsak atera ditu atezutik. Eskaratzeko ate-postara agertu da, alkondarra erantzita, Huxleyren liburua eskuetan.

-Hara hemen gure jainkotxoaren liburu ederra. Haren ostean ingelesa benetan ikasteko astia hartu nijaun ba, Onofre. Baina liburu hau leidu barik diaukat -Jonek argitasun bat baino gehiago eman beharko duelako artegatasun izpitxo batez egiten du dena, baita berba ere-. Kendu hortik, neuk egingo joat zeozer afaltzeko.

Liburua mahai gainean utzirik, Jonek lepoan pausatu die esku bana biei pasaeran, mahaiaren erpinetako baten alde bietan diren aulkietan jesar daitezen aginduz, eta zuzen jo du harraskaren gaineko armairurantz, bizi guztian besterik egin izan ez bailuen bere burua sukaldean maneiatu baino.

-Basoan ibili garenok danatarikoa jakin behar iragan denboretako Asturias hura etorri zaio Onofreri burura eta halaxe behartu du barretxo bat ezpainetara etor dakion. Adelaren begiak bere begien bila igartzen dituela eta, harraska alboko leihora jo du, kanpoko freskeran duen ardao botelaren bila.

Boteila eskuan atzera Juanen alboan igarotzean, beronen sorbaldaren zabalaz ohartu den eran gizonak hor dituen ebatondo itzelak igarri

ditu. Alderik alde hartzen diote garondoa baino beheragotik gorputz guztia. Aspaldi batean suz zabaldu zizkioten zaurien arrastoa diruditen uhara gorriak dira Jonen azaleko itsasoan.

-Eta honeek? -Onofreren ahotsak adierazi duen ikarak Adelaren begiak ere harantz erakarri ditu eta, «Ene!» batek egin dio ihes barru-barrutik.

-Asturiasetik hona zelan etorri nintzala uste dok hik ba? -eskuartean dituen piperlatak eta zartagina munduko zer arretagarrienak direlako moduan esan dio-. Ba, trenez gehienbat. Eta hemendik joan be, trenez joan nintzan.

Ardoa hartzean Onofrek freskeraren berri eman dionez bertara luzatu ditu eskuak, arrautza bila, Juanek.

-Bina? -esan du, ezer ez delakoan-. Arrautzak piper gorriakaz, jainkoen gustuko platera. Nik zera baina, bileterik ezin erosi eta, dohan egiten niжуazan tren-biajeak, non eta bagoien azpiko burdinetan ohea ondo eginda. Inportanteena osteria, norberaren neurriak zuazan, ohearenak beti berberak izaten dozak eta, zera, ardatz artekoak.

Aldarte onez dihardu Jonek, Onofrek eta Adelak epopeia deritzotena kondatzen, arrautzak eta piper gorriak mahaira dakartzan bitartean. Laguna etxean lehenengoz egon zeneko filmea irudikatuari fotograma berriak eransten dizkio Onofrek, azalpenen haritik. Trenaren azpiko ardatzak ikusten ditu, nahiz eta Jonek kondatzen duenez beti gaua izan burdinazko ohe sendar-trinko haretara biltzeko orduan. Ardatzen arteko luzera bere ornoarte eta hankako alde egokien artekoaren berdina izaten zuenak, gaitzerdi harek.

-Okerragoa izaten zuan trakada belarrietan, edo bestela txinpartak be, karriletan labankeran sortzen zuazan su antzekoak. Eta hotza, meka-guen zotz, hotza!!! Espainako bandera jango joagu ba.

Jonek arrautzak piperrekin nahastu ditu, denak ore bakarrean, Adalak darabilenaren pertsona ondo hezituaren moduaren kontrakoan. Gizon jantzita are emeago begitandu zaio Onofreri. «Zelan ez haiz lehenago konturatu ba?», Jonen keinuetan emakumearenganako lotura igarri uste du. Bihotzean nabaritu duen ziztadak

inkontzientean eginiko ametsen berri ekarri dio. Arraintxoak jateari ekin dio.

-Eta Doroteo? -mahaikide biei min emango diolakoan edo, ez daki berak Onofrek ere zer dela eta jaurti duen.

-Gugaz diagok.

-Zuekaz? -Onofrek esan dio, norengatik ote dioen argitu diezaion eskatuz moduan.

Erbesteko giroaz hitz egiten hasi zaie orduan biei, ironiatsu, Jon. Gobernua laster jausiko dela esaten diotela, berak kondatzean barre eginez eta, bapatean berbatik hara, aspaldiko makisa bizirik dela iragartzen duen erresuminaz egin du berba.

-Politika egin behar dala baina, marikoike-riak. Oraindino dana be ez diagok galduta.

Azken hitzak Doroteoren gainean esan dituela ulertu uste izan du Onofrek. Gura barik, askatu dituzten azken presoak etorri zaizkio gogora Onofreri eta Ciclonen odolak mendekurik izango ez duela, betirako karriletan geratu dela, inork bere amorruren katilura jaso eta bertatik edan barik, halaxe iruditu zaio. Mahaikoak harrira al-

txatzeari ekin dio Adelak, berbalekuak berari ere min ematen diola adierazi guran, antza.

-Itzizuz horreek -Onofre zutitu eta eskutik oratu dio. Begiez begi-begietara egin dio zuzen tiro emakumeak. Onofreri listua atzapar egin zaio eztarrian. «Laster» esan dio Adelak, gizonak zertara datorkeen ezin entelegatu izan duen misterioz. Eta hantxe geratu da harrikoa. Jonen itzalaren atzetik pick-uparen gelara egin dute.

-Tira, modernotu egin haiz -esan dio maki-sak, musika tresna eta inguruko diskoei begira.

-Heuri esker -erantzun dio Onofrek, chester bat piztuz batera, Adelari zein sofatxotan jesarri agintzeko bekainak altxa eta hitza, «Adela», txis-keroaren tapatxoak egin duen hots metalezkoaren haginetatik azken unean libratu izan balu moduan. Emakumeak zigarroa eskatu dio eta, sua emateko keinuaz tapatxoa berriro altxatzean eta, gero, sua piztean, egin dituen zarata biek zauri bana egin dute gelako isiltasunean.

-Musikarik? -Onofrek erantzunik itxaron gabe atondu ditu orratzaren azpira Brahmsen musika dakarten ildoak.

«Hala da ze Doroteo zeuekaz dago», Onofrek mingosturaz egin du berba, zeuekaz esatean Adela bera ere horretan dagoela ziur dakiena adierazi gura izan duen eran. «Ba», aurrera egin du bere gogoetetan pick-uparen lehen ildoetan orratzak aurkitzen dituen hots zikinen gainetik, «heure liburuari esker ezagutu nijuan nik Doroteo».

Rapsodiaren lehen notek isilarazi dute Onofre. Emakume-ahotsak diskotik dei egin dio eta, Adelari begiratu dio, Doroteok aipatzeak zein zer eragiten dion igarri ahalko ote duenentz. Esku bateko zigarroaren kearen atzean aurpegia, bigarren eskua beste besoko ukalondoan, lainopeko lamia egiten du keak neska. Lepoaz leiho alboko hormari dautsola dago, luze hankak, ageri-agerian gizonezkoen botak. Jonek, umearentzako ohea hartu duelarik jesarlekutzat, astiro ekin dio.

-Kontu hori ondo ezagututen joat, Doroteok hi zelan ezagutu hinduan, kontatzeko ia beste konturik ez diaukak eta.

Pick-upean emakumezko ahotsari korua bildu zaio. Adelak egin dio lagun.

-Nik ez dakit ba -esan du.

Orduantxe egin zaio lehenengoz ulergarri rapsodiako hitzetariko bat Onofreri. Maite. Eta hantxe hasi zaio Adelari esaten Urigoienaren bisita haren ostean Sandalioren berri jakitearren egin zuena. Harik eta zigarrokina bere azkenera ailegatu eta Adela hautsontzian amatatzera makurtu den arte. Une horretan, beherago emakumearen begiak bereak baino, goitik behera so egin ahal izan dio. Narruzko zamarra mehearen azpian gizonezkoen alkondararen antzekoa du, ehun fin eta leunezkoa baina. «Zetazkoa» otu zaio Onofreri. Hantxe geratu zaizkio begiak, parraldean. Adelak ere gorantz egin begiak eta gizonarenak ustegabeen harrapatu ditu. Onofreri gainez egiten dion grina aldarri ozenena baino adigarriago egin zaio. Elkarren begiradan iltzaturik geratu dira, Adela gorputza artezten hasi orduko bitarte luzean.

-Zure andrea ikusi neban lehengo batean Bilbon.

Onofrek ez du beste berbarik behar izan. Ziurtzat eman du berriketan egin zutena eta, berbarik berba, euren arteko egoera ere azaldu, edo susmarazi behintzat, egin ziona.

«Bihar goiz etorriko da», biei begiratu die, bai makisak bai emakumeak haserrerako motibo bana emango diotela adierazten ausartu barik.

-Bihar beranduago etorriko dok -Jonek erabateko ziurtasunez esan du-. Trenbidearen inaguraziorako Franco kabroia datorrela eta, goizean berandura arte ez dok trenik egongo honantz. Dana dala, oherako ordua be badok.

Jonek ipurdipean duen ohea kolpatu du, ukabilez, biguntasuna frogatuz ezezik alde zurretik gozatuz izara arteko zeruaz.

-Zuek hobeto egongo zaree koarto handian -Brahmsen azken notak pick-upeko orratzak odoldu eta bera ere zauritu dutelako ahotsaz esan du. Barretxo bat egin du Adelak, Jonek, «Tira ba» esan eta oinetakoak eskuetan hartuta ezkonduen gelara jo duen eran.

Libre geratu den ohean jesarri da emakumea, Onofreri behetik gora begira. «Eta zu?», esan dio gizonak. Adelak aginduz erantzun dio: «Kendu egidazuz botak».

Gerria okertuz eskua luzatu eta bonbilako argia iraungitzeko keinuaren orpotik iluntasuna etorri da gelara une labur batez. Gaueko ilargiaroak leku egin du kanpoleihoko zirrikituetatik. Zilar-urezko argitasun hauskaraz blai geratu da gela. Onofre Adelaren oinetara makurtu da.

Hanka bat luzatu Adelak eta esku batez orpoaldetik eta besteaz berna-aldeetik eutsi dio botari gizonak. Nahikoa izan du tirakada eme bat. Euri-tantak haritz hostoetan behera bezain erraz etorri da kanpora. Bernaldeko eskua bertan geratu zaio, galtzerdiaren azpiko haragiaren epeltasuna igarriz.

-Hori be bai.

Orporainoko laztan batean ekarri dio bigarren narrua begitandu zaiona. Txorkatilan geldi geratu da, galtzerdia lore-korola eginik. Emearen gorputzaren gakoa hezurtxo irten horrexetan nabaritu uste du Onofrek. Bertan ukitu eta hezur-durari eusten dion makineria lokatu egin daite-

keelako delikatesaz laztandu dio, lore-korola egini dena behatzetara bildu eta handik kanpora kendu aitzin. Beste bota luzatu dio Adela eta era berean ekin dio gizonak, harik eta berriro ere txorkatilako hezurra ukitu duen arte. Orduan Adela buruko iletik tiratu dio gizonari, gorantz begira dezan, begietara. Onofreren okotzak emakumearen bularraldeko dardara ukitu du, piztiaren sudurtziloetako barruko hormek odola ez baina usaina ukitzen duten modura, hantxe-hantxe. Ezin ekidin izan du. Ahora ekarri du emakumearen oina eta bost behatzak musukatu dizkio banan bana. Adela eskuak behe-matailaiko alboetara etorri zaizkio eta, gorantz eragin diote, lur beroak iluntzean lainoa igoarazten duen berezkotasunaz. Onofrek bizarraren latza nabaritu du emakumearen esku-ahurretan. Ohean jesarri da oharitu gabe ia. Aurpegitik lepoan behera etorri zaizkio eskuak, astiro. Iluntasunean begien dirdira bizia baino besterik ez da Adela.

Onofreri ohe berean lo egindako Anton etorri zaio, oroitzapenen eskutik Donianen Adela ezagutu zueneko eguna dakarrelarik hildako lagu-

nak. Goropilo egin zaio barrua eta karramarroaren hanken-arramaskada nabaritzeko gertu izan denean, Adelaren eskuak igarri ditu, txepetxak hankak pausatu ohi dituen hautsi-agineko eran. Emakumeak alkandorako lehen botoia askatzeari ekin dionean bere eskuekin zer egin ez du jakin gizonak. Bada, jaka azpiko lepoaldera eraman ditu. Bigarren botoia, eta hirugarrena ere, askatu dizkio Adelak, eztarrian lodi egin zaion ahotsaz esan orduko, «Kendu eidazu jakea».

Bien arteko distantzia laburra ezertan laburrago edo luzeago egin gabe, burdinazko zubibatek amildegiko albo biei eusten dien moduan. Onofreren eskuek besoetan behera jaka erantzeko egin duten keinuan Adelaren alkandora besobakoa dela jakin du, eta haren eskuturretan kanporantz egin duenean bularraldeko bizarretan igarri ditu eme-ezpainak. Orduan, gorago bere burua, okozpean Adelaren ile-adatsa, beronen lepaburuen borobila jakin du eskuz ezezik begiz ere. Portutik beranduko hotsak iritsi zaizkie. Adela Onofreren eskuen jabe egin da. Hasieran ulertzen gogor egin zaion mezua iragarri dio. Gerrickoko orratza askatzeko eran egin dio gizonari,

eta berriro ekin dio beronen bularraldea laztantzeari.

Gerrikoko orratza askatu eta botoia igarri du. Horren ostean kremailerak arin egin du behe-rantz. Zelan izan den jakin ezinezko moduan, emakumeak bere praka askeak erantzi ditu, ipurdi mugimendu bakarrean, ostean ohe gainean belauniko geratu delarik. Burua jaso eta bien ezpainen arteko distantzia berretsi du, lurrikara batek amildegiko alde biak erakarri nahiz baina burdinazko zubiak hurrera daitezen eragoztiz. Eskuak ezik ezer higitu gabe erantzi dio alkandora Adelak.

Dantzarisa higikera arin batez, zutitu egin da Adela. Onofre konturatu denerako bera ohean eta emakumea pick-uparen alboan dira. Katua-ren moduan igo du ohera.

Kanpotik sartzen den argiak urre egiten dio ilea Adelari. Diskoen artetik bat hautatu eta orratzaren azpira dakar. Ipurdi-masailak pantorrila bilakatzen hasten direneko marra ikustezin horretaraino luze alkandora, tresna abiarazteko keinuan apur bat gorago egin zaio eta, haren azpiko ehun iluna antzeman du. Lehen notekin ba-

tera biak aurrez aurre geratu dira. Adelak, orduan, alkandorapean sartu ditu eskuak, sujeta-doreari eutsi dio, itxuraz, eta atzealdean duen ixteko gakotxoak aurrealdera ekarririk tak askatu du. Gero, tiranteak diren zingola beltzak antzeman ditu, alkandora erantzi gabe ditietakoa ateratzeko egin duen maniobran besoetan behera etortzen. Musika isildu den une batean, ezezagun egiten zaion sinfoniaren baten mugimenduen artekoa, Jonen zurrunga hotsak ailegatu zaizkie ozen. Barre egin dute biek, iusturiak legez urratuz gaua, eta hantxe izan du berriro ohean belauniko jesarrita Adela. Gerrikora ekarri ditu eskuak eta Onofre ere ausartu da. Alkandora barrena baino harago joan da.

Onofrek oihal zati haren kanpo-geografia haztatu du, tentuz, eta goialdeko marra estura heldu denean zilotxoak ukitu du, bere praktetako botoiak ere askatzen dizkion Adelaren begi-ilentien argipean. Haietan izarloka baten izarriadura-edo antzemanik, larrua eta ehuna bat egiten diren aldean sartu ditu eskuak. Beherantz ekarri hasi da emakumearen simetrian, zeren honek prakak erantzten dizkiola eta, berak ere

aurrera jo du. Eta halaxe geratu dira, jesarrita Onofre, bera baino gorago burua eta belauniko Adela, oraindio aldean alkandora. Askatzeko keinua egin du gizonak, eta keinu berean, eskua zakilera luzatu du emakumeak. Ukitu eta begiratu gabe hartu du osorik eskuan. Orduan, ipurdia apur bat jasoz, aurrerantz egin du, leku eginez eta leku bila.

Adelak hanka-uztaira hurreratu du, oraindik eskuaz astiro laztanduz bere eginik duen zakila. Odol-astinduek dardara hazkorrean dute berau eta emakumearen haragi biguina bustirik, bedarrarteko urbegi eginik idoro dutelarik, laztan batean etorri dira aluko ezpainak, zakila bera behebeheko sustarreraino musukatuz. Hantxe geratu dira une batez geldi. Adelak orduan iletik oratu dio, sendo berriro ere, okotza gorantz egin dezan gizonak. Eta honek askatzen falta duen botoia askatzeko agindua igarri du.

Adelaren ditiak ageri zaizkio, uhin biren negatiboa bailiran. Astiro igarri du haren ipurdiaren goranzko keinua, gorputz guztiak ditiak teoriar diren lokarri tinkoaren inguruan artikulaturik bailuen, eurak egin ditu hasi mugimendu emearen

ardatz. Orduan, gizonak ipurdiko mamien azpian harago eskuak, eta beteago eginenez joan da larruen arteko komunioa. Astiro etorri dira astiroko higikera abiadura egiten, eta Adelak ditietako alde borobilenei gorputza plaia egiten zaien aldean pausatzean eskuak, ezpainetara etorri zaizkio gizonari buruak. Haragi irekiaren barruan ezkutuko beste alde bat zabaldu delako, emakumeak bereago egin du gizona, hankak gerriaren inguruan txorkatilek elkar ukitu arte bilduz, etorriko denaren beldur ez dela ezezik etor dadin iragartzen dion keinuan.

-Bai -esan dio, belarriko piku-ttiki antzeko haragizko gingila haginartean harturik.

Onofrek hiru mastadun goleta igarri du bere burua, haize oihaletan, brankak ura ebakitzean dakarren hotsaz gain haizearena baino besterik aditzen ez duela. Portutik ozen goizaldeko arrantzale biren ahotsak etorri dira, kaio-hotsak bezain eder eta ulergaitz. Ikara batek astindu du Onofre, gilaz otxarriren bat joz moduan. Eskuak gorantz egin eta Adela bere gaintetik kendu du, gorantz gora datorkion su zuria emakumearen bilora joan dadin. Eta gizonaren bapateko ikara

ulerturik, eskua bertara luzatu dio, eta laztan egin dio, etorrian datorkionari laguntzeko emakumeak.

-Tentela, ez da beharrezkoa izan -esan dio belarrira berriro, eta han behean eusten daukotsan eskua eginez gorputzaren ardatz berri, ipurdia atzera eta burua bertaraino ekarri du, eskua-ren laztanaren lekuan, astiro, ezpainena ezarriz.

Oroimeneko ganbaran su itzelen bat lehertu balitz moduan, gelan diren mamuak gorputz beterik ikusi ditu Onofrek lipar batez. Inoiz etorriko ez zaien umea lehenik, itzal hutsa, argitan argi egin eta betirako deuseztu zaio. Anton gero, Huxleyren liburua eskuetan, irria ezpainetan. Eta ordura arte haren mezua ulertu gabe bizi izan dela ohartu da, Antonen heriotzak inor goibeldu badu, horrentzat alferrikoa izan dela ulertu bait du. Eta poztu egin da. Orduan, oroimeneko sua izarren leherketa edo eginik, Ana, ez jada Anita, ikusi du. Adelaren gorputzean urtzeko gogo mernerazina egin zaio. Ezinaren aurkako amorruez, alboan duen gorputzean datzakeen arimaren bila ihardun du, emaztearekin izan duen azken

akorduak zamatuh beharrean arindu egin bait dio gogoan.

«Zergatik hau» galdetu du, gorputzaren atsedena eta atsegina Adelaren alboan biak bateginik, infinitorantz luzatu nahi lukeen gauari egunargitzearen usaina hartuz. Uztail-sargori astunare ere hozkirri igarri duelako, burua Onofreren bularretik altxatu eta halaxe esan dio:

-Zure bularragatik -eta alkandora jazteko keinua egin du-, edo nik dakita ba. Bihar ez dakigu non egongo garen, daukagun apurra berauda, eta geurea da. Zertan ez hartu?

Adela erdi zutitu, alkandorako botoiren bat txarto lotu eta musu eman dio betartean.

-Komunera noa -esan eta sorgin moduan joan da, behea ukitu barik kasik.

Onofreri aspaldiko argitxo hura etorri zaio gogora. Ulertu uste izan du emazteak halako zerekin duen sinesmena. Paparrean kuttuna eskegi eta beste norbait dago norberarekin, edo gelan kandela iziotu eta beste inor dabil hor jagotik. Nahikoa da elementu berri bat agertzea, bera agertu orduko izan den ordena guztia berregin behar izan dezagun, otu zaio, eta argiaren eta

kuttunen zeregina dela ulertu du, orain leihotik sartueran aratzago egiten duen argiari gorputza ostuz datorren Adelak egin duenaren berdin. Goitik behera aldatu dio ordenu zaharra. Onofre- ren baitan itzal izen diren mamuek ez dute leku- rik gelan, emakumea alboan duen artean behin- tzat.

«Eta Doroteo?», etendako hariari oratu gura dio berriro gizonak, emakumea izarapean bere gorputzari atxiki zaiolarik.

-Bihar ha dagoen lekura joateko asmotan etorri gara, Juanek aldegin beharra ei daukolako, barku bat izango dogu biok itxaroten bihar ze- rean... -non esan gabe egin du aurrera-, ze, ni... -moztu egin du berriro- bera gura dodala pen- tsatu izan dodalako noa.

«Eta?», Onofrek jakinmina du mingarri.

-Eta zer? -beste zer esatekorik ez duelako moduan, eten egin du, apur batean ausnartuz erantzun luzeagoa josi aurretik-. Nire moduan ezagutzen dozu ha eta, zer gura dozu esatea? Beragaz joan orduko sidecarra itsasora jaurtitzeko eskatu dost. Eta ez edonon ganera. Non eta

hemen inguruan egiteko agindu dau, zoro hala-koak. Lo be egin beharko da, ezta?

Galdera oker ulertu diola, berak «eta?» horretan ea oraindio be Doroteo maite duentz argitu diezaion dela eskatu diona, Adelaren lo-arnaskerak berriketa amaitua dela iragarri dio. Bela mastaren inguruan ala oilagarroa atxari atxekiz, emakumearen besarte gozoak bera ere loguraren lainoetatik zurrungen zerura igoarazi du.

Jon Ingelesak aurre hartu die oilarrei. Ohetik jagi eta eskaratzera jo du artez. Karrajuan doalarik Onofreren arnaskera aditu du, sakoneko loan. Ate-zirrikitutik kirik eginez Adelaren burua ikusi du, gizonaren besoa samaren inguruan. Katami-xarrak baino isilago, ekonomika iziotu du, suak edonon egiten ohituta dagoenaren trebetasunaz, begi-kliskada batean, eta komunera joan da. Hantxe entzun du lehen oilarra, portuan oihartzun eginez bezala, kikirikiak melata eta kresal usainez, arrantzaleen oihuetan estekaturik bait datozkio. Berriro eskaratzean, lapikoko kafea atontzeari ekin dio.

Ura irakiten hasitakoan kafeauts-eskukada eder bi bota ditu lapikotxoan, burbuila eta uhin-txoak sortaraziz. Mendiko usain ohiak bete dio Joni barruko ezkutalekurik gordeena ere. Haietaraire ere sartzen zaizkion kafearen lurrineko orratzek min ematen diote, aldioro. Goiz berri bakoitzeko, mendian emandako berdintsu edo antzeko beste bat du oroimenean. Denak birri-

tan bizi izan arte goizak sufrimenduz hasi behar-ko dituela daki eta, gogoeta berau eginez mina hantxe bertan hasten zaio leguntzen. Gaurko goizaren argitasuna eta portu-usaina Llaneseraino ausartu ziren haretakoen bikiak egin zaizkio. Bada, samin keinua ezpainetan, idazluma eta paperen baten bila hasi eta aparadorean aurkitu dituenen kafeak behar izaten duen tarte iragana dela erabaki du.

Kafea xurrutada laburretan edan bitartean idazteari ekin dio. Gero, katilu hustua sukaltarran uretan pasa eta idaztoharra mahaian utzita, atera egin du pauso bitan. Jo dion danbada txoa nahikoa izan da Onofre iratzartzeko.

Kalerako eskaileretan behera doazen pausuen hotsei adi geratu da Onofre, zirkinik ere egin gabe, berari hain ozen eta bizi datozkion zaratei beste ezer erantsiz gero Adelaren loa akabatu behar bailitzan. Halako batean geldi geratu dira pausoak. Laguna kolarrean zerbaiten bila diharduela jakin du Onofrek. Aurkitu eta atzera ekin dio ibiltzeari. Jonen oihartzunak iraungi direnean gela barrura crescendoan datorren argia baliatuz emakumearen aurpegia trabeska ikusi

ahal izateko keinu ñimiño bat egiten ausartu da. Bake-aire batek leguntzen ditu Adelaren ezpain lizun-lodiak. Onofrek ez du bere bizi guztian lehenago goiz honetako barne-giroa izan. Beethovenen Bederatzigarreneko adagioko ekurutasun arraia dario. Erabakiak egiteko tenorea. Besoa Adelaren lepotik sugearena eginez ateraz, jagi egin da.

Kafe usainaren arima ahuldua aditu du, sukaldean hil-aginean. Etxeak izpiritu berri batek habitatzen duelako hatsa nabari du denean. Beraren ezjakituan egindako exortzismoren batek itzal ikustezin guztiak uxatu dituen moduan dago. Exortzitzaile, ostera, ohean dagoenari eritzi behar diola uste du. Alkandora jantzi gabe bere bularraldea ferekatu du Onofrek, Adelaren hitzak gogoan.

«Misterio hutsa dozak», ekonomikako suari putz egiteko eran makurtu denean esan du, ozen, han besteren bati hitz egin moduan, Anaren tioren hitzak gogoan. «Andrak!». Komunera joan da gero. Hango gauza gehienetan emaztearen hatsa dabilela ohartu da.

Mahaira jesarri arte ez dio Juanen oharrari erreparatu. Agur laburra da, berari «Onofre lagun andiari» zuzendua, guztiagatik eskerrak emanaz. «Tira, nora hoa orain be, zoro halakoa?». Oharrari begira soraio geratu da, geldi kafe-katilua ezpainen aurrean.

«Nora doian? Kokolo halakoa! Nora doian dinok? Nora doian?». Onofre sutan altxatu da mahaitik, txarrakatilu guztiak aidean. Paperak ere hegaz egindu eta, behetik batzeko makurtu denean beste aldean idatzirikoa ikusi du. Adela-ri zuzendua da. Sidecarra aldeaz aurretik esandako orduan eta lekura ekartzeko diotso.

-Adela! -Onofre gelan sartu eta hantxe jantzi da, arin eta isil, emakumearen arnaskeraren konpasean hegan diharduten pinpilinpausa ikus-tezinak ikaratzuz gero iratzartu egingo duelakoan. Juan trenbidetik arrapaladan txalupara etorri zenekoa argazki finko egin zaio oroimenean. Kalerako bidean xehetasun guztiekin jantzita berri-kusi du laguna, orain atea zabaltzean udako den argia orduko negu hartako goizera igaro balitz ere berdin.

Besartean du Onofrek Jon, batelean, eta, hara, gabardina azpian fusilik ez dagoela ohartu da, orain bai, buruan finko geratu zaion argazkiak erakusten bait dio. «Hantxe non-edo-non itxi juan ba fusila».

Ciclonen odola mendekurik gabe gera ez ledin gura izan ez zukeen moduan, Adela tartean izateak eragiten dion ikarak ahora dakarkio orain bihotza, Jonek fusila trenbidearen inguruan utzi bazuen zerbaiterako utzi zuela eta, zer horren eguna iritsia dela bait daki. Eztropezuka etorri da eskaileretan behera.

Kalea zapaldu dueneko lar arin doala konturatu da eta, astiroago gura izan du ibili. Hain goiz izateko mundua bait dabil herrian. Nora ote doan susmoa hartuko diotela, Onofrerengan karramarroa leku eske hasi da. Chester bat iziotu du.

Portuan itsasuntziak atontzen dihardute. Ez dago arrainetarako ordurik, goizaldeko lehen orduko hotsak ez dira betiko zereginetakoak izan. «Ezer ez dok betikoa izan», Adela etorri zaio burura eta, artegatasunaren baitatik sortuz, beste sendimendu batek gotortasuna dakarkio hankar-

tera. Caudilloari urez doazkio ikustera arrantza-leak. Talara hurreratu da. Han da Azor yachta.

Goizaren ederra urgainean laban joan dadin utziz moduan lepoa eman dio eguzkiari. Sekula egiten ez duena egin du. El Correo Español eta La Gaceta del Norte erostera jo du, bidean blaust topatzen dituenei jaramonik egin gabe. «Arrainandiaren programa jakin behar dok».

«Viaje inaugural de su Excelencia el Caudillo» diote biek, Arrainandiaren aldeko laudoriotan urtuz.

Periodikoek diotenaren bidez Juanen buruan dabilena igarri uste izan du. Behiolako sutatsua-ren usaina datorkio oroimenera eta oraingo danbadaren ostean zelan alde egitea pentsatu ote duen, Adelarekin sidecarrean bada burutik dagoela erabaki du Onofrek. «Hoa bertara eta esaiok», bere buruari egin dion aginduak berak esan dio Jonek non izan behar duen momentu honetan. «Argizuloan!».

Argizuloaren ingurua baso sarria da, itsasoko haizeak orrazten dituen gaztainondo, haritz eta lizar gazteen adaburuek leuntasunez taiutua. Burdinbidea bere azpian joan dadin zulatzean

bere horretan geratu daia, materialeak garraiatzeko xenderak diren zauriak gorabehera. Eurotariko batean behera ailegatu da Jon argizuloaren ertzeraino, Onofreren kolarrean hartu duen zakutoa lepoan. Zakutoa behean utzita, tximinoarena egin du, zalu, irekiguneaz baliaturik trenbidera jausteko. Epifanio Gomez hura akatu zueneko lekuan izan daberrero.

Tuneleko barneazal ozkatsuan pikatxoiz zulatuturiko sartunearen bila ekin dio. Idoro duenean makartu egin da Jon itsutasunean. Trenaren txistua aditu du orduantxe. Luze etzun da, eta burdinbideari eusten dion montxorraren eta tuneleko hormaren artean dagoen ubidetxoko basatzaz melatu da. Trenaren haizeak bihotz-bete amorru berri ekarri dio. Hortxe doa El Caudillo garraiatu behar duen gaurko convoy berezia. Etzundako egokeratik kendu barik sartunera luzatu du eskua, hirurlau harri kendu eta zerbaiti eusteko. Fusila, Onofreri etxetik kendu zion manta zaharrean bilduta.

Onofreri bake apurra ekarri dio Caudilloren egunekoaren berri zehatzago jakiteak. Egunkari faxista biek diotenez, arratsaldeko bostetan

izango da estreinatzeko txangoa. Lehenago ministroak eta probintziko autoridadeak bilduko dira eta arrantzunziek omenezko aureskua egingo diote itsasoz. «Goiz hasi dozak ba», portuan utzi dituen arrantzaleen lanak gogoan egin du errepiderantz, soraio. Klaxon hotsak iratzartu du.

-Onofre! -atzera begiratu du, eta zapaltzeko eran izan den autoarena txantxa hutsa izan dela ohartu da.

«Hara berton txakurkume halakoa», Luisen Haiga garbitu berriko dirdiretara joan zaizkio begiak. «Nora hoa hain goiz ba?», esan bitartean leihatilara makurtu da Onofre, barruan nor besterik ote doan kirikatzearren. «Genaro!».

-Tira Onofre, heu be etorriko haiz, ezta?

-Nora -diotsonaz ez ezer ez dakinerena egin du, barrua jaten dion harrak besterik galdetu gura duelarik, ea ba beharrezkoa ote den eurak ere hara agertzea. Luis azeriak igarri egin bide dio.

-Beituk, nor zertan dabilen erakutsi baino hobea eta probetxugarriagoa dok besteekin bat egitea mozorro dantza horretan.

-Hain goiz baina? -esan die Onofrek, egunkari-orriak aidean dantzaraziz.

-Negozioetarako bazkaria diaukagu -autoak bere abiadatxo hartzen hasi da-. Caudilloa ez dok ezer; diruak balio jok eta, hemendik aurrera dirua diatorrek, baietz ba. Treneko beharginek etxeak behar juazek, portua be handiago egin behar joagu eta, diru hasiko dok. Aberastasuna gure Euskalerrarentzako.

Genaroren irri maltzurra da Onofrek ikusi duen azkena, ozta-ozta okozpea libre uzten dion El Correo Españolen orri koipeztuen gaintetik. Onofreri 'hemengoak' etorri zaio gogora, eta balizko sare horretakotzat izan duen Luis aspaldikoa beste sare batera igaroa dela ziurtzat eman du. Orduan aurreko gauean Adelarekin hitz egingakoa lehertu zaio garunean. «Alde egiteko barkua», Luis horren jakituan badaez dutela alde egiterik izango, Jonek egin gura duena egin eta gero. Karramarroaren arramaskada baretzeko chesterra iziotu du.

Jonek mantatik ume kuttunena baino tentu eta kontu handiagok atera du fusil zaharra, goizeko argiak, adaburu artean jausten, berak ere

orbelezko behe biguna ukitzearren egiten duen ahaleginak lagundurik. Epifaniori tiro egin ostean hodia eta ipurdia lotzen dituen torlojua askatu, oilarraren inguruko makineria atera eta, kartutxera eta guzti olio merkezeko xorrotada batez babesteko baino ez zuen astirik izan. Olioak ederto bete du bere zeregina. Piezak mantaren gainean utzi eta zakutoa zabaldu du. Itsaso aldetik bapore handiren baten hots-adarra ailegatu zaio. Prozesioa hasita dago itxura batean.

Halaxe eritzi dio Adelak ere ohetik jagi berri makisaren oharra irakurtzen diharduelarik. Alkandora hutsean oraindio, ile adatsak euren berezko orrazkeran eder, gizon itxuraz janzteko behar dituenak egiten hasi da. Baporen bozina adarrek koruarena egin duteneko une berean ilea narruzko kapelaren azpira bildu du, amaitutzat emanik apainketa. Astiz estu dabilelakoan egin du kalera. Postaria goiz ibili da bera ere Caudilloaren ekitaldietara joatearren. Behean utzi du halako eskutitz bat, Adelak makurtu, hartu eta gainera besterik irakurri ez duena.

Onofre R. de Archanda. «Emakume idazke-
ra», bere artean egin du, eskutitza narruzko ja-
karen paparraldean gorde duen eran.

Iparraldetik bozina adarrak gero eta ugariago
egiten dira. Itsasoko uretan laban eginez airea
puzten dute eta lehorrera datoz, potolotuta.
Jonek fusilaren osagarriak zakutotik atera duen
koipe berriaz laztantzen dituen bitartean aditzen
ditu, Onofre baso-hegian sartzear delarik. Adela-
k berak untzi-prozesioa du begien aurrean, sideca-
rra utzi zueneko aldatsean gora itsasoa bera den
aldare miragarriak ikusle pribilegiatu egiten bait
du.

-Juan! -aldarri egin du Onofrek basotxoko sa-
sietan leku eginez argizuloaren bila hasi delarik-
Jon -bigarrenez ere ausartu da, ikaraz.

-Onofre! -erantzunak lasaitu egin du.

Onofrek erretzen dituen chester guztien
mendekua nabaritu du, zuhaiztian behera abia-
dan laguna dagoen aldera doala, ebantondo
eran geratu diren xenderan barrena barik sastra-
ka artean, beldurra bere buruaren jabe. Begizta-
tu dueneko aldarri egin dio berriro, «Juan».

Hanka bilduek katiluarena egiten, apaiuak egitean arrantzaleak izaten diren moduan dago, katamotza baino zaluago laguna. Fusilaren osagarriak birkoipeztatu, doitu eta mihiztatuz dihardu. Ezer ez delakoa egin dio, buruaz epa modukoa luzatu eta berriro bere ekinari ekinez.

-Nora hoa fusil zahar horregaz?. -Erantzuteko astia hartu gura izan du Juanek, esan behar duenak garrantzia duela erakustearren edo.

-Ezer ikusten ez badok, hainbat hobe. Hoa etorri haizen bidetik eta beihalakoan lez, libratu egingo haiz.

-Ni libratu egingo nok baina, hi ez. -Onofrek ere hitzek beren lana egin dezaten utzi du denbora joaten, lagunak fusil-hodiaren barnekaldea kataleju gisan maneiatur darabilen bitartean. «Ez haiz hurrun joango», josi dio, hodiaren bitartez Juanen gogoak ikusten bide duen ihesbidea moztuta dagoela dakienaren doinu erabakiorraz.

Eragina izan dute azken hitzek. Juanek buruz buruko jarrera hartu du, zuzen lagunari begira. Onofre eremakurtu egin da. Eskukada orbel hartu, eskuan zapal-zapal egin eta aidean jaurti du.

-Luisekin kontatzen dok?

-Zein Luis? -Onofrek fusilaren ipurdia hartu du esku batean, lagunari finko begira-. Tira ba, dana dakik ezta? Ba bai.

-Nik ez diakiat ezer, baina Luisekin kontatzen badok hobe hau uretara botatzea. -Onofrek hitzei ekintzez atxekitzeko keinua egin du, goi altxatuaz fusil ipurdia.

-Zorua, nora hoa? Emaidak hori -ikaratuta eskuturretik oratu dio Luisek Onofreri.

Ez du amore eman Onofrek. Sendo eutsi dio ipurdiari esku batez, besteaz periodikoa luzatuz diotsola, «leiduk hau».

La Gaceta del Norte, El Correo Español, biek dakarte Caudilloaren argazkia lehen planan. Hitlerrek gogokoen ohi zuen egokeran ageri da, hau da, alboz, aintzinako erromatar enperadoreak txanponetan legez, biseradun kapelak beti kanpainan dihardutelako kutsua eransten diolarik.

Ipurdia orbeltzan utzi du Onofre, lagunak berriari egiten jaramonean argi ikusten duelako parea jo duela. Ez daki hark Caudilloaren egunekoaren berri zehatzik.

-Arratsaldeko bostak baino lehen ez dok hemendik igaro behar txerri halakoa!

«Ez dok jakin ala?». Hitzik gabe, begiradaz galdetu dio Onofrek, sareak maila bat, edo gehiago ere beharbada, hautsirik du.

-Bostetan! Goizeko lehen orduetan esan jeuskuek guri ba.

Unea dela eritzi dio Onofrek. «Nork», boxeolariak lehen crochetean igartzean berdina, «Luisek», beste bat jo dio, «hiru urtean ikusi barik egon haiz», andanadan jo dizkio hurrengoak, «oraintxe joan dok, bera bai goizez, negozio bazkaria daukeela eta». Astia hartu du azkena jotzeko Onofrek. «Franco Epifanio Gomez dala uste dok ala?».

Lagun bien artean eratu den isiltasunezko amildegia burrundada ozen batek bete du. «Sidedarra». Eta kasik aldi berean bolanderaren dandadak entzuten hasi dira.

Zuhaiztian ebandorik zabalena denaz baliatuz argi-zuloaren ingurua etorten aditu dute sidedarra.

-Adelak ez daki ezer, jakina!

-Ez -Juanek mantarekin bildu ditu pieza guztiak-. Heuk be ez deutsok hire susmorik azaldu ezta?

Ezetz egin dio buruaz, sidecarra, Adelak gasa urritu diolako, uzkerkada agoniotsuetan geratu zaienean parean.

-Egunon -umoretsu esan du neskak, burukoa kentzean ile guztia aske-. Sasoiz ailegatu naiz ala zer?

-Planetan kanbioa egon da. Ni ez noa barkuan -Jonek aginduz esan du, Adela bai, barkuan joango dela adieraziz.

-Ene! -esan du neskak, eta zakutua hartuta zuhaztian harago joan da.

-Ba, Doroteok arrazioa daukao ba -Jonek al-dibereko ernegu eta eroapenez esan du-. Arma-kaz laguntzeko prest dagoenik ez da ja. Eta argi esateko kapaza danik be ez da, horregatik esan jeuskuek goizean dala, badakieelako guri dueda sartu, gero barkua izango ete dogun ala ez, eta alde egingo dogulako. Eta txarrera jarrita be, tartean nor izan den salatu.

Onofre begira geratu zaio. Orduan Juanek, John Ingelesa izan zen Jonek, Luisen manta hartu

eta zutitu egin da. Goi-goi altxa du, pisua neurtu guran legez. Hiru-lau bidarrez hola egin eta aidean jaurti du, itsasorantz.

Xorrotx hotsa egin arte adi geratu dira biak, lagunaren burutada ergelkeria izan delakoan Onofre, urduri. Itsasoak irentsi duela ziur egin dienean hotsak, arnasa hartu dute.

-Hi hoa barkuan nire partez -Jonek erabakitsu esan dio-. Andreagaz ez daukak zereginik. Adelagaz be ez arean, baina nork daki! Hemen geratzen bahaiz, ostera, izango dok nire barri.

Beste ezertarako astirik gabe, Adela agertu da atzera ere gizonen artera. Erabat aldatu da beraren itxura. Alkandorari kara bereko gonak laguntzen dio orain, igel-praken ordeztu, belaunak hasten zaizkion horretaraino, eta boten ordeztu zapata beltzak ditu, zenbait ordu lehenago musukuatu dizkion oinen edertasuna gogoraraziz Onofreri.

Sidecarraren atzeko atetxoa zabaldu du Jonek, lagun biek elkarren begiradetan dihardutelako mutu, bera ere isilik. Ohartu direnerako ingeles-giltza atera eta arrautzaldea motorretik bereiztu du.

-Ni ez noa barkuan esan dio Adelari, beronek dakienez gero planen berri-. Eta esaiok Doroteo zoroari nere planaren erdia baino ez dala bete, eta horregatik sidecarraren erdia baino ez dala uretara joan. -Onofrek bere egonarritik urten ezinik ikusten du Jonen zeregina-. Agur!

Sidecarraren arrautzaldeari bultzada egin eta hantxe joan da, herren, zuhaitzen artean, basotoaren hegirantz. Ailegatu baino lehen haitz baten aurka jota jausi da. Jon arrapaladan joan, oratu eta azken bultzada eman dio. Uretan zelan murgiltzen den begira geratu da, gero burua jaso eta itsasuntzi prozesioa ikusi du. Bandera frankisten ugaritasunak min eman dio. Lepoa beste alderantz bihurtu du. Han ikusi ditu Adela eta Onofre ezpainak bat eginik elkarren besartean. Ohartu eta atoan separatu dira.

-Zuzen diabilk Doroteo hori, politikaren alde-tik jokatu behar joagu lehenengo eta behin -beste bien parean izan denean besartea zabaldu die-. Ni banoa. Motorra errekiatuta geratzen da -Adelari besartean duelarik-, eta hi, hasi hadi lasai bizitzen.

Iragan zaizkion bestelagunen hatsaren beroa igarri du Onofrek Jonen besarkadan. Korto, Anton, Ciclon, hurrengo batean Juan bera izango ote den, bularraldean gorapilo egin zaio zalantza eta begietan behera urtu zaio kasik mina.

Jonek indartsu ekin dio motorra abiarazteko pedalari. Aborrots itzela egin du gero, gasa txar-to neurtu duelako. Urritu eta betaurrekoak jantzi orduko Adelari egin dio hitz, lepoan ekarri duen zakutotik zorrotxo bat atereaz. Bolanderak dira.

-Abisu-seinaleak, Adela. Botaizuez banan banan minutu erdiko tarteaz atrakalekurantz zozzten bitartean, ez bi leku berean.

Buruaz irlako atrakelekuaren aldea erakutsi die, handik igarri baino egiten ez dena. Gero zuhaiztian gora abiatu da, errepiderantz.

Zuhaiztitik astiro urten eta errepidean izan dira Adela eta Onofre. Egunaren garrantzia bidean zenbat auto doazen kontuak eginez ohar-tzekoa da. Bolanderetariko bat hartuta seinaleak egiteko lehen maniobrari ekin gura izan dio gizonak.

-Zertarako seinaleak? -Adelak eskutik kendu dio bolandera-. Alferrik da ni urez joatea Jon barik, ze, beraren zer ezkutukoengatik, eta Doro-teoagaz duen hartuemonagatik izan naiz harekin joateko. Orain alferrik da ni ezkutuan ibiltea.

Errepidea utzi eta itsasadarra loditzera dato-rreren erreka baten jarioari jarraitu diote, albo-ko herriko kanposantuaren bila. Berau ere albo-an utzi eta burdinbidea zapaldu dute. Atalaiarik hoberenetan dira hilerriak inguru honetan, alde batera utzita abraiko irlatxoko hotela, zeinetako teilatuan errebelde garaileen bandera ageri den, Caudilloari agur egitera errekan behera doazen itsasuntzitxoetan bezala.

-Horreetariko izan beharko zan gurea -Adelak baretasun berezi batez egiten du berba, zelan eta barruko gorapiloren baten askatzea iritsi duen moduan.

Eta, bapatean, Isabelita lokomotoraren lurrun-adarraren buztuna etorri zaie belarrietara. Karrilak dardar crescendo batean sartu dira. Alborantz egin dute, Caudilloari ondo-etorria egitera datozenekin beterik doan trena bere joanean ikusten dutelarik. Bihurduran izan da eta, lokomotorak azpiko ardatzak eta langa-burdinak, balbulak eta hariak, heste guztiak erakutsi gura izan dizkiela otu zaio Onofreri. «Juan, Juan, mekaguen!» mamurtu du, karriletako dardara oinen azpiraino hedatzen zaiolarik.

-Berau trena hartuko dot bueltan -Adelaren baretasunak mutu uzten du Onofre.

Bolanderen hots berriak lehertu zaizkie geltokia zapaldu orduko. Ospakizunetarako eguna da. Burdinbidearen sendotasuna dirudi Erregimenarenak. Gorroto geldo batek bete gura dio barrua Onofreri. Urgora bezala etorten datorkiola nabari du.

Adelak igarri egin dio. Esku batetik oratu eta artez aurpegira begira diezaion, beste eskua samara ekarrarazi dio.

-Zeugaz joango naiz -esan dio Onofrek ches-ter baten premia larriak zatituriko ahotsaz.

-Txittt! -Adelak isiltzeko agindu dio-. Nire erabakiak neuk egin behar dodaz.

Isabelitaren lurrun-adarrak haizea beste aldetik duela adierazten duen urruntasunetik etorri zaie. Onofrek berak bere erabakiak bihotzaren aginduetatik libre egin duela, urteetako porrotari aurre egin eta etorkizuna bere eskuetan hartzeko modua dela, zigarro bat piztu gabe hitz egiteko gauza ez dela, purrustadan bota du guztia.

-Ganera, Anagaz ez naiz konpontzen -esan duenean Adelak isiltzeko keinua egin dio berriro. Trenaren aborrots itzelak gainez egin die une batez ahotsei eta galgakadak bere azken krakada egin batera lurrunak ere arnasa hartu gura moduan izan da. Isiltasun itzela egin da gelto-
kian, eurak bai bait dira hango mundu guztiak beharginak salbu.

Gurdiari berriro tiratzeko zain legokeen abere itzelenaren moduan, lurrunkadek lokomotoraren artegatasun izpi bat adierazi dute. Geltokiko buruak, gala egunetako alkondara beltza eta zingoladun kapela, txilibitua errementarazteko moduan egin du putz. Adela plataformako ateari eusten, nasan geldi Onofre, orduantxe etorri zaio emakumeari eskutitzaren akordua.

-Goizeon karteroak atetan itzi deutsu hau -Onofrek gutuna luzaten dion eskuari eutsi dio, laztanez-. Ez hadi erratu -esan dio orduan Adela, hizkera aldaturik, trenak aurrera eta eskua ere berarekin ihesean-, gau batekoak ez jok mundua egiten eta bihotzak lau zulo diaukazak.

Lokomotorak abiada hartu du, indarra lurrari kendu eta honek ikaraz erantzuten diolako eran. Adela bagoian sartu da, agurra ez luzatzearren. Eskuan duen gutuna norena den idazkerak berak esan dio. «Anita», traizio egin dio barruak izenarekin. Irakurri gabe tolestu eta atzeko partikaran gorde du. Oraingoz ez du ziurtatu gura susmoak diotsona egia ote den, emazteak eskutitza idazteak esan gura behar duena, hau da, Bilbon geratzen dela, umearena dakiela, euren artean se-

kreturik ez dagoela, barrua erretzen izan dion beldurra abuztuko egun argitsu honetan gauzatu dela; eta beldurraren lekuan bake-aire batek bete gura diola ohartu da.